

Elkartasuna
eta autogestioa
Grezian

ANTONIO CUESTA MARÍN

Elkartasuna eta autogestioa Grezian

Antonio Cuesta Marín

Hitzaurrea	3
1. zatia. Nola iritsi gara honaino?	5
1. Aro baten kolapsoa	5
2. Amets greziarraren amaiera	7
3. Euroa, Alemaniaren neurria	10
4. Politikoki ezinezkoa politikoki saihestezin bihur dadin lortzea	13
2. zatia. Alternatibak bilatzen	27
1. Lacandona oihanetik Syntagma plazaraino	27
2. Ekimen politikoak	35
3. Larrialdi soziala geldiaraztea	40
4. Lurraldearen aldeko borroka	53
3. zatia. Teoriatik praktikara	61
1. Tokiko merkataritza eta truke alternatiboak	65
2. Kooperatibismoa eta autogestioa	70
3. Berreskuratutako enpresak	77
Laburpena. Trantsizioaren hasiera eta garaipen batzuk	90
Oharrak	94
Bibliografia	101

Itzultzailea: Ramon Olasagasti Aiestaran



Dokumentuak 30

2014ko uztaila

www.mrafundazioa.org

@mrafundazioa

Yayo Herrero

Ekonomia-krisiak gogor kolpatu du menderaezina zirudien Europa eta, kontinente zaharraren barnean, hegoaldeko herrialdeak doikuntza-planen inposizioak ari dira jasaten, duela oso gutxira arte Europar Batasun aberatsean pentsaezinak ziren inposizio eta murrizketak.

Espekulazioan eta harrapaketan oinarritutako hazkunde-eredu neoliberalak lehertu egin zen, finantza-merkatuek sortutako aberastunaren hutsaltasuna agerian utziz, eta, kea nola, halaxe desagertu zen aberastasun hori. Natura eta gizalegez egindako lana bazterrerara utzita sortutako hazkunde ekonomikoaren ameskeria desegin egin zen herrialdeek egindako zorren zamaz, eta begien bistan geratu zen garapena esaten zioten hura ez zegoela oinarri sendo eta iraunkor baten gainean eraikia.

Kapitala irabazi-tasak azkar batean leheneratzen saiatu zen, eta orduan bere benetako aurpegia erakutsi zuen kapitalismoak. Botere politikoak, botere ekonomikoarekin bat eginik, makinaria suntsikorra jarri zuen martxan, eta hazkundera suspertzea eta enplegua sortzea aitzakiatzat harturik, deuseztatu egin zituen lan-eskubideak; murrizketa ikaragarriak egin zituen gizarte-zerbitzuetan, mendekotasunaren arloan, osasungintzan eta hezkuntza publikoan, egoera larriak sortzeraino; ahuldu egin zuen ongizatearekin zerikusia zuen oro, etxe barneko eremu patriarkalera mugatu zuen pertsonen bizitzaren hauskortasuna eta zaintza; areago higatu zuen lehendik ere aski ahula zen demokrazia...

Bidegabeko lapurretan oinarritutako politika horren aurreko suminduraren adierazpena ez da politika jakin batzuei eginiko kritika soilak. Osoko zuzenketa da. Jende asko esnatu da lozorrotik eta gero eta uste sendoagoa da logika kapitalistaren azpian nekez lor daitekeela guztiontzako bizimodu duinik.

Erantzun politikoaren esparruan, hor dira grebak, lege edo zuzentarau bidegabe baino gehiago kriminalen aurkako protestak, kaleratzeen edo zerbitzu publikoen desegitearen aurkako borroka, gora bidean diren neofaxismoen aurkako salaketak... Esparru horietan guztietan, kalean eta auzitegietan, gizartea gero eta aktiboago dago eta hobeto antolatuta.

Baina gainera, gero eta gehiago dira kontra egiteko, irauteko eta bizitza sozial eta ekonomikoa osotasunean berrantolatzeko eskubide legitimoa baliatzen dutenak. Ezin konta ahala proiektu eta ekimen ikusi ditugu jaiotzen eta sendotzen, lankidetzaren bidez beharrian materialei, afektiboari edo kulturei erantzuteko. Bestelako ekonomia sozial eta solidario baten ernamuin eta ardatz dira ekimen eta proiektu horiek guztiak, pertsonak eta pertsonen ongizatea baita horien muina. Sektore guztietan dago jendea eraikitzeke prest eta harremanak, politika eta ekonomia ulertzeko beste modu batzuk daudela erakusteko prest. Bizirauteko eta, aldi berean, etorkizuna eraikitzeke estrategia da. Hegemonia ekonomiko, politiko eta kulturalari buru egitea da kontua.

Botere ekonomikoari aurre egitea eta alternatibak eraikitzea, bi plano horiek konbinatzea funtsezkoa da. Lehenak aukera emango digu geratzen zaiguna gehiago ez hondatzeko galga jartzeko eta bigarrenak bide emango digu gizartea eraikitzeke beste modu batzuk badirela imajinatzeke eta gauzak beste modu batera egin daitezkeela geure larruan esperimendatzeko.

Testu honetan, Antonio Cuesta Marínek Greziako lurretan izan den erresistentziaren bide bikoitz hori aztertzen du, zorrotz eta zehatz aztertu ere, ondo baino hobeto baitaki ekimen horiek zein egoera politiko, sozial eta ekonomikotan sortu diren. Horien berri ematen duelarik, tresna politiko bat sortzen du, jardun politiko berri horiek hedatzeko eta beste lurralde batzuetan hezurramitzen ari direnekin lotzeko. Bere lanak hauspoa ematen dio askoren uste sendoari, giza emantzipazioa, justizia, patriarkatuaren aurkako borroka, iraunkortasuna, etab. borroka internazionalistak direlako uste sendoari, eta argi uzten du pertsona guztiok dugula garrantzia eta leku nabarmena borroka horretan.

1. zatia.

Nola iritsi gara honaino?

«Kapitalismoaren historia, bere krisiaren historia da»

Stathis Kouvelakis

«Espekulazioa, jolasa, hori da gurea bezalako enpresa erraldoi baten ardatza, muina bera. Bai, espekulazioak eragiten du odola, nonahitik hartzen du erreka apalen bidez, pilatu egiten du eta, ondoren, alde guztietara bideratzen du, ibai bihurturik, harik eta diru-zirkulazio izugarria eratu arte. Hain zuzen ere, zirkulazio horixe da negozio handiak biziartzat dituen».

Emile Zola.

El dinero (1891)

«35 urte egin ditut kanpo zorrarekin loturiko gaietan nahasita, eta ziurta diezazuket iraganean ez dudala inoiz ekonomia nazionalik hainbestearino eta hain aldi luzean murrizten ikusi... Hainbesteko estualdi batek ezin du luzaroan jarraitu gizarte demokratiko batean».

Charles Dalara.

**Finantzen Nazioarteko Institutuko ordezkaria
La Voz de América-ko zerbitzu nazionalari
emandako elkarrizketan, 2012.12.07**

1. Aro baten kolapsoa

2007ko uztailaren 18an, Ameriketako Estatu Batuetako bosgarren inbertsio-bankuak, Bear Stearns-ek, bere bi inbertsio-funts nagusien porrota iragarri zuen. 1.500 milioi dolar inguru haizeak eramanda bezala desagertu ziren, eta joera hori berehala hedatu zen Europa osoan ere.

Abuztuan CDOen¹ krisiak Atlantikoa gurutzatu zuen eta Frantziako BNP merkataritza-bankuan jo zuen erdiz erdi. Banku horretako arduradunek ez zuten gaitasunik izan beren aktiboak baloratzeko; izan ere, beren altxortegiak gizentzen zituzten titulu burutsu horiei "esker" (CDO horien eskaria amildu egin zen), ezin izan zioten preziorik jarri ordaintzeko obligazio sorta horri, horiek ordaintzeko bermerik ez zegoelako.

Hori gertatu orduko, Europako bankuek utzi egin zioten elkari dirua mailegatzeari, eta Europako Banku Zentralak (EBZ) 95 mila milioi euro sartu behar izan zituen merkatuetan, finantza-sistemaren kolapsoa saihesteko. Handik lasterrera, kreditu-erakundeak, bereziki Alemaniakoak, likidezia-arazo larriak izaten hasi ziren², eta egoeraren larriaz jabetzen, beren aktiboen artean zituzten arrisku handiko titulu ugarien eraginez. EBZk berriro esku hartu behar izan zuen, eta beste 600 mila milioi euro baino gehiago jarri behar izan zituen Europako finantza-sistemari eusteko.

Urtearen amaiera aldera, AEBetako Erreserba Federalak erabaki zuen bost banku zentralekin bat egitea (besteak beste EBZrekin) finantza-erakundeei ia mugagabeko kreditu bat emateko, bankuen arteko kredituak eten ez zitezen eta, ondorioz, sistema kolapsatu ez zedin. Une hartan, gutxik usteko zuen hondamendiaren neurriak txiki utziko

zuela “1929ko Krak” entzutetsua³. Baina 2008an banku erraldoiak eta CDSen (*credit default swaps*) negozioan sartu ziren aseguru-etxe handiak hondoa jotzen hasi ziren bata bestearen atzetik. CDS delakoak aseguru-polizak ziren, kredituen ez-betetzeak babesteko. Bada, hondoratze horien ondorioz, AEBetako Erreserba Federalak 5 bilioi dolarreko faktura (munduko BPGaren hamarren bat, gutxi gorabehera) ordaindu behar izan zuen likidezia ziztatzeko eta kreditu-bermeak emateko.

Fannie Mae, Freddie Mac, Lehman Brothers, Merrill Lynch, AIG... Bazirudien albiste beltz horiek Atlantikoaz bestaldeko kontua zirela, baina pixkanaka-pixkanaka egiaztatu zen Europako bankuak ere gaitz berak jota zeudela, eta sistema kapitalistaren bihotza bera zegoela eri. Wall Streeteko eta Londresko Cityko burtsak amildu egin ziren, eta Irlandan, gobernuaren iragarpenaren eraginez (aurrezki guztiak eta lurraldean jarduten zuen edozein bankuk emandako bonoak bermatuko zituela aurreratu zuen), egun bakarrean bukatu ziren estatuko erreserba guztiak;



izan ere, handik lasterrera agerian geratu zenez, Irlandako finantza-erakundeen zulo beltza, handia ez, ikaragarria zen, herrialdeko aurrekontua hainbat aldiz jateko bezain bestekoa.

Krisiaren lehen fasean, eta finantza-sistemaren ziurgabetasun eta ezegonkortasun gero eta handiagoaren aurrean, euroguneko banku nagusiek diru-kantitate handiak utzi zizkieten periferiako herrialdeei, besteak beste Greziari, estatu horiek kredituen merkatu segurua zirelako uste okerrean. Eta hala, gobernuak joera keynestarreko neurrien bidez saiatu ziren ekonomia suspertzen, eta, bien bitartean, EBZ eta Europako Batzordea arrapaladan hasi ziren banku-sistema itomen horretatik ateratzeko eginahalean, Washingtonek Wall Streetekin egin zuen modu berean, hain zuzen. Baina zeregin hori gauzatzeko arazoetako bat euroguneko arkitektura ezpalsua bera zen; izan ere, herrialde guztiak txanpon bakar batean inguruan batu arren, haien zor publikoak bereizita mantentzen zituen egitura horrek, zorrotz mantendu ere, eta estatu kide bakoitzaren ardurapean uzten zuen bere lurraldearen barnean bankuen kaudimena ziurtatzea.

«Orain jada ez dago terrorismo zuririk. "Indarkeriazko prozedura krudelen bidez herri batean agintzen duen gobernu", horixe da egundaino balioa duen adiera bakarra. Horrelakoa izan zen diktadura militarren gobernu. Non eta ez ditugun terrorismo zurizat hartzen soldaten, pentsioen eta aparteko ordainsarien gainean murrizketa gehiago egiteko etengabeko mehatxuak. Hauxe da terrorismo zuriaren gure bertsioa, "klase burges nagusiak Estatuko organismoen bitartez egiten duena"».

Petros Markaris.

Ogia, hezkuntza, askatasuna. 2013

2. Amets greziarraren amaiera

Grezia 2008ko abenduaren 6an esnatu zen Joko Olinpiarren eta amets europarraren ajetik, poliziak Andreas Grigorópoulos 15 urteko gaztea hil zuenean, ikasleen protesta baten ondoren. Poliziak "odol hotzez" egindako tiroek –halaxe berretsi zuten bertan zeuden lekukoek– eta ospitalera iritsi orduko hil zen gaztearen heriotzak istiluak eragin zituen herrialde osoan; gero, hiri batetik bestera hedatu ziren protestak, sua nola, azken 25 urteotako larrienak bihurtzeraino. Atxilotu zituzten tiro egin zuen polizia eta haren lankidea, hilketa nahita egitea leporatu zioten lehenari,

eta, ondorioz, Barne Ministroak, Prokopis Pavlópoulosek dimisioa eman zuen (ez zen onartua izan), baina horrek ez zuen gazteen sumina baretu eta erreboltak egun batzuk gehiago iraun zuen.

Lehen ministroak, Costas Karamanlis kontserbadoreak, udazken beroa zuen aurrean, enpresen itxieraren ondorioz eta sortu berria zen krisiak eragindako lehen kaleratze masiboen ondorioz. Grebak eta ikasleen manifestazioak ia egunerokoak ziren Atenasen, eta adostasun sozialaren zutabeak balantzaka hasi ziren. Hilketaren ondoren, ezkerreko indarrek gobernuaren aurkako greba orokorra deitu zuten. Egoera gaiztotzen hasia zen ordurako: gobernu itotzen ari zen ustelkeria-eskandaluetan, eta ekonomia globalaren atzeraldia ere nabarmena zen; Grezian BPGak behera egin zuen urteko azken hiruhilekoan.

Greziarrak gezurrezko hazkunde-burbuila batean bizi izan ziren hainbat urtetan; herrialdeko ekonomia maila guztietan finantzatzearen ondorioz, neurriz gainera kontsumoak puztu zuen, batez ere, burbuila hori. Alegia, eurogunearen integratziora biltzeko moduak ekarri zuen, neurri handi batean, ameskeria zingiratsu hori; izan ere, bigarren sektoreak BPGaren %20 baino ez zuen sortzen, eta nekazaritzak, are gutxiago; eurogune osoko indizerik txikiak ziren horiek. Etxeko kontsumoaren zenbatekoak BPGaren %70 gaintzen zuen Grezian; askogatik, eurogune herrialde guztietako kontsumorik altuena zen greziarrena. Aldi berean, aurrezkitasak joera nabarmen negatiboa hartu zuen 2004tik aurrera, eta horrek ere argi adierazten zuen maileguak, era guztietakoak, ugaritu egin zirela etxeetan. 1980ko hamarkadaren amaieratik aurrera, zor pribatua izugarri areagotu zen: BPGaren %10aren baliokide izatetik %60 izatera, krisia lehertu zen unean⁴; 2010ean, 100.000 milioi eurora iritsi zen zor hori, 2008ko hasieran baino %20 handiagoa⁵.

Aldi berean, 2004ko Joko Olinpiarretan diru publikoaren zenbateko izugarriak bideratu ziren obra eta azpiegituretara, Greziaren ezaugarriak kontuan hartuta, neurriz gainera obra eta azpiegituretara, dena esan behar bada. Propaganda-mekanismo arranditsu baten eskutik, herritarrei sinetsarazi zitzaion unea zela munduaren aurrean herrialde moderno eta abangoardiako gisa agertzeko. Muturreko Ezkerreko Koalizioa (Syriza) izan zen Joko Olinpiarrek egitearen kontra bozkatu zuen alderdi bakarra, uste zuelako Greziak ezin zuela bere gain hartu halako kosturik, eta, horren ondorioz, gainerako alderdiek gogor eraso zitoten koalizioari eta

aberriaren aurka egitea leporatu zioten. Baina alderdi horren iritzi bakar eta bakartuak ez zuen ezertan aldatu Joko Olinpiarren plan handi-mandia: era guztietako estadioak eta eraikuntza berriko instalazioak jaso zituzten, egoitzak, apartamentuak, sarbideak, autopistak, metro- eta tranbia-lineak eta errepedeak eraiki zituzten, baita aireportu berri bat ere, ordura artekoa erabat abandonatuta eta inolako erabilera garbirik gabe utzita, hamarkada baten buruan.

Hasierako aurrekontua laukoiztu egin zuten ofizialki, 9.000 milioi eurora iristeraino. Ofizialki esan dugu, gaur-gaurkoz ez baitakigu zehazki zenbat diru xahutu zuten guztira; askok diote 28.000 milioi inguru izan zirela. Hain zuzen, obrak egin zituzten urteetan (2001 eta 2004 artean) Greziaren kanpo zorra areagotu egin zen, 30.000 milioi eurotan areagotu ere, eta inork ez daki zehazki nora joan zen diru hori.

Baina hirigintzan xahututakoa demasekoa izan bazen, ez zen gutxiagorako izan nazioarteko korporazioek ordaindutako komisio eta eskupekoen munta. Aurrez ere, Alemaniako Siemens enpresak, besteak beste, hainbat ministro greziar erosi zituen beste lizitazio batzuetan, eta orduko hartan, Siemens berak eta beste hainbat enpresak milioi askoko esleipenak eskuratu zituzten Joko Olinpiarren negozio handian. Panorama osatzeko, 2004an gobernua hartu zuen Demokrazia Berria alderdi kontserbadoreak jauntxoaren garaiko politika errotua berpiztu zuen ostera, ministerioetan, enpresa publikoetan eta, areago, baita erakunde sindikaletan ere, senide eta lagunak jartzekoa, alegia. Lau urte eskasetan, Karamanlisek 55.000 funtzionario berri kontratatu zituen, bere boz-emaileen artean hautatuak, sistemaren alderdiei beti babesa eta laguntza eman izan zieten bezero-sareak sendotzeko. Hala, eskala handiko ustelkeria oinarrira ere hedatu zen, lupetza nola, eta gizartean halako giro narrasa orokortu zen: isiltzeko ezer ez zeukanak beste alderen batera begiratu behar zuen. Horrela azaldu zuen Kostas Vaxevanis kazetariak: “Greziako sistema politikoak erabat ustelduta ditu erroak; bere interesak asebetetzeko baino ez du funtzionatzen. Bezerotza orokortu egin da, eta, beraz, inork sektore publikoan lan egin nahi badu, alderdi politiko jakin bateko kide izan behar du. Betikotu egin nahi dute sistema hori, eta, horregatik, jendea beldurtu egiten dute”⁶.

3. Euroa, Alemaniaren neurria

Komeni da urte batzuk atzera egitea ohartzeko Alemaniak esportatzaile peto-petoaren rola nola hartu zuen aurreko mendearen 1970eko hamarkadan: hazkunde-maila erdipurdikoa izan arren (Europako batez bestekoa baino apalagoa), asmatu zuen etekinak berriro inbertitzen, gainerako bizilagunek baino proportzio handiagoan. Urte batzuk geroago, bateratzeari esker, soldatak moldatzea lortu zuen, EBko beste herrialde batzuetan baino dezente txikiagoak bihurtzeraino, eta soldata-igoerei hazkunde-tasaren eta produktibitatearen azpitik eusten ere jakin zuen⁷.

Maastrichteko Ituna sinatzearekin, 1992. urtean, Europako eliteek asmo handiko plan bati eman zioten bide: Alemaniako korporazioak zeuden plan horren oinarrian, eta hazteko esparru bat egokitu behar zitzairen beren esportazioetarako, markoari indartsu eutsiz, eta, aldi berean, laguntza eman behar zitzairen, gainerako EBko industria-garapenaren ardatz bihur zitezen. Hauek izan ziren, beraz, Europaren hazkundearen oinarriak, uztari berera lotuak: ekipamendu-ondasunen eta kontsumo-ondasunen industria indartsuari eustea, Alemanian batez ere, eta gainerako herrialdeetan eskari zabala sortzea, ondasun horiek eros zitzaizen.

Maastrichtek muga bat ezarri zuen aurrekontu-defiziterako, %60aren azpiko ratio bat BPG-zorra erlaziorako, inflazioaren aurkako moneta-politika ere ezarri zuen (EBZk kudeatua) eta transferentziaren aurkako klausula bat (horren arabera, zailtasunak zituzten herrialdeek ezin zuten laguntzarik jaso ez Europako erakundeetatik ez gainerako estatu kideetatik). Beste zenbait neurri, ordea, ahaztu egin zituzten. Ahaztura nabarmenenetakoa, soberakinak birziklatzeko inolako mekanismorik ez egokitu izana⁸; hau da, eskualdeen arteko elkartasunezko tresnarik ez jaso izana, herrialde batzuen eta besteen arteko egoera fiskala orekatzeko.

Alemaniaren ikuspegitik, monetaren devaluazioa zen bere estrategia garatzeko oztopo nagusia; izan ere, zenbaitetan, lehiakideek, Italiak adibidez, merkataritza arloko defizitak zuzentzeko baliatzen zuten neurri hori. Saiatu ziren *Aldaketarako Europako Mekanismoa* ezartzen, monetaren gorabeherei muga batzuen barnean eusteko akordio lauso bat, baina saiakerak huts egin zuen, eta azkenik, Berlinek onartu egin zuen moneta bakar eta iraunkorraren aukera, espekulatzailaeei dibisa nazionalen

kotizazio gorabeheratsuez aprobetxatzen ez uzteko. Euroa sartu zenean, Alemaniako industriak babesa aurkitu zuen gerta zitezkeen balio-gutxitzeen aurrean, eta horri esker, soldaten murrizketatik zetozen irabaziak iraunkor bihurtu ziren.

Aldi berean, Europako periferiako herrialdeek ere babesa eman zioten txanpon bakarrari, alde batetik, eliteak nazkatuta zeudelako devaluazio bakoitzarekin beren bankuetako kontuek balioa nola galtzen zuten ikusteaz, eta, bestetik, langileak ere euforiko zeudelako, propaganda eraginkorrari esker, inflazioa saihesteko eta, horrenbestez, soldata-igoerak bermatzeko tresnatzat saldu baitzitzaien euroa.

Eragiketaren kostua, ordea, ez zen iragarritako helburuekin bat etorri. Inflazioari %3aren azpitik eusteko (ezinbesteko baldintza eurogunean egoteko), herrialde defizitarioek beren ekonomietako produkzio-sektoreen geldialdia eragin behar izan zuten. Hori dela eta, soldata bidezko diru-sarreraren jaitsiera arintzeko, kreditua handitu behar izan zuten, interes-tasak merkatuta. Langileek soldata txikiagoak onartu behar izan zituzten halabeharrez, mailegu pertsonalen eta kreditu-txartelen truke, eta lehenaz gain areago zorpetu ziren⁹.

Eurogunean eragin larriak izan zituen horrek; finantziarizazioa, periferian, moneta batasunaren esparruan egin zen, eta Alemaniaren agintearen itzalpean. Hegoaldeko herrialdeek defizit handia pilatzen zuten; Alemaniak, aldiz, superabita sortzen zuen, eta superabit horrek ito egiten zituen ekonomia ahulena¹⁰.

“Kontu korrontearen defizit-testuinguru horretan, herrialde periferikoek kanpoko maileguen gero eta mendekotasun handiagoa zuten, eta, aldi berean, barne zorrak ere gora egiten zuen. Interes-tasa baxuei esker eta sinesgarritasun handiagoa zutelako uste okerrari esker, hainbat urtetan aparteko zailtasunik gabe eskuratu zituzten beharrezko funtsak. Baina 2009aren amaieran, eurogunearen egiturazko okerre finantza-merkatuen eraginkortasun urria gehitu zitzaizen azkenik, eta horrek hondamendia ekarri zuen herrialde periferikoetara”¹¹.

2009ko atzeraldiak inbertsio pribatuaren kolapsoa eragin zuen, eta Alemaniaren kasuan, baita bere esportazioak etetea ere¹². Egoeraren ziurgabetasuna eta kredituan ezarritako murrizketak aintzat harturik, enpresak beren inbertsio-proiektuak atzeratu edo bertan behera utzi beharrean gertatu ziren, baina, era berean, zailtasunak izaten hasi ziren

epe laburrerako produkzioa finantzatzeko. Hamarraldi batean baino gehiagoan finantziarizazioa izan zen ekonomia periferikoen motorra, eta are nabarmenago herrialdeok euroa bereganatu zutenetik, baina finantziarizazio horrek berak sektore guztien zorpetze gero eta handiagoa ekarri zuen, eta, bereziki, Estatuarena.

Alde horretatik, Europako Diru Batasunean integratzeak eragin nabarmena izan zuen, batetik, lehiakortasuna galtzea ekarri zuelako, eta, bestetik, finantza-sektoreari bultzada ikaragarria eman ziolako. Euroak moneta-politika bateratua ezarri zuen, bi premisa hauek oinarri hartuta: inflazioari eustea eta dibisari herrialde indartsuenen interesekin bat zetorren balioa ematea. Horren ondorioz, interes-tasa baxuak ezarri zituzten eurogune osoan, eta EBZk finantza-botereen interesen arabera jarra hartu zuen, eta zorpetutako herrialdeen kontrakoa, estatu horiek ezin izan baitzuten inolako laguntzarik jaso erakunde horretatik.

Hori dela eta, 2008 eta 2009 artean, Europako “gubernua” (EBZ eta Europako Batzordea) finantza-sistema hondotik ateratzen hasi zenean, lehen ondorioetako bat izan zen bankuek pilatutako galera izugarriak herritarren artean “sozializatzea”, zor publiko bihurturik. Hurrengo, are maltzurragoa eta krudelagoa, erreskatatutako banku horiek berek diru publikoari emandako erabileraren ondorioz etorri zen; izan ere, lehenago edo beranduago, euroguneke estaturen batek zorrari ezingo ziola aurre egin apustu egiteko erabili zuten diru hori. Euroguneke kide izatearen ondorioz, herrialde zorpetuenek, Greziak adibidez, ez zuten aukerarik moneta devaluatzeko eta, modu horretara, EB osoan eragina zuen atzeraldian hobeto aurre egiteko. CDS horiek baliatuz (aurrez zehaztutako kopuruak bermatzeko polizak, hirugarren batek ordaindu gabekoei aurre egiteko), bankuek eta estaldura-funtsek negozio oparoari ekin zioten, are eta oparagoa krisia larriagotu ahala. Espekulazioaren aldeko apustu horiek sendotu egin ziren, bi arrazoirengatik: “hasteko eta behin, Greziaren edo Irlandaren aurka izenpetutako CDSen prezioa igotzearen ondorioz, igo egin ziren Atenasek eta Dublinek kredituak eskatzeko ordaindu beharreko interes-tasak ere, eta horrek zenbaki gorrietarantz (eta erabateko porroterantz) eraman zituen pixka bat gehiago; bigarrenik, CDS horietan zenbat eta diru gehiago xahutu, orduan eta kapital gutxiago bideratzen zitzairen produkzio-jardueretan inbertitzeko kreditu bila jotzen

zuten enpresei eta zor gero eta handiagoa finantzatzeko eginahalean ari ziren Estatuei”¹³.

Horren guztiaren eraginez bigarren fase bat etorri zen, zor subiranoaren krisia deritzona. Grezian, 2009aren amaieran sumatu ziren krisi horren hasierako zantzuak eta mugimenduak. Herrialde periferikoen integrazioa eurogunean ez zen egonkorra izan eta hortik etorri zen, hein handi batean, krisiaren ziklo hori. Egile batzuen iritziz, ordea, Estatu horiei emandako hipoteka-kreditu espekulatiboan ondorioz etorri zen ziklo hori. Gogora dezagun, bankuak erreskata zitzaten eman zitzaizkiela estatuei kreditu horiek eta, neurri txikiagoan, abian zen atzeraldia leuntzeko inbertsioak egin zituzten.

Gastu publikoa areagotzearen bidez jarduera ekonomikoa suspertzeko ahaleginak defizitaren hazkunde izugarria ekarri zuen: euroguneko herrialde gehienetako markak hautsi ziren, eta askogatik gainditu zen BPGaren %3ko muga (Maastrichteko Itunean adostutako Egonkortasun Hitzarmenean ezarri zen muga hori). Grezian, %14ko langara iritsi zen doidoi defizit hori. Finantza-merkatuen presiopean, krisiaren eragina mugatzen zuen osagai bakarra –gastu publikoa, alegia– izugarri eta modu bortitzean murriztu zuten gobernuek, halaxe onartu baitzuten orduan abiarazitako lehen doitze-programetan. Egoera horrela, produkzio-sektore pribatua erabat babesgabe geratu zen, jarduera ekonomikoa eta inbertsioa gidatzeko erronkari buru nola egin ez zekiela, hilzorian zen finantza-sistematik gabe eta eginkizun horretarako kreditu-lerrorik gabe, esku-hutsik eta umezurtz, geratu baitzen. Eta horrek ekonomiaren kolapsoa ekarri zuen.

4. Politikoki ezinezkoa politikoki saihestezin bihur dadin lortzea

2009ko urrian, Greziako gobernu hautatu berriak iragarri zuen herrialdearen egiazko defizitak %12a gainditzen zuela jada, eta ez aurreikusitako %6,5a, eta, nolana ere, Maastrichten ezarritakoaren halako bi baino gehiago zela. Greziak 300 mila milioiko zorra zuen ordurako eta diru hori birfinantzatzeko ordaindu beharreko interes-tasa zeruetara eraman zuen albisteak; eta, jakina, kiebraren aldeko apustua egin zuten espekulatzaileek kabitu ezinik igurtzi zituzten eskuak. Bankuen arteko Europako merkatuak soilik finantza-erakundeentzako zirkulazioan

jarritako kreditu merkeak aprobetxatuz, erakunde horietako asko negozio oparoa egiten hasi ziren: gobernuei dirua interes askoz handiagoan uzten. Une hartan, Frantziako eta Alemaniako bankuek Greziako zorraren 75.000 eta 53.000 milioi euro inguru zituzten, hurrenez hurren¹⁴.

Hurrengo bost hilabeteetan, Greziak lukurreria-tasetan eskatu behar izan zuen dirua, eta, lehenaz gain, kaudimenik ezaren hondoa jo zuen, harik eta inbertsiogileek bono subiranoak erosteari utzi zioten arte. Horren ondorioz, finantza-merkatuek jardueraren beste uzkurdura bat jasan zuten, 2008an izan zenaren antzekoa. 2010eko maiatzaren 2an, Europako Batzordeak, EBZk eta Nazioarteko Diru Funtsak (NDF), geroztik Troika izenez ezagun egin den hirutasun santuak, Greziari 110.000 milioi euroko mailegua ematea erabaki zuten, itzultzeko modurik ez izateko bezain interes-tasa altuarekin eta zerga arloko doitze-politika desarautzaile oso gogorrei loturik. Batez ere lan arloan ezartzekoak ziren politika horiek, ongizate-estatua desegiteko eta borroka politiko eta sindikalaren poderioz hainbat hamarkadatan eskuratutako lorpen sozialak eraisteko. Une hartatik aurrera, kreditu garestiak diseinatu zituzten, nahita, ustez mailegu-hartzaile berankorrei lezio morala emateko, “beren ahalmenen gaineratik xahutu zutelako dirua”. Aldiz, ezinean zebiltzan bankuei oso-oso aldeko baldintzetan utzi zitzairen dirua, trukean haien funtzionamenduari loturiko inolako baldintzarik edo ordainik ezarri gabe gainera, ordura arteko haien jarrera eta jarduna eredugarria izan balitz bezala.

Europar Batasunak Finantza Egonkortasunerako Europako Mekanismoaren (MEEF) sorrera iragarri zuen, 750.000 milioi euroko zuzkidurarekin, euroguneko herrialderen batek zorra ordaintzeko laguntzarik behar izanez gero. Baliabide horren arazo nagusia izan zen krisi globala eragin zuten CDO haien egitura bereko eurobonoak jaulki zirela, tresna hori finantzatzeko. Orduko hartan, euroguneko herrialdeen hainbat berme mota bildu ziren paketetan, modu ilun samarrean bildu ere, bakoitza kaudimen-maila eta interes-tasa desberdinekoa. Argi geratu zenean zer-nolako funtzionamendua izango zuten MEEF bono berriek, inbertsiogileak eta espekulatzailak berriro ere apustu egitera menturatu ziren, beste CDS belaunaldi baten babesarekin, eta biktimak euroguneko herrialde ahulenak izan ziren.

Hala ere, eta 2011. urtearen amaieran krisia larriagotu egin bazen ere, eurogunearen erdiguneko herrialdeek eskema berari eutsi zioten, eta

ezezkoa eman zioten periferiako zorrak elkarrekin ordaintzeko sistema bat ezartzeari. Hala, aldi baterako erreskate-maileguak ematen jarraitu zuten, austeritate-neurri lazgarriari loturik. Gainera, harreman hierarkikoak lehengo berean mantendu zituzten, EBZren kapital-horniduraren gerizpean, eta, horrenbestez, Alemaniak beti izan zuen azken hitza erreskate guztietan.

Horrela esplikatu izan du Josep Fontana historialariak: “krisiaren ondorioak soilik behekoek jasan zituzten: bankuak diru publikoz birkapitalizatu zituzten, eta, bien bitartean, familia asko etxerik gabe geratu ziren ezin zutelako hipotekak ordaintzen jarraitu, eta langabezia kontrolik gabe areagotu zen. Finantza-enpresak saneatzeko kostuen eta aberatsenei ezarritako zerga-murrizketen ondorio erantsiak zamatu behar izan zituzten estatuek, beren kontuen bizkar, zertarako eta finantza-erakunde eta aberats horiek inbertsioak egin zituzten eta ekonomia suspertzen lagun zezaten. Esperientzia historikoak erakutsi du, ordea, aitzakia horrek oinarri eskasa duela”¹⁵.

Greziak austeritate-politikak onartu zituen bere kabuz eta erabakiz 2010eko hasieran, baina politika horiek gogortu egin behar izan zituen, EBrekin eta NDFrekin urte bereko maiatzean adostutako laguntza-paketearen eraginez. Eta are gehiago, bigarren memoranduma izenpetzearekin bat, mailegua zabaldu zenean; hala, doitze eta murrizketen olatua gizartearen eta ekonomia nazionalaren zirrikitu guztietara iritsi zen.

Greziako Parlamentuak onartutako akordioetan salbuespenezko neurriak ere hartu zituzten, zerga arloko oreka lortu ahal izateko; batez ere soldatetan, pentsioetan eta gizarte-zerbitzuetan izan zuten eragina neurri horiek. Aldi berean, presio fiskala pixkanaka handitzea ekin zion gobernuak, eta pribatizazio-programa zabal bat ezarri zuen, mendebaldeko herrialde batean inoiz aplikatu gabekoa.

Sektore publikoan nahiz pribatuan laneko kostuak murriztea helburutzat harturik, langile klasea tokirik ahulenera zokoratu zuten, kapitalaren mesedetan, nola ez. Presioarekin batera, zergetan jarrera gero eta atzerakoiagoa agertu zuen Greziako gobernuak, halaxe eskatzen baitzuen Troiak bere programetan. Horren adierazle, BEZ eta errentaren gaineko zerga handitu zituen Greziako gobernuak, eta ez, aldiz, sozietateen gaineko zerga.

Ondoriorik nabarmenenetako bat kapitalaren eta lanaren esparrutik zetozen sarreren alderantzikatzea izan zen. Batez ere aldi horretatik aurrera geratu zen agerian iraultze hori. Horrela erakusten du Lefteris Tsoulfidis Mazedoniako Unibertsitateko Ekonomia Saileko irakasleak berriki eginiko ikerketa batek¹⁶. Finantza-krisi globalaren hasierak, 2008an, inflexio-puntua ezarri zuen Greziako aberastasunaren banaketa-indizeetan, herri xehearen kaltetan, noski.

Giniren koefizienteak (gizarte bateko diru-sarrereren banaketan berdintasun-maila erakusten du adierazle horrek) eta beste zenbait aldagaik bilakaera positiboa izan zuten 1980. urtetik 2000. urtera, baina 2007an kontrako joera hartu zuten, eta 2010. urtetik aurrera oso okerrera egin zuten. Kapitalaren etekinen eta lan-etekinen arteko desoreka gero eta handiagoak berretsi zuen aldaketa edo jira hori. Epe berean, eta diru-sarrereren bi unitateen arteko bilakaera alderatzen zuen azterlan bat oinarri hartuta, “nabarmena izan zen sarrera guztien zenbatekoan langileen egoerak izandako kaltea, kapitalarekin alderatuta”, Tsoulfidisen hitzetan.

2007. urtetik aurrera, zenbaki errealei erreparatu gero, diru-sarrerak gutxitu egin ziren Grezian, bai enpresentzako eta bai langileentzako: enpresen irabaziak eta inbertsio-maila amildu egin ziren, eta langileen kasuan, langabeziak inoizko mailarik handiena jo zuten. Hala ere, eta aldi horretan enpresa askok porrot egin arren, diru-sarrera handienak zituzten herritarren %20aren eta %20 pobreenaren arteko errenten proportzioa handitu egin zen 2009-2012 epean, 5,6tik 6,6ra, hain zuzen. Hau da, bi mutur horien arteko aldea ia %18an handitu zen.

Azterlanak egiaztatu zuen soldatapekoen sarreretan eginiko murrizketen, zerga igoeren eta zerbitzu publikoak gutxitzearen ondorioz, pobrezia erlatiboak gora egin zuela nabarmen 2009tik aurrera, oso modu kezagarrian. Aldiz, aberastasun handiek, krisiaren eraginik ez jasateaz gain, oparoaldia bizi izan zuten. Horren erakusle, 2010ean 445 pertsonak zuten 30 milioi dolarretik gorako ondare pertsonala, eta hiru urteren buruan, 2013an, 505ek. Estimazioen arabera, pertsona izugarri aberats horiek guztira 60.000 milioi dolar inguru zituzten aktibotan 2013aren amaieran; hau da, aurreko urtean baino %20 gehiago. Dirutza hori Grezia osoko BPGaren %24 zen.

Hasiera-hasieratik, aplikatutako doikuntza-politiken xedea izan zen Estatuaren egitura juridikoa desegitea, baina baita esparru pribatuko

elkarte eta sareen aurka egitea ere (lanbide-elkargoen eta sindikatuen aurka, adibidez), horiek ahultzeko eta elkarte horietako kideak atomizatzeke eta sakabanatzeke helburuarekin. Lege-aldaketak zehaztasun handiz egin zituzten, xehetasun txikiak ere kontuan hartuta, hainbestearino ezen hainbat juristak, hala nola Yiannis Rachtiossek, adierazi zuen herrialdea troikaren protektoratu bihurtu zela, xehetasun profesionalei buruz maila guztietan erakutsitako ezagutza zorrotz, zehatz eta perfektuari esker. Informazio hori, gainera, Greziako bertako elite kolaborazionista batek eman zien¹⁷.

Neurriek ortodoxia neoliberalaren patroiz zurrinari jarraitu zioten; hamarkada batzuk lehenago, joera horren ideologo nagusiak, Milton Friedman ekonomialari eta Chicagoko Unibertsitateko irakasleak diseinatutako patroiar, hain zuzen. Bere liburu entzutetsua, *Capitalism and Freedom* (Kapitalismoa eta askatasuna), mugimendu neokontserbadorearen programa ekonomikoaren eskuliburu bihurtu zen. Hain zuzen, Friedmanek liburu horretan idatzitakoaren arabera, gobernuak hiru urrats egin behar zituzten bide zuzenera itzultzeko. Lehenik eta behin, etekinak pilatzea zailduko zuten araudi guztiak ezabatu behar zituzten. Ondoren, enpresa pribatuek etekinak sortzeko baliatzen zituzten aktibo guztiak saldu behar zituzten. Azkenik, programa sozialetara bideratutako funtsak murriztu behar zituzten errotik.

Hiru urratseko formula horri jarraituz, krisia tratatzeko eta prebenitzeko zerga arloan hartutako austeritate neurriekin batera, ekonomiaren liberalizazioa eta estatuarenak ziren jabeago eta ondasun guztien pribatizazioa ere etorri ziren. Baina, gastu publikoan, soldata eta pensioetan eginiko murrizketak garrantzitsuak izan arren, eta, orobat, zorra eta defizita gutxitzeko ustezko asmoarekin, zergen etengabeko gorakada ere oso kontuan hartzekoa izan arren, larriagoa izan zen gizartearen antolaketa historikoan gertatutako aldaketa sakona, besteak beste osasun eta hezkuntza arloan, gizarte-segurantzaren eta sistema judizialaren zutabeak eraitsi baitziren. "Aurrekaririk gabeko esperimentaziorako eremu bihurtu dute gure herrialdea, eta, ondotik, [eredua] pixkanaka, (gutxienez) EBko gainerako herrialdeetara hedatzeko ahalegina etorri da, krisi sistemikoa gainditzea helburutzat hartuta. Orain arte Iparraldeko aberatsek eta metropoli kapitalistek Hegoaldeko pobreei

eta munduko periferiei aplikatu dizkieten politikak EBren barnean sartu dituzte esperimentazio-eremu horren bitartez”¹⁸.

Transformazio hori interpretatzeko, David Harveyk “suntsiketa sortaile”¹⁹ kontzeptu kapitalista baliatzen du, eta, koordinatu ekonomikoetatik estrapolatuz, Estatuaren gorputz juridiko eta sozialean aplikatzen du modu zabalean, neoliberalizazio-prozesuek horrela jokatzen dutela uste baitu. Prozesu horiek aurrean duten guztiaren aurka egiten dute, “lehendik zeuden esparru eta botere instituzionalen aurka ez ezik (estatuaren burujabetzaren molde tradizionalak kolokan jartzeraino), lanbanaketen, harreman sozialen, babes sozialeko eremuen, konbinazio teknologikoen, bizitzeko eta pentsatzeko moldeen, ugalketa-jardueren, lurrarekiko loturen eta bihotzaren ohituren aurka”²⁰.

Alabaina, zorra gehiago ez hedatzeko eta defizit publikoa atzeratzeko hartutako neurriak ez ziren eraginkorrak izan; aitzitik, kalterako ere izan ziren. Espero zitekeen bezala, austeritateak arazoak ez konpontzeaz gain, areago okertu zuen egoera. Hala azaltzen du Costas Lapavitsasek: “krisiaren sorburua ez zen xahubide fiskala izan; aitzitik, periferiak lehiakortasuna galdu izana eta, horri loturik, 2000ko hamarkadan finantza-sistemak izan zuen hedapen izugarria, horiek izan ziren krisiaren zutarrak”²¹.

Gastu publikoan eginiko murrizketa gogorak eta zergen igoerak, batetik, eta bankuen arazoan ondorioz kredituetan izandako murrizketak, bestetik, atzeraldi sakonean hondoratu zen Grezia, eta langabeziak gora egin zuen kontrolik gabe, austeritateak zer kostu sozial izan zuen argiro erakutsiz. Era berean, eta greziarrek eginiko sakrifizioak handiak izan arren, zor publikoak gora egiten jarraitu zuen atsedetik gabe: 2009an, BPGaren %129,7koa zen zor hori, eta 2013an, %171,8koa²².

Epe berean, Greziako BPG %26 murriztu zen, herrialde garatu batek bake garaian inoiz izandako beherakadarik handiena, eta horrek katean ekarri zuen herritarren eros-ahalmena %40 gutxitzea eta ekonomia- eta merkataritza-jarduerak hondoa jotzea. Egoeraren larriaz ohartzeko, milioi bat lagun geratu zen tarte horretan lanik gabe: 2009aren amaieran %10,2koa zen langabezia, eta 2013ko abenduan, %27,5ekoa. Industria-produkzioak heren bat egin zuen behera; eraikuntzak %75²³; enpresa txikien negozio-bolumenak (Greziako enpresen %99,6 dira txikiak), orobat, %75 egin zuen behera eta sektore horretako langileen kopurua 1997ko

mailetara gutxitu zen²⁴. Kontrako aldean, enpresa handiek itzuri egin zioten atzeraldiari eta %26 handitu zituzten etekinak soilik azken urtebetean, 2012an %44,3ko esplotazio-etekin gordina eskuratu ondoren.

Irabazietan txapeldun, Estatuko Energia Korporazioa (DEI) izan zen: enpresa horrek %52,2 handitu zituen etekin gordinak, hein handi batean gobernuak onartutako tarifen garestitze izugarriaren eraginez. Eta garestitze horren eraginez, halaber, 350.000 etxetan biziraun behar izan zuten argindarrik gabe, argiaren faktura ordaintzeko adina diru ez zutelako.

Produktzio-sektorearen eta espekulazio-sektorearen arteko amildegia agerian uzten duen datua eman zuen Greziako Estatistiken Agintaritzak (ELSTAT) 2013aren amaieran: industria-produktzioaren bolumenak %8,9 egin zuen behera urtetik urterako zenbakietan, eta, aldiz, Atenasko burtsak, urteko azken lau hilabeteetan, %50 egin zuen gora.

Troikak agindutako doitze-programen xedea izan da bankuen eta finantza-espekulatzailen nahiz industria-kapital handiaren interesak babestea, eta horrek berebiziko kolpea eragin die lan-etekinei. Frogak begien bistakoak dira. Europako Moneta Batasunaren erdiguneko herrialdeek, itxuraz, Calvinoren arauari jarraitzen diote (halaxe salatzen du Max Weberrek *Etika protestantea eta kapitalismoaren espiritua* liburuan), alegia herriak, langile eta artisauen masak, pobrezian dagoenean baino ez diola obeditzen Jainkoari edo, gaurko hitzak erabiliz, gizon-emakumeek beharrak akuilatuta baino ez dutela lanik egiten²⁵. Printzipio horrekin bat etorritik, ekonomia kapitalistak soldata txikien “produktibitatearen” teoria garatu zuen, muga batzuk ez gainditzeko kontu izanez beti ere, “leherketa sozialik” ez eragiteko.

Gobernuek eta nazioarteko finantza-erakundeek esku-hartze neoliberaleretan oso kontuan izaten duten alderdi garrantzitsuenetakoa bat da krisia muga batzuen barnean kudeatzea, aberastasuna gutxi batzuen eskuetara bideratzeko aukera eman bai, baina deskalabru orokorrik edo herritarren matxinada orokorturik leherrarazi gabe. Alde horretatik, aldi-aldi izaten dira ekonomialarien, nazioarteko organismoen edota agintarien ohartarazpenak, herritarren sufritzeko gaitasuna neurritz gain ez behartzeko. Hala ere, logikoa denez, arrisku hori beti hor dago eta, herritarren suminak, agintarien kontrolpetik ihes egin eta altxamenduak sor ditzake, sufrimendua eragin duen sistemaren aurka.

Politika neoliberalen helburu teorikoa, ustez, indarrean den sistema ekonomiko globalaren egoera kaotikoa hobetzea eta berrantolatzea da, baina horren kontra, Harveyk dio neoliberalismoa proiektu politiko bat dela eta proiektu horren helburua haxe besterik ez dela: kapitala metatzeko eta elite ekonomikoen boterea berregiteko baldintzak lehengoratzeko. “Helburu hori lortzeko beharrezkoa zen guztia justifikatzeko eta legitimatzeko lana egin du, oroz gain, arrazoibide neoliberalaren utopismo teorikoak. Begien bistakoa da, gainera, printzipio liberalak eta elitearen boterea berregiteko edo horri eusteko beharra ahari jokoan hasten direnean, bazterrera uzten direla printzipio horiek, edo zeharo desitxuratzen direla, ezagutezin bihurtzeraino”²⁶.

Hala ere, gaur egungo ordena globala babesten duten nazioarteko erakundeek adierazpenetan eta agirietan, gizartearekin eta ingurumenarekin lotura duten alderdiekiko nolabaiteko konpromisoa jasotzen da zenbaitetan, eta hori ere ez da hain harritzekoa. Honela adierazten da ideologia neoliberalaren zutabetzat har daitekeen testuetako batean, Munduko Merkataritza Erakundearen sorrerako itunean:

“Hauek izan beharko lirateke erakundeak merkataritza- eta ekonomia-jardueraren esparruan dituen harremanen helburuak: bizitza-maila hobetzen joatea, enplegu betea lortzea, benetako diru-sarreraren eta eskariaren bolumen esanguratsua eta gero eta handiagoa lortzea, ondasun eta zerbitzuen ekoizpena eta salerosketa handitzea eta, aldi berean, garapen iraunkorraren helburua aintzat harturik, munduko baliabideak modu ahalik eta egokienean erabiltzen uztea, betiere ingurumena babestuz eta horretarako baliabide gehiago jarritz, eta hori guztia, ekonomia-garapeneko mailaren arabera, bakoitzak izan ditzakeen beharrian eta interesekin modu bateragarrian”²⁷.

Eguneroko jardunean, ordea, erakunde horiek erabat errefusatzeko dituzte herritarren baimenik gabe austeritate-politikak jasaten dituzten herrien bizi-baldintza duinen eta giza eskubideen alde egiten duten aginte guztiak. Erabat nabarmena da arbuio hori, ez-betetze horren ondorioz interpelatutako erakundeek axolagabekeria bezain agerikoa.

2013ko apirilean, Cephos Luminak, Nazio Batuen Giza Eskubideetarako Goi-komisarioaren mandatariak, Grezia bisitatu zuen, herritarren bizi-baldintzen gainean ezarritako doitze-neurrien eragina bertatik bertara ebaluatzeko. Hasierako balorazioan, egiaztatu zuen

gubernua atzeratuta zebilela, austeritate politika “zurrun eta zorrotzegiei” aurre egiteko justizia ezartzerakoan, eta gogor kritikatu zituen gizarte-programetan egindako murrizketak, horien eraginez osasun-arretarik gabe eta pobrezian geratu zirelako herritar asko eta asko. Juristak premiaz eskatu zien agintariei eta troikari berehalako neurriak har zitzatela babes sozialeko sarea berregiteko eta herrialderako doitze-programetan giza eskubideak babesteko neurriak jasotzeko; izan ere, giza eskubide horiek “arriskuan zeuden edo erabat ahultzen ari ziren gobernuak, derrigorrean, ezarritako neurri gogorren eraginez”. Aitortutako helburua, berez, defizit fiskala eta lan-kostuak murriztea zen, ekonomia lehiakorragoa egiteko, baina usteak ustel: Luminak egiaztatu zuenez, doitze-programen gehiegizko zurruntasunak “ekonomia uzurtzea ekarri zuen, eta kostu sozial izugarria, hala nola langabeziaren hazkundera, pobrezia eta desoreka gero eta handiagoak”²⁸.

2013. urtea amaitzear, Europako Kontseiluko Giza Eskubideetarako komisarioak, Nils Muiznieksek, txosten latz bat aurkeztu zuen, eta austeritate-politiken ondorioztat jo zuen Europako herrialdeetan gertatzen ari den legezko eta oinarrizko printzipioen urraketa gero eta nabarmenagoa. Grezian, oinarrizko eskubideen babesa eta betetzea modu larrian higatu dira; horra hor Muiznieksek salatutakoaren adibide paradigmaticoa. “Giza eskubideen babesa krisi ekonomikoko garaietan” ikerlanean egin zuen Muiznieksek salaketa hori²⁹, baita lana Estrasburgon aurkeztu zuenean ere: “Europako gobernu askok austeritate-neurriak ezartzen dituzte, baina ahaztu egiten dituzte giza eskubideekiko eta, bereziki, egoera ahulenean dauden pertsonen eskubide sozial eta ekonomikoekiko dituzten betebeharrak, eta, orobat, ahaztu egiten dute justiziarako eta tratu-berdintasunerako eskubidea bermatu behar dutela”.

Greziarren kezka nagusietako bat, nagusia ez bada, langabezia da, eta, horrekin batera, lan-baldintzen kaskartzea, eskubideen galera eta soldaten jaitsiera. Gizarte Eskubideen Europako Batzordeak 2012an landutako txostenean jada³⁰, Europako Gutun Soziala ez betetzeagatik salatu zuten Grezia, eta zehazki, lehen artikulua, lan-eskubideari eta enplegu beteko politikei buruzkoa, ez betetzeagatik. 2013an, ordea, egoerak hobera ez, okerrera egin zuen. Bi urte horietan soldadak %32 gutxiti ziren Grezian, “lehiakortasuna hobetzeko” bata bestearen atzetik abiarazitako erreformen eraginez, eta, aldi berean, ugaritu egin ziren

langileak kontraturik eta gizarte-segurantzarik gabe zituzten enpresak. Ikuskatutako enpresetan, langileen %52 zegoen egoera horretan.

Esan beharrik ez dago ez Greziako gobernuak eta ez troikak ez zietela erantzun eskakizun horiei, eta doitze-programak diseinatzen jarraitu zutela, dei horiei entzungor eginda. Aldiz, 2013ko azaroan, troikako ikuskatzaileei Europako Legebiltzarreko Ekonomia eta Moneta Gaiei buruzko Batzordearen aurrera dei egin zitzaizenean erreformak ezarri ziren herrialdeen bilakaera azaltzeko, adierazi zuten hartutako zuzentarauak ez zirela porrotaren eragile izan; aitzitik, krisiari berari eta aurreko desoreka makroekonomiko handiei egotzi zieten errua.

Agerraldi hartan, NDFko arduradunak uko egin zion parte-hartzeari, eta Servaas Deroose, Europako Batzordeko kideak, eta Klaus Masuch, Europako Banku Zentralekoak, barkamena eskatu zuten egindako hutsegiteengatik, eta onartu zuten gauza batzuk beste modu batera egin zitezkeela, baina, aldi berean, doitze-programen alde egin zuten, herrialde horietako egoera ekonomikoa hobetzeko asmoarekin sortu zituztelako. Deroosek, hala esan zuen, bere burua zurrizko: "Gure aurreikuspenak ez dira perfektuak izan, baina egoeraren eraginez, oso-oso zaila zen aurreikuspenekin asmatzea". Bestalde, Masuchek esan zuen presaka ibiltzeak eta konfiantza faltak, bai eta erreforma ekonomikoa aplikatzerakoan izan ziren porrotek ere, ekarri zuela aurreikuspenen eta emaitzen arteko alde izugarria. Erruaren zama gainetik kentzeko, adierazi zuen Atenasko gobernuak, sortutako interes boteretsuei aurre egiteko beldurrez, ez zuela erabakimenik izan beharrezko erreformak irmotasunez eta arduraz aplikatzeko, eta hortik etorri zirela produkzioaren beherakada eta langabeziaren gorakada Grezian.

Horrelako justifikazio funsgabeak entzunda, noren ahotik eta ezin konta ahala kalkulu-akats, okerreko aurreikuspen ekonomiko eta estimazio osatu gabe edo partzial egin dituzten arduradunen ahotik, bere garaian Davison Budhoo NDFko ekonomialariak eginiko salaketa ekarri digu gogora: Budhoo azpilanean kontuak moldatzea leporatu zion erakundeari, amore eman nahi ez zuten herrialde pobreen ekonomia kondentatzeko. Lana utzi zuenean, 1998an, Budhoo erabaki zuen hainbeste nahigabetzen zuten sekretuak jendaurrean azaltzea, eta eskutitz bat bidali zion NDFko orduko presidenteari, Michel Camdessus. Bestek beste, haxe esan zion gutun hartan:

“Niretzat, dimisio hau askapen ezinbestekoa da, lehen urratsa, nahi dudana leku horretara bidea egiteko. Inoiz iristen banaiz, espero dut aukera izango dudala bertan eskuak garbitzeko, nire iritziz milioika pertsona pobre eta goseturen odolarekin zikinduta baititut eskuak. [...] Jakizu: odola, hainbeste da, ibaika isurtzen baita. Lehortu eta gogortu ere egiten da nire larruazal osoan; batzuetan, irudipena dut ez dagoela nahiko xaboi munduan bere izenean egin nituen gauzak garbitzeko”³¹.

Eskutitzean, estatistikak arma “hilgarritzat” erabiltzea leporatzen zion Budhook NDFri, eta zifrak puztea edo faltsutzea, informazio zehatzak eduki bazituztenean, zertarako eta ezegonkortasun ekonomikoa itxuratzeko, egiaz ez baitzegoen horrelakorik. “Irregularitasun nabarmen” horiek nahita egindakoak izan ziren, eta ez “okerreko kalkulu” soil batzuen ondorio. Horien eskutik, arriskuko kalifikazioak sortu ziren finantza-merkatuetan, eta kredituak lortzeko zailtasunak neurriak ezarritako herrialdeentzako. Gainera, zuritu egin zuten Budhook “sendagaietan hilgarriena” gisa deskribatu zuena aplikatu izana: kaleratze masiboak, soldata murrizketak eta egiturazko doitze-politiken “sorta osoa”³².

Budhooren uste berekoa zen Rodolfo Walsh idazle eta kazetari argentinarra: Walshen ustez Chicagoko Eskolako eredu neoliberalak, diktadura militarrean bere herrialdean aplikatuak, herritar gehienak pobreziara eramatea ez zen kalkulu oker baten ondorio izan, edo halabehararen ondorio, kontu handiz burututako plan baten emaitza baizik, “miseria planifikatua”³³.

Azken hamarkadetan, nazioarteko finantza-erakundeek nahieran baliatu dituzte krisi politikoak edo ekonomikoak, nahasmendu horien eraginez azpian geratu diren herrialdeetan bide laburreko egiturak edo sasi-teoriak esperimintatzeko. 1982an, Milton Friedmanek *Capitalism and Freedom* (Kapitalismoa eta Askatasuna) libururako hitzaurrea idatzi zuen, argitalpenaren hogeigarren urteurrenaren harira, eta, besteak beste, hauxe berretsi zuen: “Soilik krisiek –egiazkoek edo krisizat hautematen direnek– eragiten dute benetako aldaketa. Krisiak gertatzen direnean, une horretan dauden ideien araberakoak dira abiarazitako ekimenak. Horixe da, nire iritziz, gure eginkizun funtsezkoa: egungo politiken aldean bestelako alternatibak garatzea, horiei bizirik eta eskuragarri eustea, harik eta politikoki ezinezkoa politikoki ezinbesteko bihurtzen den arte”³⁴.

“Ezinbesteko politika” horien ondorioak aski ezagunak dira Latinoamerikako eta Asiako hainbat herrialdetan, eta, oro har, NDFk bere alternatibak garatzeko muturra sartu duen edozein herrialdetan. Langabeziak gora egitea, zerbitzu publikoak privatizatzea, babes-egitura sozialak desegitea eta langileak edota merkataritxiak babesteko legezko harresiak ezabatzea, horra politika horien lehen ondorioak. Baina,aldi berean, bestelako aldaketa sakonago batzuk hasi dira gertatzen. Klase interesak, interes kolektiboak edo herritarrenak babesten dituzten erakunde sindikalak, profesionalak edo politikoak indargabetu egin behar dira, edo kriminalizatu, horien erresistentzia ahuldu edo doitze-neurrietara mugatuko duten araudien bidez. Gizartearen protestak eta altxamenduak, izan erakustaldi baketsuak izan eskakizun legitimoen aldarrikapenak, lehen baino gogortasun handiagoz tratatzen ditu indar publikoak. Bien bitartean, agintariak abagunea baliatzen dute kapitalaren eta lanaren arteko oreka hausteko, eta, herrialdeak bizi duen larritasun nazionalako egoerari konponbidea emateko aitzakian, beharrezkoa iruditzen zaiena egiteko, hitzarmen edo babes sozial oro alde batera utzita. Eta beharrezkoa iruditzen zaiena da Harveyk esaten duena: *desjabetzeen bidez metatzeko* prozesua. Izan ere, politika horiek ez dute aberastasunik sortzen; aitzitik, gutxi batzuen eskuetara desbideratzen dute, horretarako hainbat bitarteko erabiliz: ondasun publikoak privatizatzea, guztion eskubideak ezabatzea, lan-indarra merkaturatzea, ekoizteko eta kontsumitzeko modu alternatiboak ezabatzea, nazioa zorpetzea, etab.

Agintarien logika eta eskakizunak ez datoz bat herritarren beharrezkinen, eta, horrenbestez, askoren kalteak etekin handiak ematen dizkie gutxi batzuei. Harveyren hitzetan, “krisiak, berez, saihestezinak ez ezik, beharrezkoak ere badira; ez baitago beste modurik oreka berreskuratzeko eta kapital-metaketa barne kontraesanak konpontzeko, aldi baterako bada ere. Krisiak, nolabait esatearren, beti ezegonkorra den kapitalismoa arrazionalizatzeko bide irrazionalak dira”³⁵. Kleinen iritziz, ikuspegi politikotik, “krisiak eremu «ademokratikoak» dira nolabait, halako parentesi modukoak ohiko jarduera politikoan, eta badirudi parentesi horietan ez dela beharrezkoa ez inoren onespenerik ez adostasunik”³⁶.

XX. mendearen erdialdera, kapitala metatzeko metodoak lan mundura mugatzen ziren, eta erakunde sindikalak oso indartsuak ziren, baina gaur

egun ez dago horrelako konturik, eta erasoen izaera lausoa eta zatikatua dela medio, zaila da erresistentzia antolatzea; izan ere, ez dago gehiengo soziala mobilizatzeko adina gaitasun duen mugimendurik, edo mugimendu horiek oso sektorialak dira eta ez dira gai erasoak gertatzen ari diren esparru ugarietan zeharka lan egiteko. Hori da shockaren dotrinaren oinarria: hainbat eta hainbat aldaketa programatzea norabide ugarietan, pertsonak ez dezaten aukerarik izan erantzun eraginkorrik garatzeko, eta azkenerako etsi, hondoratu eta dena bertan behera utz dezaten.

Duela 70 urte, Karl Polanyi intelektual hungariarrak ohartarazi zuen zer arrisku duten gizarte batek suntsiturik geratzeko, baldin eta merkatu librearen mekanismoak bere kabuz gidatzen badu eta erabakitzen badu gizakion eta naturaren etorkizuna, bi-biak salgai huts bihurturik. “Erakunde kulturalen babesik gabe –zion Polanyik– gizakiak deuseztaturik geratuko lirateke, gizartean abandonatuta geratuko lirateke-eta: hala, hil egingo lirateke, desantolaketa sozial zorrotzaren biktima bihurturik; bizioak, maltzurkeriak, krimenak eta ahuleriak jota galduko lirateke. Natura bere elementuetara mugaturik geratuko litzateke, natura-ingurunea eta paisaiak arpilatuak izango lirateke, ibaiak kutsatuak, segurtasun militarra ezbaian, elikagaiak eta lehengaiak ekoizteko ahalmena suntsitua”³⁷. Polanyik eginiko deskribapena ez dabil urruti, itxuraz, sistema neoliberalak eragindako desmasietatik, nahiz eta sistema horren teoria politiko-ekonomikoez gizakiaren ongizatea sustatzen dutela baieztatu.

Harveyren esanetan, hauxe da neoliberalismoaren funtsa: “Gizabanakoen enpresa-gaitasun eta askatasuna libreki garatzeko aukera ez murriztea, jabetza pribatua, merkatu libre indartsuak eta merkataritzarako askatasuna bereizgarri dituen esparru instituzional batean. Eta Estatuaren eginkizuna da jardun hori garatzeko esparru instituzional egokia sortzea eta zaintzea”³⁸. Bada, hori horrela bada, orduan beharrezkoa da egun nagusi den imaginarioa apurtzea eta oinarri-oinarritik alternatiba bat eraikitzea, lurraldetik bertatik –auzotik edo herritik–, eta bertan jasotzea ekintza politikorako beste metodo batzuk, herri xeheak aukera izan dezan horiek erabakitzeko eta betearazteko, eta, orobat, oinarritzko baliabideak (guztionez osasun-arreta, hezkuntza edota elikadura) betiko bermatu ahal izateko moduak ere sortzea. Borroka mota horiek, Raúl Zibechik deskribatu eta aztertuak, aspaldi zabalduak

dira Latinoamerikan, eta funtsezkoak dira bestelako mundu bat lortzeko, hiru arrazoiengatik: azpikoen bizitza bermatzeko aukera ematen duten guneak sortzen dituztelako; mugimenduak erresistentzia-gune bihurtzen dituztelako gerren edo gabetzeen ondorioz egindako pilaketen aurka; eta erabilera-balio material nahiz sinbolikoen inguruan harreman-sareak ehuntzen dituztelako. Horren harira, hala dio Zibechik: "Aldaketarako balioen esparruetan baino ez bagara mugitzen, dagoena errepikatzera mugatzen gara. Postfordismoaren eraginez fabriketako bizitzaren poroak itxita, gaur egun lurraldeetan, auzoetan, komunitateetan eta hiriko aldirietan lotzen dira langile horiek berak elkarren artean, elkarri laguntzeko eta lankidetzan jarduteko moldeak landuz. Hain zuzen, erabilera-balioak trukatzeko moldatu diren harreman sozialak dira aipatutakoak"³⁹.

Gaur egun nagusi diren egitura, jardun eta harremanen aldean beste era batekoak sortzeko gaitasuna izan behar du herri xeheak, horren araberakoa izango baita indarren korrelazioa datozen urteetan. Gaitasun hori erakusten badu, soka bere aldera ekarriko du; bestela ez.

2. zatia. Alternatibak bilatzen

«Arazoak gainditzeko konponbidearen parte gara. Ez dio axola zein den gizarte edo finantza arloko arazoa, baldin eta elkarrekin lan egiten badugu gure kontzientzia hobetzeko eta horren arabera jokatzeko».

Vassilis. 32 urte

«Lankidetzak iraun egin du eboluzioan zehar, haren abantailak handiagoak direlako eragiten dituen kostuak baino. Estrategia indibidualen aldean, inguruneak ezarritako baldintzetara hobeto egokitzen lagundu dio lankidetzak gizabanakoari, eta horrek mesede egin dio lankidetzari berari».

Hainbat egile.

Munduari begiratzeko betaurrekoak aldatu. 2011

1. Lacandona oihanetik Syntagma plazaraino

Zapatisten altxamendua, 1994an; Seattlen sortutako globalizazioaren aurkako mugimendua, handik bost urtera; Porto Alegren sortutako Munduko Foro Soziala, 2001ean... ugari eta era askotakoak izan dira azken bi hamarkada hauetan neoliberalismoaren aurka sortutako korronteak. Langileen betiko erakundeak ahaztu gabe, horiek ere hor aritu baitira borroka-eremu nagusian, lan munduan, alegia. Kontua da mugimendu berriak postulatu alternatibo eta antolatzeke printzipio askoz irekiago eta malguagoetatik ekin diotela bideari, lehendik zeuden erakundeek baino. Hala, erakunde sindikalek indarra galdu zuten maila globalean, hein batean sistemak berak asimilatu egin zituelako, baina, horrez gain, baita sistemaren beraren eraso bortitzak jasan zituztelako ere, eta, aldiz, borroka politiko eta sozialeko ildo eta ekimen berriek protestaldi indartsuak sortu zituzten; hala, haien egituraren ahultasunak eraginda zenbait muga izan arren, herritarren babes handia lortu zuten, neurri batean molde eta xede berritzaileak proposatu zituztelako. Balio beza eredutzat Chiapaseko altxamendu zapatistak, Mexikon. Altxamendu horren helburua ez zen izan boterea hartzea, edo iraultza klasiko bat

burutzea; aitzitik, xedea izan zen politika egiteko modua aldatzea, parte-hartzearen bidez eta alternatiba integratzaileak bilatuz, alternatiba horietan talde sozial batzuek eta besteek lekua izan zezaten, bai eta beren aldarrikapenei bide emateko aukera ere.

Politika neoliberalak eskala handian esperimentatzeko lehen eremua izan zen Latinoamerika, baina, era berean, erresistentzia-mugimendu askoren harrobia ere izan zen. Mugimendu horiek zenbait ekimen boteretsu geldiaraztea lortu zuten (ALCA, adibidez, Ameriketako Merkataritza Librerako Ituna, AEBek babestua), eta, horrez gain, jite berriko plataforma politikoak sortzen ere lagundu zuten. Plataforma horietako batzuk, gainera, boterea eskuratu zuten kontinenteko hainbat herrialdetan.

Herrialde batzuetan eta besteetan ezarritako politika neoliberal bortitzek krisi ekonomiko eta sozial sakonak sortu zituzten, eta hortik herritarren altxamenduak etorri ziren –leku askotan, gobernuak erorarazteko adina indar izan zuten mugimendu horiek–, eta, orobat, etorkizun bidezkoago eta libreago baten aldeko ekimenak ere antolatu ziren, *Ez dago alternatibarik* maxima mingarriaren mende geratu gabe⁴⁰. Argentinan, 2001eko abenduko *corralito*-ak sortutako altxamenduaren eraginez, bi presidente erori ziren hilabete bakarrean, eta langabetuen elkarteak, *piqueteros* izenekoak, izugarri ugaritu ziren, bai eta auzoko asanbladak ere, eta langileek porrot egindako enpresak hartu zituzten leku askotan. Nolabait, sistemaren beraren porrotak jarri zituen martxan antolaketa-dinamika kolektiboak. Buenos Airesko Unibertsitateko Fakultate Irekia Programaren zuzendariak, Andrés Ruggerik, horixe bera adierazi zuen, baina beste hitz batzuekin: “Berreskuratutako enpresen egiazko ideologoa neoliberalismoa da, ez baitu inolako ihesbiderik uzten”⁴¹.

Zapatisten eta argentinarren ereduak aipatu ditugu, biak ala biak erreferentzia ideologiko garrantzitsuak izan direlako aurreko hamarkadan Grezian sortutako talde asanbleario askorentzat. Beste akuilu eta eredu nagusietako bat suminduen mugimendua izan zen, Madrilan, 2011ko maiatzaren 15ean sortua, handik hilabetera pareko mugimendua sortu baitzen Atenasko Syntagma plazan.

Autogestioa eta asanblearismoa

Urte askotan, lan autonomoa eta enpresa txikiak izan ziren, batez ere, Greziako sektore pribatuaren produkzio-sistemaren oinarriak. Industria-sarea pixkanaka desagertzen joan zen herrialdea EBn sartu zenetik (1986). Turismo arloko enpresak izan ziren dinamismo pixka bati eutsi zioten bakarrak; sektore horretan enplegatzen zen biztanleria aktiboaren zati handi bat. Aldi berean, enpresa handien filialak hirugarren sektorean kokatu ziren. Kooperatibismoaren arloan, ez zen nabarmentzeko proiekturik izan; nekazaritza eta abeltzaintzako ekimen bakan batzuetan tokian tokiko ekoizleek beren uztak elkartu zituzten baldintza hobeeetan saltzeko, edo prozesatzeko, baina hortik aparte ez zen inoiz mugimendu kooperatibo aipagarririk izan.

Argentinan gertatu bezala, krisiak izan zuen eraginik ekonomia sozialean oinarritutako ekimen txikiak sortzeko, baina egiaz austeritate-politiken ondorioz ugaritu ziren talde horiek. Demokrazia zuzenaren, berdintasunaren eta elkartasunaren alde egin zuten taldeok, tresna horien bidez atzeraldi ekonomikoa gainditzeko, eta nor bere burua modu askean garatzeko baldintzak sortu zituzten, horien bidez burujabetzarako ekimen kolektiboak sendotzen eta zabaltzen laguntzeko.

Ez ziren bakarrak izan. Arestian ere aipatu dugu eta ez dugu ahaztu behar mugimendu zapatista ere Greziako pentsamendu libertarioaren korrante garrantzitsu baten oinarri izan zela urte batzuk lehenago, bai mugimenduak zituen elementu etikoengatik bai matxino indigenen antolatzeko moduagatik. Mugimendua babesteko lehen taldea 1994an eratu zen Tesalonikan, eta bi urte geroago, Mexikoko topaketa intergalaktikoaren ondoren (40 ekintzaile greziarrek hartu zuten parte elkarretarazten hartan), *Ke haziak* jaio zen, haien pentsamendua zabaltzeko aldizkaria. Urte haietan, irakasleak prestatzeko eskola bat eraiki zuen zapatisten aldeko mugimendu greziarrak La Culebran, Chiapasen. Proiektua Atenasko Unibertsitate Politeknikoko bi arkitekto gaztek garatu zuten, eta dozenaka pertsonak babestu eta finantzatu zuten; Mexikora bertara ere hainbat bidaia egin zituzten, zeregin horretan parte hartzeko. Urte batzuen buruan, beste argitalpen bat sortu zuten aurrekoaren ordez, Alana, ideia zapatisten berri emateko. 2005. urteaz geroztik, Greziako 30 hiritan baino gehiagotan zabaltzen dute aldizkari hori. Horrez gain, Gloria

Muñoz Martínezek, Raul Zibechik eta beste egile batzuek zenbait liburu argitaratu zituzten grezieraz Latinoamerikako mugimendu berriei buruz.

Elkarte aktiboenetako batek, *Sporos* izenekoak (hazia, grezieraz), hainbat erakunde, kooperatiba, bidezko merkataritzako denda eta kafetegi-jatetxe sortu zituen, modu asanblearioan eta autogestioaren bidez, hierarkiarik eta jaberik gabe. Elkarte, denda, kooperatiba eta kafetegi horiek guztiek jakin zuten, gainera, krisia gainditzeko, kolektiboen lanpostuei eutsiz, eta, kasu batzuetan, haien gaitasunak eta jarduera modu harrigarrian handituz.

Globalizazioaren aurkako mugimenduen olatuarekin batera, Greziako suminduek Atenasko Syntagma plazan 2011. urtean egin zituzten protestekin berpiztu zen *Sporos* korrontea, eta protestaldi horretan sortutako proiektu berriei elkartearen elkarlagina eman zuten.

Herrialdearen egitura ekonomiko eta sozialaren aurkako eraso neoliberal bortitzari erantzuna ematen hasi zitzaion, pixkanaka, ehunka ekimenetara bildutako jendea. Asanblearismoa, autogestioa, elkarrekiko erantzukizuna, interes soziala eta beste hainbat printzipio ideologiko zeuden ekimen haien oinarrian, proiektuaren helburuak eta xedeak edozein zirela ere. Erakunde horien eraikuntza teorikoa ez zuten intelektual gutxi batzuek beren ekimenez sortu, nahiz eta zenbait irakasle eta akademikok prestakuntza- eta eztabaida-foro batzuk antolatu zituzten; aitzitik, auzoetako, bizilagunen asanbladetakoa, emakume edo langile/langabetu taldeetako sare sozialek hezurmamitu zuten eraikuntza teoriko hori. Talde horiek guztiek lankidetzaren formulen alde egin zuten apustu, enpresa txikiak martxan jartzeko edo itxitakoak berrabiarazteko.

Egoera ahulenean zeuden pertsonen pairamen lazgarria arintzera bideratutako ekimenek izan zuten, hasiera-hasieratik, hedapen zabalena; hau da, lanik gabe, diru-sarrerarik gabe eta oinarriko gizarte-zerbitzuen babesik gabe geratzen hasi ziren pertsonen aldeko ekimenek. Lehen arretako klinikak eta farmaziak osasun-sistema publikotik kanpo geratu zirentzat, jangela sozialak, haurtzaindegiak... eta, aldi berean, ondasun eta zerbitzuak trukatzeko sareak, hiri baratzeko kolektiboak eta, hasieran batean, "patataren mugimendua" izendatu zena, horren aldaera guztietan. Alkatetzak asko prest agertu ziren astearen edo hamabostean behin topaketak antolatzeko, bertako ekoizleek oinarri-oinarriko elikagaiak salgai jar zituzten (patatak, olioak, esnea, gaztak, eta bestelako salgai

asko), bitartekaririk gabe eta supermerkatuetan baino merkeago. Banaketa-puntuak ugaritzen hasi ziren, baita eskaintako produktuen zerrenda ere, eta, hala, gaur egun sare oso zabala eratu da. Kontsumoko kooperatibetan antolatuta dago sare hori eta bertan askotariko produktuak saltzen dira zuzenean; kooperatiba horien eskaintza elikagaien sektoreko edozein saltokitan aurki daitekeenaren parekoa edo hobe da. Kooperatiba horiek gehienek beren lokala dute, supermerkatu txiki modura antolatuta, eta beste batzuk Internet edo telefono bidez eskabidea egiteko eta produktuak etxean entregatzeko zerbitzua dute.

Era berean, han eta hemen ugaritu egin ziren ondasunak eta zerbitzuak trukatzeko sareak, eta horietako askotan txanpon propioak ezarri zituzten. Hasierako taldearen mugetatik harago, sare horiek finkatuta zeuden herrietako denda eta negozioetara hedatu dira gero txanpon horiek, herritar gero eta gehiagoren atxikimendua eta esku-hartzea lortuz. Horrela gertatu da, esaterako, Volos hirian.

Alternatiben garaia

Tokian tokiko biztanleak ahalduntzen ari dira, berriki sortuak izan arren, gero eta ugariagoak eta anitzagoak diren elkartasun ekonomiko eta sozialeko egitura sorta zabalaren eskutik, eta ahalduntze horren bidez, pixkanaka geldiarazten ari dira zerbitzu publikoen, era guztietako eskubideen, bizitzeko baliabideen eta biziraupenaren beraren aurkako enbata, nahiz eta oraindik era mugatuan izan.

Troikak eta Greziako gobernuak larrutu egin dituzte herritarrak, elite baten mesederako; “besteak gabetuz beraiek metatu”, horixe egin dute, Harveyren hitzetan, eta ez dute egin aberastasuna sortzeko –ezinezkoa baita–, gutxi batzuen eskuetara desbideratzeko baizik, horretarako era guztietako teknikak, amarruak eta legegintzako erreformak baliatuz. Estatuarenak ziren era guztietako ondasunen eta zerbitzu publikoen pribatizazioa eta merkaturatzea pentsaezinak ziren mugetaraino iritsi da. Estatuaren ondarea salgai jarri da, uharteak, portuak eta aireportuak tartean direla, aurrekaririk gabeko pribatizazio-programa handi baten bidez. Eta programa horrek titulartasun publikoko enpresa guztiei eragin die, hala estatuaren nola udalen jabetzako enpresei, era askotako eraikin eta eraikuntzei, osasun-zerbitzuei, hezkuntzari, pentsio-funtsei,

komunikabideei, errepideei... Zerrenda oso zabala da, landu dutenen dirugosearen neurrikoa.

Pribatizazio-prozesu horrekin batera, araudietan hainbat aldaketa egin dituzte, enpresa transnazional handiek sektore ekonomiko guztiak beregana ditzaten, inolako traba eta mugarik gabe: merkataritza, justizia, nekazaritza, meatzaritza eta, nola ez, lan-merkatua bera. Lerro hauek idazteko unera arte, Greziak 285 lanbide liberalizatu ditu maileguaren memorandumean aurreikusi eta exijitutako 345etatik, modu horretara troikaren aldetik finantziazioa jasotzen jarraitu ahal izateko. “Araututako” lanbide horiek enplegu pribatuaren heren bat dira eta liberalizatu badira ez da izan –ezin zuen izan– herritarrei mesede egiteko; guztiz bestela, gizabanakoei (soldatapekoei, autonomoei, profesionalei) legeak eskaintako babes guztiak kentzeko liberalizatu dira, legearen muga horiek ezabatuta, korporazioek aukera baitute, jada inolako trabarik gabe, lehengaiak, natura-baliabideak, eskulana eta merkatuak bereganatzeko.

“Ekonomiaren liberalizazioa” eufemismoa erabili dute hainbat errealitate moztortzeko eta ezkutatzeko: aurrerantzean langileek banaka negoziatuko dituzte beren kontratuak enplegatzaileekin, desagertu egingo baitira hitzarmen kolektiboak; farmaziek soilik laborategi handiei emango diete zerbitzua, Pfizer, Novartis edo Bayerri, besteak beste, Estatuak ez baititu herritarren botikak diruz lagunduko; auzoko dendetako jabeek egunean 12 ordu eduki beharko dituzte zabalik beren saltokiak, baita urteko hainbat igandetan ere, Belgikako, Alemaniako edo Frantziako kapitala duten supermerkatu-kateekin lehiatu nahi badute; eta abokatuek enplegua ematen zien bezero nagusiena galduko dute (administrazio publikoa), Estatuarekin kontratu bat baino gehiago indarrean izatea galarazten zuen araua indargabetu baitute, abokatu-langela boteretsuenek esleipen guztiak batera eskura ditzaten. Horra adibide gutxi batzuk frogatzeko zer den liberalizatzea: arrain handiak txikia jatea galaraz zezakeen edozein traba indargabetzea, hain zuzen.

Legeen xede orokorreari buruz ari zela, Jean-Jacques Rosseaux esan zuen legeak moldatu egin behar zirela berdintasuna lortzeko, “inor ez dadin izan beste inor erosteko bezain aberatsa, eta inor bere burua saltzera behartuta sentitzeko bezain pobrea”⁴². Garaitsu berean, Erresuma Batuko koroa konturatzen hasi zen, soldatapeko lanaren hastapenetan, “lan-merkatu libre baten abantaila ekonomikoek ezin zutela berdindu

merkatu horrek sortzen zuen suntsiketa soziala. Beharrezkoa zen beste era bateko araudi bat ezartzea lana ere babesteko, nahiz eta, orduko hartan, merkatuaren mekanismoaren beraren funtzionamenduaren kaltetan izan⁷⁴³. 250 urteren buruan, Greziako hartzekodunek gaindituztat jo dituzte kapitalismoaren historiako aurreko esperientzia guztiak, eta prestatzen ari dira atzeranzko salto handia emateko: itun sozialaren degradazioa eta Estatuaren suntsitzea ekarriko duen saltoa.

Arestian azaldu dugunez, ekonomiaren finantziarizazioa eta banku-sistemaren porrotak eragindako zorra sozializatzea izan dira agintariek baliatutako beste bi martingala lan-errentak gutxi batzuen eskuetara eskala handian desbideratzeko. Baina gainera, botere politikoak, ahal izan duen neurrian, lagundu egin du zeregin horretan, herritarren bi herenentzako gero eta erregresibogoak diren zergak gogortuz eta,aldi berean, ihes fiskalari edota aberastasun handien iruzurrari modu lotsagarrian ezikusiarena eginez; pentsio-fondoak porrotera bultzatuz pentsio-plan pribatuen aukera behartzeko; edo betidanik doanekoak izan diren zerbitzuak zergapetuz (osasuna eta hezkuntza, adibidez), eta oraindik ere enpresa publikoen esku dauden beste batzuk garestituz (garraioa, argindarra edo ura, esaterako). Finantzak bihurtu dira, Michel Hudsonen idatzitakoaren arabera, gerra molde berria: “Begien bistara ez da hain odoltsua, baina duela hainbat mende bikingoek eginiko inbasioek edo gerora Europak eginiko konkista kolonialek zituzten helburu berberak ditu: lurra eta baliabide naturalak, azpiegiturak eta diru-sarreraren iturri izan daitekeen beste edozein aktibo bereganatzea⁷⁴⁴.”

Sindikatuak, izan badute indarra, bai eta erresistentzia-gaitasuna, neurri batean, baina langileen aurkako oldarraldia hain izan da bortitza eta handia, langile klasearen gehiengoa ahituta geratu baita azkenerako. Apenas geratzen den lan arloko sektorerik edo sektore profesionalik eskubideen halako larrutzearen aurrean erresistentziaren banderari zutik eusteko gai, eta hala ere, milaka pertsona antolatzen dira egunero, Kretatik hasi eta Balkanetako muga menditsuetaraino, austeritate-neurrien aurka eta boterearen pulpituetatik inon den sistematik onenaren pare saldu nahi duten diskurtso neoliberalaren aurka birkonkistari ekiteko. Talde horien lan-esparruak era askotakoak dira, borrokak bezainbeste, eta, orobat, askotarikoak dira posizio politiko, ekonomiko, sozial eta kulturaletatik

indar-korrelazioa aldatzeko lanean ari diren ekimenetan, sare zabal horretan, parte hartzen duten pertsonak.

Altxamendu zabal eta anitz horretan nabarmentzekoa da emakumeek egindako lana proiektu asko zutitzeko eta horiei funtzionamenduan eusteko. Zorraren eta Austeritatearen aurkako Emakumeen Mugimenduak azaltzen duenez, politika neoliberalen ondorioek “batez ere emakumeoi eragiten digute gure bizitzako alderdi guztietan, eta, horrenbestez, antolatu egin behar dugu horri aurre egiteko, beste inork ez baitu egingo gure orde. [...] Zerbitzu publikoak kenduta edo pribatizatuta, Estatuak uko egin die herritarrekiko dituen konpromisoei, eta familien esku utzi du ardura osoa”. Emakumeek dute, eta ez beste inork, haur txikiak, gaixoak, adinekoak, ezintasunen bat duten pertsonak, baita egoera kaskarrean dauden gazteak eta etxean dauden langabeak zaintzeko ardura osoa. “Beste modu batera esanda, emakumeek behartuta ikusten dute beren burua Ongizatearen Estatuak ordezkatzeko edo haren lekua hartzeko”, eta gainera, doan.

Lan-munduan ere genero aldetik desoreka handiak daude. Gizonezkoen eta emakumezkoen langabeziaren arteko aldea %6tik gorakoa izan da krisiaren hasieratik: gaur egun, gizonezkoen %23,8 dago lanik gabe, eta emakumezkoen %30⁴⁵. Baina, horrez gain, kaleratzeen indizea handiagoa da emakumeen artean, eta soldata edo ordainsaria, txikiagoa. Hala salatzen du kolektibo feministak: “Langabezia masibora, pobrezia eta ziurgabetasunera kondenatuta gaude, baina hori horrela izanik ere, berdin-berdin bete behar ditugu familiarekiko betebeharrak edota amaierarik gabeko ordaindu gabeko lanak, eta nekea, tentsioa, urduritasuna... ez dizkigu inork kentzen”. Ez da harritzekoa, beraz, emakumeek ekimena hartzea eta rol funtsezkoa betetzea Greziako taldeetan (horrela geratu da agerian liburu honetan jasotako esperientzietan ere); hala, erresistentziaren ikuspegia ematen diete talde horiei, eta ez soilik larrialdi sozialeko egoera eragin duten politika neoliberalen aurka, baita patriarkatuaren aurkako borrokan ere.

Alternatiben garaia iritsi da.

Ikus dezagun, beraz, nola antolatzen eta bideratzen diren, eta zer helbururekin aritzen diren izaera politiko eta sozialeko ekimenak. Liburuaren hirugarren atalean, produkzio-jarduerarekin edo egungo eredu

nagusiaren aldean zeharo kontrakoak diren proposamen ekonomikoak lantzearekin lotura zuzena duten proiektuen bereizgarriak aztertuko ditugu sakontasunez.

2. Ekimen politikoak

Grezian sortutako mugimendu politikoen indarguneetako bat izan da herritarren sektore zabaletara bideratu dutela beren jarduera, zatiketa alderdikoia saihestuz eta begirada gizarte-mugimenduetan jarririk. Gaur egungo etsipen eta belaunikatze nazionalaren egoera eragin duten erabakiak ahultzea izan da talde horien lana. Maileguaren memorandumak bertan behera uztea da, dudarik gabe, talde horien helburu nagusia, baita memorandum horien ondorioz etorri diren neurriak indargabetzea ere, horiek eraman baitute Grezia dagoen egoerara. Errealitatea faltsutzen duen diskurtso neoliberalari mozorroa kentzea izan da mugimendu horiek eremu publikoan egindako esku-hartzeen xedea, dauden arazoei buruz kontzientzia sortuz eta, aldi berean, horiek gainditzeko ahalegina eginez. Nolanahi ere, ezin da ziurtasunez jakin zenbateko onarpena duten haien mezuek; izan ere, gizartearen gehiengo austeritate-politiken aurkakoa izan arren, hedabide handiek ez diete lekurik egiten beren agendan Europatik datozen aginduen aurkako mezuak hauspotzeko edo diskurtso ofizialaren bide alternatiboetara buruz eztabaidatzeko asmoa duten ekimenei.

«Gehiengo zabalaren erantzunak, usu hizkera politikoa erabiltzen duen %99arenak, Greziako plazetan esaten den esloganari jarraitu behar dio: Guk ez dugu horrelakorik egin behar, guk ez dugu ordainduko, guk ez dugu salduko».

**Leonidas Vatikiotis.
Ekonomialaria eta ELEko kidea**

Greziako Zorraren Kontu-ikuskaritzarako Kanpaina (ELE, grezierazko sigletan), 2010. urtearen amaieran sortua, herrialdearen zor publikoari buruzko azterketa inpartzial eta osoa gauzatzeko ari da lanean –aditu independenteen batzorde batek egingo luke kontuen ikuskatzea–, jakiteko zor horren zer zati den zor gorrotagarria edo zor ez-legezkoa, eta alde

bakarrez horren ordainketari uko egiteko. Nazioarteko hainbat epailek eta arbitrok auzi askotan ezarritako jurisprudentzia zabalean oinarritzen da kontzeptu hori; horren arabera, herria jakinaren gainean egon gabe edo herriak onespenerik eman gabe egindako zorrari eta herriarentzat inolako onurarik ekarri ez duenari, uko egin dakioke.

Proposamenak funtsezko hiru printzipio ditu oinarri: Greziako herriak eskubide demokratikoa eta ukazina du gaur egungo zorra nola, zergatik eta noren arduraz sortu zen jakiteko; beharrezkoa da aitortutako entzutea duen kanpoko organismo batek kontu-ikuskatzea egitea, Legebiltzarraren kontrolpean, eta gizarteak parte hartzeko aukerarekin; eta zabaldu egin behar dira kontu publikoak, zehazteko zorraren zer zati utzi behar zaion ordaintzeari. Horrela adierazi du Leonidas Vatikiotis ELEko kide, ekonomialari eta unibertsitateko irakasleak: “Greziarako irtenbide bakarra, orain, bere zor publikoa ez ordaintzea da, Argentinak, Ekuadorrek edo Errusiak egin zuten bezala, [Rafael] Correa presidenteak burututako kontu-ikuskatzearen parekoa egitea eta, aldi berean, eurogunetik eta Europar Batasunetik ateratzea. Azken hori ezinbestekoa da moneta-politika burujabea aplikatu nahi bada, eta EBren baitan onartutako azken erabakien eskutik (2012ko martxoko Itun Fiskala, 2011ko martxoko euroaren aldeko ituna eta beste asko) ezarri diren austeritate-politika zorrotzak alde batera utzi nahi badira”⁴⁶.

ELEk era askotako partaideak biltzen ditu, Greziako gizarteari bideratutako proposamenak eta agiriak lantzeko eta horien bidez herritarrak mobilizatzeko. Ez alferrik, beren adierazpenetako batean aitortzen dutenez, “masen borrokak baino ez dio emango behar duen bultzada gure eskabideari, konkista politiko bihurtzeko”⁴⁷.

«Bestelako Europa bat eraiki daiteke. Europa bat non herrialdeak aske, burujabe eta beren herrialdeen jabe izango diren, beren oraina eta etorkizuna erabakitzeke. Europak, egiazko bake, demokrazia eta anaitasuneko kontinentea izango bada, bide eman behar die herrialde burujabe, autonomo eta subira-noei».

Dimitris Kazakis.
EPAMeko burua

2011ko udan Herri Fronte Bateratua (EPAM) sortu zen, ideologia aldetik erakunde politiko plurala. Lapurtutako burujabetza politiko eta

ekonomikoa berreskuratzea du helburu erakunde horrek. Hala, askapen nazional eta sozialaren alde egiten du borroka, herriaren gehiengoaren alde, estatua beste era batera berrantolatzearen bidez. Hauek dira, besteren artean, fronte horren proposamenak: mailegu-akordioak eta horiek sortutako zorra alde bakarreko erabakiz bertan behera uztea, EBtik ateratzea, herrialdea porrotera eraman duten arduradunak auzipetzea eta Batzar Konstituziogile bat eratzea. Hauteskunde deialdiak ez dira fronte horren jardueraren ardatz; Grezia osoan barna zabalduetako tokian tokiko asanblada ugariak bestelako helburuekin ari dira lanean: euroaren, austeritate-politiken eta zorraren amarruaren inguruan eztabaida pizteko eta horien aurkako iritzi-giroa bultzatzeko xederarekin, hain zuzen. Baina,aldi berean, lankidetzan oinarritutako kontsumo-alternatibak eta ekintza sozialeko taldeak indartzeko ere ari dira lanean, hala nola osasun-sistema publikotik kanpo geratzen ari direnentzako zerbitzu medikoak eskaintzeko taldeak.

2013an, nazioarteko topaketa bat gauzatu zuen EPAMek Atenasen. Hainbat herrialdetako hogeitabi bat ekonomialari, gizarte-erakundeetako ordezkari, politikari eta kazetari bildu ziren EBren ekonomia- eta finantza-egiturari buruz eztabaidatzeko eta politika neoliberalak indar hartzen joan diren neurrian izan den atzeraldi demokratikoari buruz jarduteko. Lehen aldia zen Grezian halako muntako deialdi bat egiten zela eduki horiei buruz aritzeko, baina hala ere hedabideek erabat entzungor egin zioten hitzorduari berari eta haren garapenari. Hala ere, lagun ugari jarraitu zuen eztabaida bertatik bertara, eta frontearen lantaldeak dauden hirietan interesa zuten herritarrek ere aukera izan zuten, Internet bidezko emankizunari esker, esku-hartzeen berri jakiteko eta edukiari buruz eztabaidatzeko.

Lehen hitzaldietako batean, Dimitris Kazakis ekonomialari eta EPAMeko idazkari nagusiak azpimarratutakoaren arabera, “alderdi berri bat eratuko bada, langileen beharrezan eta interesak ez ‘kanpotik’ edo ‘goitik’ baizik eta gizarte militantearen baretatik egiaz adieraziko dituen, [...] ezinbestekoa da herritarren artean sortzen diren zatiketa eta ideologia alderdikoiak gainditzea. Horretarako, auzoan eta lantokian antolatu behar dira pertsonen jarduna, hori baita bide bakarra gehiengo zabala modu kolektiboan mugiarazteko, eta mobilizazio horien eskutik gaur egungo egoera bertan behera uzteko eta herriak berak boterea konkistatzeko. Eta

hori lortzeko ez dago beste aukerarik: gizarteak eta herritarrek beren burua antolatu behar dute eta herri xeheak parte hartzeko prozedura irekiak eta kolektiboak bideratu behar dituzte⁹⁴⁸.

«Esaten dute memorandumak funtzionatzen duenean herritarren egoera hobetu egingo dela eta faxismoa desagertu egingo dela. Errealitatea, ordea, askoz konplexuagoa da: langileen –hala bertakoen nola etorkinen– aurkako erasoak eskuineko alderdietatik eta Estatutik bertatik datoz».

**Petros Konstantinos.
KEERFA mugimenduaren koordinatzailea**

Arrazakeriaren eta Mehatxu Faxistaren aurkako Mugimendua (KEERFA) da erakunde aktiboenetako bat eta mobilizatzeko gaitasun handiena duenetako bat. Grezian, historikoki, faxismoaren aurkako mugimendua beti izan da indartsua, baina eltzea sutan probatzen denez, indarkeria arrazistaren gorakadak eta Urrezko Egunsentia (*Jrisi Avgi*) alderdi neonazia politikan eta Batzar Nazionalean sartu izanak indar hori zenbaterainokoa den neurtzeko balio izan dute. Denbora laburrean, tokian tokiko asanblada-sare zabalaren eta mugimendu sortu berrien lan eta koordinazioari esker jarri zen martxan KEERFA, egitura deszentralizatu eta oso eraginkorreko mugimendua. Ekimenean era askotako militanteak eta jarraitzaileak elkartu dira, besteak beste etorkinen talde eta elkarte garrantzitsuak, eta, heterogeneotasun horren eskutik, mugimenduaren ekintzak dimentsio handikoak izan dira, hala nola 2012ko abuztuaren 24an izan zena: orduko hartan 30.000 lagunetik gora manifestatu ziren Atenasko kaleetan, poliziaren jazarpena eta kontrola oso zorrotza izan arren. Milaka pertsonak jarraitzen dituzte mugimenduaren deialdiak, eta haren salaketa publiko eta judizialek eragin ukazina dute gobernuaren gain. Horrela gertatu zen 2013ko irailean Pavlos Fyssas rap-kantaria eta ezkerreko militantea erail ondoren. Gizartearen presio handiaren eraginez (KEERFAk hasiera-hasieratik deitutako mobilizazio ugariak sortu zuten, neurri handi batean, bulkada hori) Europak berak ere presioa egin zion Atenasko gobernuari, alderdi faxistaren inpunitatea, ordura arte harro goratzen zuena, bertan behera utz zezan. Greziako justiziak ere, ordura arte bultzada arrazistako bortxazko ekintzen aurrean sorgor, auzibide zabala abiarazi zuen Urrezko Egunsentiaren aurka. Alderdiko buruzagi nagusiak

espetxeratzea eta legebiltzarkide taldeko diputatu guztiak auzipetzea ekarri zuen auzibide horrek. Bestalde, barne ministroak, Nikos Dendiasek, barne ikerketa zabaldu behar izan zuen ezinbestean, eta horrek ere goikargu ugari kargugabetzea eta agente asko auzipetzea ekarri zuen.

Hala ere, KEERFAren iritziz, indarkeria faxista ez dute soilik ultraeskuineko taldeek eragiten eta eraso horien bultzada ez da soilik krisiak ekarritako desegituratze sozial eta ekonomikoaren ondorio; aitzitik, indarkeria horren eragileek izen-abizenak dituzte. Petros Konstantinosek, mugimenduaren koordinatzaileak, inork baino hobeto azaldu du atzeko alde hori: “Industrialari, enpresari eta bankariek finantzatzen dute Urrezko Egunsentia, alderdi hori baliatzen baitute langile etorkinak beldurrarazteko –batez ere industria astunetan eta arrantzakoetan– edota grebak apurtzeko, Volosen egin zuten bezala. Handiputz indarkeria zale horiek, gainera, beren burua eskaintzen diete merkatari handiei, pobreak, drogazaleak edo kaleko saltzaileak paretik kentzeko, eta segurtasuna eskaintzeko gai diren bakarrak direla esaten diete harro. Poliziarekin duten lotura eta lankidetzaren argia eta nabarmena da. Talde faxistek auzoren batean eraso egiten dutenean, inoiz ez dago polizia han, ez dago atxilotarik. Poliziak utzi egiten diete etorkinei erasotzen, gehienak erregularizatuta daudelako eta lege ezin dutelako ezer egin haien aurka. Pogrom faxista eta eraso asko modu horretara gertatzen dira. Lankidetzan, horrela jarduten dute talde paraestatal faxistek eta segurtasun-indarrek”⁴⁹. Aldi berean, gobernuak baimendu egiten ditu haien ekitaldiak eta ahalegina egiten du hauteskundeetan etekina ateratzeko, Urrezko Egunsentia alderdiaren pentsamolde xenofobo eta arrazistatik oso urrun ez diren politikak bultzatuz. Horren erakusle, etorkinentzako kontzentrazio-esparruak sortu dituzte, nahiz eta Giza Eskubideen aldeko nazioarteko erakundeek behin eta berriro salatu dituzten legeak urratzeagatik eta presoak bizi-baldintza oso makurretan edukitzeagatik; hala, Atenasko kaletan bereizi gabeko sarekadak egin dituzte atzerritarren aurka, eta milaka eta milaka pertsona atxilotu dituzte.

Hori dela eta, KEERFAren lan-ildoak bi dira funtsean: talde faxisten ekintzei erantzuna ematea, eta immigrazioaren aurkako politika neoliberal ez-legezkoak ikusaraztea, soilik Grezian hildako ugari eta milaka atxilotu, torturatu eta deportatu izaten baitira horien eraginez, inolako berme juridikorik gabe, gainera. Horren ondorioz, mugimenduko kide

nabarmenenak mehatxatuak, kriminalizatuak eta judizialki jazarriak izan dira.

3. Larrialdi soziala geldiaraztea

Ongizate-estatu desegiten hasi zen une berean hasi ziren sortzen hainbat laguntza-ekimen, egoera ahulenean daudenei lapurtutako zerbitzu horietako batzuk modu solidarioan eman ahal izateko. Medikuek, farmazialariek, irakasleek, ekintzaileek... klinika sozialak, jangela publikoak, haurtzaindegiak, etxez etxeko laguntza-zerbitzuak, adinekoek laguntzeko zerbitzuak, etab. jarri zituzten martxan.

Talde horietako asko auzoetan sortu ziren; ordurako, emakume asko beren burua antolatzen hasita zeuden auzoetan bertan, beren etxeetan edo senideen nahiz gertukoaren etxeetan egin beharreko zenbait zeregin koordinatzeko eta partekatzeke. Gizarte-zerbitzuak bertan behera geratzearen ondorioz eta adineko pertsonak edo ezinduek laguntzera eta zaintzera bideratutako funts publikoak kentzearen ondorioz, emakumeek eta familiek hartu zituzten beren gain zeregin horiek eta beste batzuk, gai pribatuak eta Estatuaren erantzukizunarekin batera loturarik gabeak balira bezala.

Emandako erantzuna, kolektiboa eta solidarioa izan zen, inor ez zedin geratu laguntzarik gabe, baina baita informazio mailakoa ere, larrialdi sozialeko egoeraren sorburu eta arrazoiak testuinguruan jartzeko, eta komunitateko boluntarioek emandako zerbitzu horiek Estatuak bermatu beharko lituzkeela gogorarazteko.

Osasun-zerbitzuak

Osasun publikoa egoera negargarrian dago Grezian eta, horren ondorioz, klinika sozialak azkar eta ugari hedatu dira geografia osoan. Ospitale publikoen finantziazioa %40 murriztu da 2011. urtetik hona, eta, aldiz, eskaria %20 handitu da; gainera, tasak ezarri dira osasun-zerbitzuak erabiltzeagatik eta ospitaleratzeengatik. Murrizketen eraginez, medikunitateetako langileen kopurua izugarri murriztu da eta azpiegiturak okertu egin dira. Hainbat ospitale eta sail itxi dira, langilerik ez zutelako, eta,

horrez gain, sendagaiak ere nabarmen gutxitu dira, Estatuak farmazia-konpainiekin dituen zorrak direla-eta.

Kalkuluaren arabera, hiru milioi pertsona inguruk, Greziako biztanleen ia heren batek, ez dauka osasun-babesik sistema publikoaren barnean, eta, orobat, ez dauka diru-sarrera nahikorik aseguru pribatua ordaintzeko. Emakumeen eta haurren kasuan, egoera larriagoa da, bai haurdunaldian zehar eta bai erditzeko unean eta ondorengo ordu eta egunetan. Medikua-asegururik ez dutenek ospitaleko faktura mardulak ordaindu behar izaten dituzte: 600 eurotik hasi, erditzea arazorik gabe izan bada, eta 1.200 eurora artekoak, zesarea beharrezkoa izan bada.

Munduko Medikuek elkarteak Europa mailako ikerlan bat egin du berriki, "Egoera ahulenean daudenek osasun-arreta izateko aukera krisi sozialean den Europan"⁵⁰, eta lan horren arabera, "inongo herrialdetan ez da Grezian bezain azkar eta osorik desegin gizarte-segurantzaren sarea". Ikerlan horren arabera, zenbait kasutan ospitaleek uko egin diote jaiotza-ziurtagiriak emateari alde aurretik erditzearen kostua ordaindu ezean, edo, areago, jaioberria gurasoei ez emateko mehatxua ere egin dute, ordainketa oso-osorik egin arte.

Egoera horren eta antzeko beste batzuen eraginez, ama askoren bizitza arriskuan egon da eta bizirik jaio diren haurren kopurua nabarmen gutxitu da; gordinago esanda, %20 handitu da erditzean hil diren haurren kopurua krisia hasi zenetik. Era berean, gero eta haur gehiago geratzen ari dira txertatu gabe, txertoak ematen ziren zentro publikoak ixten joan diren neurrian, eta, aldi berean, klinika pribatuen negozioa handitzen joan da; 2013ko maiatzean, aipatutako txostenaren arabera, txertaketen %60-70 artean klinika pribatuetan egiten zen. Txertaketa-ziklo osoak 1.200 euroko kostua izan dezake, eta milaka familiak ez du hori ordaintzeko beste baliabide; beraz, etorkizun hurbilean, jada desagertuak ziren gaixotasunak edo epidemia larriak berragertzea ekar dezake horrek.

Egoera latz horretan, klinika sozialak izan dira, biztanleen ehuneko handi batentzat, mediku-arreta jaso ahal izateko aukera eta salbazio-bide bakarra. Elliniko hiriko Klinika Komunitario Metropolitanoa da zentro horietako bat, beharbada eskarmentu eta baliabide gehien duena. Atenas kanpoaldean dago ospitalea, AEBetako antzinako basea zegoen eraikinetako batean. Bertan, mediku boluntarioek osasun-zerbitzuak ematen dizkiete langabezia dauden pertsoneri eta diru-sarrerarik nahiz

mediku-asegururik ez dutenei. “Inor ez dago bakarrik krisian” aldarria ez da esaldi soila, jarraibide bat ere bada egunero-egunero hiriburuko edozein lekutatik, baita probintziatik ere, iristen diren pazienteei arreta emateko lan egiten duten 200 pertsonentzat. Zentroak 2012aren hasieran ekin zion lanari, eta, kalkuluen arabera, 22.000 kontsulta baino gehiago egin ditu bi urte eskasean.

Udalerriak ordaintzen ditu zerbitzuen fakturak (ura, argindarra, etab.), eta kolaboratzaileen sareak jasotzen ditu material-dohaintzak (botikak edo osasun-ekipamendua); izan ere, ez da diruzko laguntzarik onartzen. Ekarpen guztiak anonimoak dira. Asanblada edo batzarra da klinikaren zuzendaritza-organoa; hor erabakitzen da funtsezko gai guztiei buruz, eta kolaboratzaile guztiak berdina dira, edozein lan egiten dutela ere. Lana antolatzeko bost talde dituzte: harrera, administrazioa, komunikazioa, farmazia eta osasun-arreta.

Gaur egun, Klinikak espezialitate hauetan ematen du zerbitzua: medikuntza orokorra, pediatria, ginekologia, kardiologia, ortopedia, pneumologia, urologia, estomatologia, odontologia, fisioterapia, oftalmologia, psikologia, nutrizioa, homeopatia eta akupuntura. Erretiroa hartutako medikuen ekarpenei esker eta beren ekipoak berritu zituzten osasun-zentroeiei esker, badu oinarrizko tresneria ere: elektrokardiografoa, dentisten kontsultarako aulkiak, ohatilak, ordenagailuak...

Zentroan tratatu ezin diren interbentzio kirurgikoak eta diagnostikatutako gaixotasun larriak doan artatzen dira bai sektore publikoan bai pribatuan, arauak ez betetzea onartu duten profesionalen eskutik. Oinarrizko arretaren zerbitzuan, farmaziak beharrezko botikak ematen dizkie gaixoei, bereziki baliabiderik ez duten gaixo kronikoei, errezetapean betiere. Halaber, amatasuna dela eta, 200 bat familiari ere ematen die oinarrizko laguntza: haurren esnea, pixoihalak eta abar.

Ekimenaren arazo nagusietako bat da klinikak ez duela legezko aitortzarik, eta horrek arazoak ekarri dizkio botikak banatzeko, baina, horrez gain, erabiltzen dituen instalazioak salgai dagoen lote batean daude, gobernuaren pribatizazio-programaren barnean, eta, ondorioz, etorkizuna zalantzarik bete da ageri da.

Tesalonikako Klinika Sozial Solidarioak ere antzeko erroak eta filosofia ditu. Ekimen horrek, Atenasko Elliniko-koak bezala, bere farmazia du, 200 bat kolaboratzailez osatutako sarea eta antolaketa asanblearioa, baina

osasan-arretaren arloan ez ezik, borroka politikoan eta sozialean ere egiten du lan, osasan-sistema egiaz publiko eta doanekoa izateko eskubidearen alde. Zentroak era guztietako mediku-zerbitzuak eskaintzen ditu bai klinikaren instalazioetan bertan, bai mediku boluntarioen kontsultetan, laborategietan edo ekimenean modu batera edo bestera parte hartzen duten laborategi eta ospitaletan.

Klinika hau erakundeen inolako diru-laguntzarik gabe sortu zen eta horrelaxe irauten du egun ere. Elkartasun- eta laguntza-kanpainetatik eta norbanakoen eta gizarte-erakundeen lankidetzatik eskuratzen ditu baliabideak. Horri esker, bere bi zutabe nagusiak gara ditzake: autonomia ekonomikoa eta burujabetza politikoa.

Atenas eta Tesalonika artean dago Volos hiri txikia. Eta han ere bada elkartasunezko zentro bat, era askotako zerbitzuak eskaintzen dituena: osasan arlokoak eta auzoan sortutako proiektuak, hala nola arropa eta elikagaiak jasotzea, produktu eta zerbitzuen trukea, bilerak eta beste jarduera asko. Taldeak hartu-emanak ditu beste ekimen batzuekin, bereziki botiken trukean jarduten dutenekin, beharizan funtsezkoa baita. Ekimen horien artean dago *Guztiontzako Elkartasuna*; horri buruz jardungo dugu jarraian.

Elkartasun-egiturak

Auzo eta herri mailako gizarte-ekimen ugari sortu dira han eta hemen, eta, horren ondorioz, ekintzaileek eta partaideek ahalegin berezia egin behar izan dute, denborarik galdu gabe, beharrak eta indarrak antzeko proiektuetan edo gertukoetan koordinatzeko eta bateratzeko. Elkarteek eta mugimenduek, oro har, txalotzeko moduko indar eta autonomia erakusten dute, eta lortzen dute tokian tokiko biztanleak larrialdi sozialeko programetara biltzea eta engaiatzea. Bizilagunak mobilizatzea eta kontzientziatzea dute helburu borrokarako gune horiek, gobernuak ezarritako politika antisozialak geldiarazteko. Hala azpimarratu izan du Zibechik: “Lurraldeak abandonatzen baditugu, gureak egin du, goikoak nagusituko baitzaizkigu. Eta ataka horretan bide bakarra dago: bertan indartsu eta burujabe izatea, kolektiboa suntsitu eta pobrea banaka salbatu nahi duten gizarte-politikak indargabetuz”⁵¹.

Era berean, mugak dituzte beren jarduerak zabaltzeko eta beharrezko baliabideak biltzeko. Hori gainditzeko, elkartasun-sareak eratu dituzte,

informazioa eta baliabideak trukatzeko eta batera eta bestera bideratzeko, eta, orobat, gaitasunak garatzea eta gizartea hobetzea helburu duten erakunde, elkarte eta kooperatiba guztiak koordinatzeko.

Guztionezko Elkartasuna da, inondik ere, dauden egituren artean indartsuena eta garatuena. Era guztietako eragileak, mugimenduak, zerbitzuak eta sareak daude egitura horretan: klinika sozialak eta farmaziak, aisialdiko gune alternatiboak, jangela kolektiboak, bitartekaririk gabeko ekoizle- eta kontsumitzaile-sareak, trukerako lokalak, denbora-bankuak, ikasle eta etorkinei laguntzeko akademiak eta hizkuntza-eskolak, lege arloko laguntza emateko taldeak eta gizarte-ekonomiari lotutako era guztietako proiektuak.

“Kolektibo irekia da, elkartasuna, erresistentzia eta norbere buruaren antolaketa hirukoan oinarritua; gure helburua ez da laguntzarako egitura ugarien adierazpide edo ordezkari izatea, baizik eta nazio mailan haien topaketarako gune izatea”. Horrela definitzen du ekimenak bere burua. Oinarri horiek aintzat harturik, ekimenak bi helburu hauek ditu, funtsean: erakundeen arteko komunikazioa eta ezagueren trukea bideratzea, eta elkartasunezko mugimenduaren gaitasun guztiak ikusaraztea eta ezagutzera ematea, informazio hori zerbitzu horien beharrean egon daitezkeen pertsonengana iris dadin, bai eta parte hartzeko gogoia izan dezaketen guztiengana ere.

Beste jarduera-esparru bat da lehendik dauden proiektuekin lankidetzan aritzea, egitasmo horiei laguntzeko eta material, finantza eta giza baliabide aldetik behar dutena eman ahal izateko, bai eta babesik gabe dauden esparruak eta gaiak sortzea sustatzeko ere.

Guztionezko Elkartasuna ekimenaren iritziz poztekoa eta nabarmentzekoa da krisiak zuzenean jotako pertsonen horrelako egiturak martxan jartzeko gaitasuna erakutsi izana. Hala ere, behin eta berriro argi utzi nahi izan dute ezin dela eta ez dela asmoa erabat ahuldutako ongizate-estatuaren lekua hartzea; aitzitik, helburua da langileen (lanean ari direnen, langabeen eta atzerritarren), ikasleen eta bizilagunen batasuna lortzea, guztionezko gizarte-eskubideak aldarrikatzeko. Mugimenduaren asmoen artean ere jasota dago aldarrikapen hori: “[Ekimenaren] helburua da austeritate-memorandumik, pobreziarik, esplotaziorik, faxismo eta arrazakeriarik gabeko bizitzaren alde borroka egitea eta borroka horretan beste katebegi bat bihurtzea; muturreko politika baterako baldintzak

sortzea, horren bidez gaur egungo erregimena bertan behera uzteko eta gizarte aldatzeko⁵². Mugimendu zabal eta askotariko horren xedea, beraz, gaur egungo gaitzak arintzea ez ezik, irabazien eta merkatuaren arauetatik kanpoko beste mundu bat sortzea da, azken hori batez ere. Horretarako, herritarren arteko eta ingurunearekiko beste era bateko harreman modu batzuk esploratzen ditu, eremu publikoa antolatzeko beste modu batzuk, ahalegina egiten du guztionak diren borroketan elkartasuna esku-hartze politikoen ardatz bihurtzeko... Azken batean, orain arte ez bezalako matrize bat sortzea bilatzen du, aldaketa sozial orokorra lortzeko.

Horrez gain, *Guztionezako Elkartasuna* ekimenak gogotik lan egiten du proiektu zehatzetarako funtsak eta laguntza materiala biltzen eta kanpainak antolatzen, baita nazioartean ere, egoera ahulenean dauden sektoreentzako (adingabeak, gaixo kronikoak eta baliabiderik ez duten pentsiodunak) laguntzak jasotzeko.

Ikuspegi ekonomizistagoa oinarri duela, eta Tesalonikan bertan kokatuago, Ekonomia Sozial eta Solidariarako Ekimenak (*Proskalo*) ekintza globalerako plan bat aktibatzea eta gizartean horri buruz eztabaidatzea du helburu, plan horren bidez herritarrek galdutako esperantza berreskura dezaten eta bestelako ikuspegi bat beregana dezaten. Programa horrek gaur egungo ekonomia-eredua gainditzen lagundu beharko luke, berdintasuna, justizia eta gizarte mailako askatasunak sustatu beharko lituzke, ingurumenaren eta gizakiaren arteko oreka bermatu beharko luke, demokrazia ordezkatzailerak eta herritarrek erabaki politikoen gain kontrol zuzena izatea uztartu beharko lituzke, eta kultura-aniztasuna sustatu beharko luke, dinamika guztion onerako izan dadin⁵³. *Proskalo* ekimenaren lanak hauxe du ardatz: gizarte-ekonomiako lankidetzaren ereduaren garatzea eta hedatzea –Mondragón taldea paradigmaz harturik– “sistema horrek funtzionatzen duelako eta erakusten duelako gizakiak zer gaitasun duen prozesu demokratikoen bidez harreman sozial konplexuak kudeatzeko”.

Hainbat lankidetzaren proiekturi laguntza emateaz gain, *Proskalo* ekimenak Ekonomia Sozial eta Solidarioko Herri Unibertsitatea deritzona sortu zuen 2013an, ekonomia solidarioko gizarte-taldeen parte hartzen duten pertsonen eta, oro har, herritar guztien zuzendua. Unibertsitate horren xedea da ekonomia sozialaren eta kooperatibismoaren esparruan

demokrazia zuzenaren balioei eta edukiei buruzko prestakuntza ematea eta sustatzea. Tesalonikan du egoitza unibertsitateak, eta doaneko ikastaroak eta mintegiak antolatzen ditu, helduentzako printzipioetan oinarrituta. Ikastaro horietan, ikaskuntza kritikoa eta teoriaren eta praktikaren arteko elkarreragina sustatzen ditu. Astean behin, eztabaidarako topaketak ere egiten dituzte, Internet bidez jarraitzeko aukerarekin, eta unibertsitatearen web-orrialdean argitaratzen dituzte beren materialak.

Ekimen eta laguntza-sare horien guztien beste topagune garrantzitsua izan dira Atenasen orain arte antolatutako bi jaialdiak. 2012ko eta 2013ko urrian izan ziren bi hitzorduak, zein baino zein arrakastatsuagoak antolaketa aldetik, ekonomia sozial eta solidarioaren arloan diharduten oinarriko talde eta mugimendu gehien-gehienak bildu baitziren bietan, eta haien arteko loturak sendotzeko aurrerapauso nabarmenak eman ziren. Ehunka boluntarioren lan eskergari esker gauzatu ziren topaketak, eta era guztietako ekimenak izan ziren haietan: tailerrak, aurkezpenak eta eztabaidak martxan diren proiektuen funtzionamenduari buruzko alderdiak eta bestelako gai batzuk hizpide hartuta, hala nola desazkundera, herritarren oinarritzko errenta edo komunen mugimendua, besteak beste.

Desobedientzia zibila

Krisia hasi zenetik, hainbat herri asanblada eratu dira Greziako plazetan, eta, hain zuzen, asanblada horietan gorpuztu zen *Ez dut ordainduko* mugimendua, garraio publikoan eta zenbait administrazio-esleipenetan, hala nola autopistetako bidesarrietan (guztiak ordaintzekoak) edota Atenasko ingurabidean (hori ere pribatua) indarrean diren gehiegizko tarifak ordaintzearen aurkakoa. Suminduen 15M olatua ere indar biziz iritsi zen Atenasera, eta horrek bultzada handia eman zion herri erresistentziako mugimendu honi, eta auzoetan indar handiagoa hartzea ekarri zuen. 2011ko udazkenean, Greziako gobernuak jabetzaren gaineko beste zerga ezarri zuen, lehenaz gain karga handikoa, eta hori bihurtu zen *Ez dut ordainduko* mugimenduaren eta desobedientzia zibileko egitasmo oso baten borroka nagusia. Betiko ezkerreko hainbat sektorek eta, areago, tokian tokiko hainbat alkatek eta zinegotzik berehala egin zuten bat egitasmo horrekin. Mugimenduaren izaera herrikoia eta errebeldea lagungarri izan zen antolaketa horizontala zabaltzeko eta sustatzeko eta

beste indar batzuekin koordinatzeko, erresistentzia-borroka horretan ikuskera osoago eta aktiboagoa lortze aldera. Era berean, mugimenduaren filosofia politikoa (“Ez dut ordainduko beraiek sortutako krisirik”) akuilu izan zen herritar askok eta askok kontzientzia har zezan eta erregimen oligarkiko baten legitimotasuna eta harekiko leialtasuna bertan behera utz zezan; izan ere, herri xehea inoizko muga larrietaraino gabetzea beste interesik ez zuen izan erregimen horrek.

Erantzuna anitza izan da: batetik, zerga, tasa, zerbitzu eta bankuen maileguak ordaintzeari intsumisio aktiboa egin diote hainbatek; bestetik, langabeei eta desobeditzaile fiskalei legezko aholkularitza eta laguntzagidak eskaini dizkiete beste askok; eta azkenik, euroaren eta EBren aurkako jarduera politikoa bizia bideratu dute mugimenduko beste hainbat kidek. Ez dut ordainduko mugimenduaren iritiz, “erreforma progresistek ez dute lortuko munduko oligarkiaren planak geldiaraztea” eta “sistema politikoa gizajale horren testuinguruan, ez dago herri xehearen interesak babestu eta zerbitzatu dituen kudeaketarik”⁵⁴. Hori dela eta, mugimenduak proposatzen du erresistentzia-fronte zabal bat berregitea, antolatzea eta koordinatzea, gaur egungo sistema bertan behera uzteko eta askatasun eta justizia sozialeko etorkizunari begira oinarriak jartzeko: fronte horrek bat etorri behar du bizi dugun egoerak eskatzen duen premia biziarekin, eta ekimena hartu behar du eta demokrazia eta gizartearen funtzionamendua berreskuratzeari ekin behar dio, justizia, askatasuna eta duintasuna printzipioak oinarri hartuta, horiek baitira egungo sistema kapitalistaren balioen (besteak azpiratzea eta errentagarritasuna) juxtu kontrakoak.

Beste talde errebelde bat, honako hau anonimoa, energia enpresa publikoko (DEI) langileek eta boluntarioek osatzen dute; ez ordaintzeagatik argindarra moztu zaien etxeetan hornidura elektrikoa berrezartzen dute ekintzaile horiek. 2008ko uztailetik 15 aldiz garestitu da argindarraren prezioa, guztira %44tik gora, eta horri gehitu behar zaio BEZ zerga ere igo egin dela. Zuhaitz eroriari denek egur, lehenaz gain higiezinaren gaineko zerga eta udal-tasak gehitu zituzten argindarraren ordainagirian, zerga eta tasa horiek ordaintzera behartzeko, gainerakoan etxeetako argindarra mozteko mehatxua egin baitzieten herritarrei. Austeritate-politikak indarrean jartzean, argindarraren mozketak %80 igo

ziren, hirutik bi etxe partikularretan eta gainerakoa ekonomia-krisiaren ondorioz atekak itxi behar izan zituzten enpresetan.

2013an, 350.000 jabetza edo maizterri moztu zitzaizkien argindarra, fakturak ez ordaintzeagatik. Enpresaren beraren datuen arabera, %60k zorrak ordaindu eta hornidura berreskuratu ahal izan zuten; eta %10 inguruk legez kanpo lortu zuten argindar-sarera konektatzea, DElko ekintzaileen laguntzaren bidez, hori bai, harrapatuz gero delitu kriminal bat egiteagatik auzipetuak izateko mehatxupean.

Elikadura eta elkartasuna

Elikaduraren arloan martxan jarritako ekimen eta jardunak bi eratakoak izan dira batez ere: jangela kolektiboak eta hornitzeko egiturak, batetik, eta banaketa-sistema alternatiboak, bestetik.

Jangela edo sukalde kolektiboak, hasiera batean, langabeei eta etxerik gabekoei jatekoa emateko sortu ziren, baina denboraren joanean tresna eraginkor bihurtu dira greban diren langileentzako eta haien familientzako, bai eta beren oinarritzako elikadura beharrianak ase ezin dituzten etxeetan bizi direnentzako ere. Kasu guztietan, kaltetutako sektoreen esku-hartzea eta atxikimendua bilatu dute talde sustatzaileek, eta horrekin, arazoa isolaturik eta bakaturik ez geratzea ahalbidetu dute (horrek joera faxistak elikatzen dituelakoan daude), eta, orobat, auzo guztietan kohesio soziala eta espiritu komunitarioa indartzea lortu dute. Ekimen horiek tokiko esparruan sortu izan dira beti, hasieran pertsona gutxi batzuen ahalegin eskergari esker, eta gerora, pixkanaka, dozenaka boluntario bildu dira egitasmo horietara; horrela gertatu zen, adibidez, Neos Kosmos Elkartasun Taldearekin. Atenasko auzo pobreetako batean, hasieran lau sortzaileen bultzada zena berrogeita hamar ekintzaile baino gehiagoren eguneroko lana bihurtu da egun. Boluntario horiek ehunka pertsonarentzako prestatzen dituzte otorduak, eta hilean bi aldiz janari-paketeak ematen dizkiete auzoko familia askori. Beste adibide interesgarri bat da Elkartasun eta Emantzipaziorako Partaidetza Mahaia, Kavala hiri txikian, herrialdearen ipar-ekialdean. Astean hirutan, afari kolektiboak antolatzen dituzte hiri horretan, dohaintzen bidez bermatutako produktuekin, eta ondoren, musika-jarduerak edo eztabaidak egiten dituzte mahaikideen artean. Karitatearen kontzeptuari ihes egiteko, talde horrek antolatutako afarietan, mahaiko janaria partekatzeaz gain, kultura-

proposamenak izaten dira, partaideak intelektualki aberasteko. Gaur egun, 200 afaltiar inguru biltzen da topaketa horietan, eta 40 bat boluntario arduratzen dira proiektua bultzatzeaz.

Sukaldeak hornitzeko bide eta bitarteko berak erabiltzen dituzte batzuek eta besteek: bizilagunek emandako jakiak eta saltokiek eta supermerkatuek egindako ekarpenak. Adibidez, Neos Kosmosen, pertsona talde batek auzoko saltokietara jotzen du, dendariak beren borondatez emandakoa jasotzeko, eta, ondoren, elkartearen lokalean janari hori sailkatzeko eta biltegitatzeko.

Elikaduraren esparruan diharduten beste ekimen askok, berriz, ekoizle eta kontsumitzaileen artean banaketa-sare zuzenak eratzea jo dute, batetik, bitartekariak eraginez garestitutako prezioak saihesteko eta, bestetik, elikagaien tokian tokiko produkzioa eta produktu ekologikoa bultzatzeko.

Ekarpen garrantzitsuenetako bat “patataren mugimendua” izan zen, hasiera batean udalugarik bultzatua. Mugimendu horren eskutik, hainbat nekazari eta hiriko kontsumitzailek lotura zuzeneko sareak sortu dituzte, produktuak zuzenean plazan saltzeko eta, modu horretara, merkataritza-zirkuituko bitartekariak eta supermerkatu-kate handiak itzuri egiteko; hala, prezio hobekak lortu dituzte bi aldeek, eta erosleak, gainera, produktu freskoagoak eskuratzen ditu. Formula oso arrakastatsua izan da, alde batetik, ehunka salmenta-puntu sortu direlako herrialde osoan eta produktuen eskaintza ere asko zabaldu delako, eta bestetik, herritarren beharrezan eta produkzioaren arteko uztartzea ekarri duelako. Kasu batzuetan, horrek indartu egin du zenbait lurralderen elikadura-burujabetza, eta bestetan, ekonomia sozialeko jardun berriak sortzea ekarri du. Horrela gertatu zen, adibidez, Kreta uhartean: behar kolektibo batek eraginda, hainbat ekoizle eta kontsumitzailek produktuak zuzenean salerosteko egitura alternatiboa eratu zuten, elikagaien denda sozialen sare baten bidez; egitura hori indartzeko, gainera, hiriko baratzak kolektiboak eta autogestionatuak ere sortu zituzten.

Truke horien garrantziaz jabetzeko, bi datu soil: 2013an, Greziako etxean %22k “bitartekaririk gabeko” sareen bidez eskuratu zituen oinarriko elikagaiak, eta %6k elikagaien denda sozialetan⁵⁵. Urte berean, Atenasko Galatsi barrutiko Erresistentzia eta Elkartasun Mugimenduak hilean behingo topaketak antolatu zituen, salgaiak banatzeko. Guztira,

50.000 eurotik gorako balioa banatu zuten era guztietako produktutan, eta 1.500 etxeren beharrianak bete zituzten.

Kretan bakarrik ez, hiriburuan ere hiriko baratzak sortu dituzte azken urteotan, autogestioaren ereduari jarraituz. Exarjia auzoan, adibidez, Navarino Parkea zena, hormigoiez estalitako orube zahar bat aparkaleku bihurtua, gune berde bihurtu dute bizilagunek, eta 1.800 metro koadro berreskuratu dituzte hiri baratzeetarako. Bost urteotan, batzar ireki batek kudeatzen ditu baliabideak, jarduerak eta lehengoraturako gune horren erabilera. Parkeak denetarik dauka: baratza ekologikoa, txikientzako jolastokiak, kirol-eremuak, bertan bizi direnak elkartzeko lekuak, eta jarduera politikoak eta kulturalak egiteko guneak. Laneko hainbat batzorde (garbiketa, ureztatzea, mantentze-lanak, jarduerak, finantziazioa, etab.) arduratzen dira auzoko birika hau egoera ezin hobean mantentzeaz, bizilagun guztiek erabil eta goza dezaten.

Esperientziek erakusten dute autogestionatutako gune horiek herritarren artean eta ingurunearekin erlazionatzeko beste molde batzuk sortzen eta aktibatzen dituztela behe-behetik. Navarinon, hiriaren eta landa-ingurunearen arteko bestelako lotura bat sortu da, inolako ordain ekonomikorik jasotzen ez duten hainbat gizabanakoren lanaren bidez, eta auzoa bera da onuradun nagusia, baratzeetatik lortzen dituen elikagaiei esker. Emaizta horien argitan, zenbait balio gailendu egiten dira bestelako doktrina batzuen gain: kolektibitatea eta elkartasuna indibidualismoren gain; guztien jabetza eta eremuak, jabetza pribatu eta merkaturatzeen gain; parte-hartze aktiboa eta elkarrekiko erantzukizuna ardura guztia ordezkarien esku uzteko joera pasiboaren gain...

Hezkuntza eta kultura arloko zerbitzuak

Greziako hezkuntza-sistemaren ezaugarriak direla-eta, gure ikasleek lezioak behar dituzte eskolako orduetatik kanpo ikasitakoa finkatzeko eta ikasten laguntzeko. Eskola osagarri horiek akademia pribatuetan ematen dira, eta oso errotuta daude. Horrenbestez, familia askok halabeharrez egin behar diote aurre eskolaz kanpoko irakaskuntza horri, eta diru-sarrerren zati handi bat bideratu behar dute horretara. Pentsatzekoa denez, krisiak kalte nabarmena ekarri zuen, lehenaz gain, ikasle asko eta askorentzat, prestakuntza osagarri horretatik kanpo geratu baitziren. Beste esparru batzuetan ere hala gertatu baitzen, berehala sortu ziren gizarte-

laguntzako taldeak, irakasleek eta guraso-elkarteek sortuak, baliabiderik ez zuten adingabeei lezio horiek emateko prest. Hain zuzen, aurrez azaldutako ekimenetako batzuek, hala nola Neos Kosmos hiriko Elkartasun Elkartek, hezkuntza arloko jarduera hauekin ekin zion bideari.

Eskola horiek aurrerapen nabarmenak egin dituzte eta, gainerako parte-hartze solidarioen ereduari jarraituz, egungo hezkuntza-sistemaren desorekei buru egitea izan dute funtsezko helburu; izan ere, austeritate-politiken suan urtzen ari da hezkuntza-sistema, klase-bereizketak areagotzen ari dira eta egoera ahulenean dauden sektoreetako haurrak aukera gutxiago izateko arriskuan daude. Nikea langile auzoan, gurasoen elkarteko lokalean egiten dute lan. Hastapenetan, hamar bat irakasle hasi ziren 50 ikasleri eskola ematen, baina denborarekin, kopuru horiek laukoiztu egin dira; areago, gaur egun 25 kolaboratzaile ere ari dira administrazio eta antolaketa lanetan. Pallini barrutian, beste eskola sozial askotako ereduari jarraituz, ikasleei atzerriko hizkuntzak irakasteko eta langile etorkinei grezierazko eskolak emateko proposamenak sartu dituzte auzoko elkartek beren programetan.

Kulturaren arloan ere nabarmena izan da eraldaketa. Hiritarren ekimen autonomoek, ezkerreko talde muturrekoek (batzuk gehiago besteak baino) eta era guztietako elkarteek kudeatutako toki eta gune sozialez bete da hiria. Antolaketa aldetik planteamendu berritzaileak eta sormen eta originaltasun handiko kontzeptuen aniztasuna erakusten dituzte talde eta elkarte horien guztien proposamenek. Alternatiba kultural horiek espekto nahiko zabala hartzen dute: kaleko artista plastikoen erakusketak galerietan, era guztietako arte eszenikoen programazioak Embros antzoki okupatuan eta beste zenbait aretotan, Greziako Irrati Telebista desagertuan (ERT) lan egiten zuten langilek auzoetan proiektatutako filmak eta kontzertuak, etab.

Uneotan, badirudi Greziako estatuak ez duela ez gaitasunik ez interesik kultura-adierazpenak babesteko, ez eta herritarren zerbitzurako dauden egiturei bizirik eusteko ere, eta, hortaz, auzo eta herritarren bultzadaz ari dira proiektuak martxan jartzen. Horren adibide da Musika Kontserbatorio Soziala, Twitter bidez 2012ko otsailean egindako eskabide batetik sortua. Lehen urte horretan, 80 ikasle aritu ziren hiru leku desberdinetan. 2013an, berriz, mila bat eskabide jaso zituen Kontserbatorioak, baina soilik 120 hartu ahal izan zituen aintzat, 50 irakasle eta 30 laguntzaile boluntario izan

arren, ez zuelako gela egokirik eskolak emateko. Kontserbatorioaren batzarrean, ikasleek, irakasleek eta kolaboratzaileek hartzen dute parte, eta egitasmoa finantzatzeko, elkartasunezko ekitaldiak eta ekimenak antolatzen dituzte. Beste emaitza batzuen artean, musika estilo desberdineko hiru talde eratu dira Kontserbatorio sozial horretan.

Lege arloko laguntza-zerbitzuak

Ondasunez eta zerbitzuz ez ezik, legearen bermez ere gabetzen ditu krisiak herritarrak; izan ere, goizetik gauera, aitaren batean, desagertu dira berme horiek. Gehienetan, eskubide horien higadura kaltetuek deus jakin gabe edo ezer egiteko aukerarik gabe gertatzen da. Egoera horri mugak jartzeko asmoarekin, hainbat abokatu taldek beren aholkularitza eta lege-defentsa zerbitzuak eskaini dizkiete gizartearen bazterrean geratzen ari diren herritar gero eta ugariagoi. Lan kontuei buruzkoak eta familiek estatuarekin edo bankuekin dituzten zorren kudeaketari buruzkoak dira herritarrek egiten dituzten kontsulta ugarienak. Horiez gain, erretiro-pentsioen izapidetzeak⁵⁶, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen babesa eta etorkinen asistentzia dira abokatu-talde boluntario horien agenda ia osoa betetzen duten gaiak.

Kezkagarria da ohartzea krisi garaian genero-indarkeria kasuak nola ugaritu diren. Izugarri. Estatistika batzuen arabera, %50 ugaritu dira horrelako indarkeria kasuak. Hala ere, seguru asko benetako datuak are okerragoak dira, eraso asko eta asko salatu gabe geratzen baitira, dela beldurratetik dela gizartean ondo ikusia ez dagoelako. Egoera hori berez aski larria izanik, are okerragoa da Gobernuak murriztu egin dituela aurrekontuak, eta erabateko axolagabekeria agertu duela mugimendu feministarekiko eta emakumeen elkarteekiko, eta, horren ondorioz, bertan behera geratu dira hainbat programa eta laguntza-egitura, hala nola etxeko indarkeria jasaten duten biktimentzako etxeak eta aholkularitza-zentroak.

Horren ondorioa da dauden harrera-zentroak baldintza oso kaskarretan ari direla lanean eta emakumeen gehiengoak ez dakiela horrelakorik dagoenik ere. Abokatu batzuek, Dímitra Romanuk adibidez, salatu dute agintariek erabateko sentiberatasun falta agertzen dutela, biktimak etxera itzultzeraz bultzatzen dituztelako, eta, beste egoera batzuetan, polizia gutxietsi egiten dituztelako indarkeria psikologikoko

edo xantaia emozionaleko kasuak, edo trufa egiten dutelako horietaz. Sentsibilizazio-kanpainak ere falta dira, eta hala salatu du Elkartasun Sozialerako Zentro Nazionaleko zuzendariak, Margarita Kelesisek: “Eskolan informazioa eman beharko litzaieke umeei, bai eta gurasoei ere, komunikabideen bitartez, gure gizartean tabua den gai horri buruz”.

Etorkinen egoera ere kezagarria da ekintza-taldeentzako. Nolanahi ere, lege arloko laguntzaz gain elkartasun-egiturek beste zenbait bitarteko ere erabiltzen dituzte baliabiderik ez duten atzerritarrak mugimendu sozialera biltzeko. Arestian esan dugunez, ekimen horietako askok aintzat hartzen dituzte kolektibo horren beharrianak (osasun-arretako oinarrizko zerbitzuak eta grezierazko eskolak, bi adibide soil aipatzearen) beren lana antolatzerakoan. Beste mugimendu eta talde batzuk, berriz, KEERFA adibidez, etorkinen parte-hartzeari eta borondateari esker iritsi dira, neurri handi batean, egun direna izatera. Talde horien lanak ekarri du arrazakeriaren aurkako mezua iritzi publikoan sendotu izana, nahiz eta informazio mailan oraindik ere bide asko dagoen egiteko. Nolanahi dela ere, ekintza kolektiboko gune horiek mugiarazten dituzten printzipioen xedea da krisiak kaltetutako guztiak elkartzea, indarrean diren politiken aurka jarduteko; ankerkeria sozialera daramaten neurriak errazago ezartzeko helburuarekin herri xehea manipulatu eta zatitu besterik egiten ez duten politiken aurka, hain zuzen.

4. Lurraldearen aldeko borroka

Greziako ingurumenean gertatu den hondatze larria izan da austeritate-politiken ondorio okerrenetako bat. Murrizketen uholdeak lurperatu egin zuen “Funts Berdea” zeritzona, aurrekontuaren %90az gabetu baitzuen, eta, orobat, eskumenik eta baliabiderik gabe utzi zuen Ingurumen Ministerioa. Exijitutako salbuespen-neurriek bultzaturik, kontrolik gabe saldu zituzten lursail publikoak, normalizatu egin zen babestutako guneetan legez kanpoko eraikuntzak jasotzea, ugaritu egin zen ikatzaren eta beste zenbait erregai kutsatzaileraren erabilera, alde batera utzi zituzten baimenekin eta ingurumen-eragina neurtzeko ebaluazioekin loturiko prozedurak, ahuldu egin zen basogintzari loturiko legedia eta bultzada eman zioten eraikuntza berriko hirigintza-proiektuei.

Hainbat erakundek, besteak beste World Wildlife Fund (WWF) fundazioak, behin eta berriro kritikatu dute Greziari exijitutako ekonomiaren doitze-programak ez duela betetzen ingurumen arloko Europako legedia, eta baliabiderik gabe uzten dituela hainbat sail; esate baterako, suteek milaka hektarea suntsitzen dituzte urtero Grezian, eta horren aurka jardun behar duen sailak ez du baliabiderik arazo horri aurre egiteko.

Arazoa ez da soilik ekologia aldetik sentiberak diren pertsonena edo kaltetutako inguruetan bizi direnena, gizarte osoarena baizik; izan ere, munta handiko ondorio sozial eta ekonomikoak ditu hainbat arlotan, besteak beste elikadura-segurtasunean, airearen eta akuiferoen kalitatean eta Estatuaren diru-sarreretan. Huts egiten ari dena ez da natura, huts egiten ari dena da gizartearen barne-egituratzea eta gizarteak ekosistemekin elkar eragiteko duen modua. Alde horretatik, horrela nabarmendu du Daniel Tanuro ekosozialismoaren teorikoak: “Krisi ekologikoa eta krisi soziala krisi bat eta berbera dira: sistema kapitalistaren krisia. ‘Krisi ekologikoa’ adierazpidea nahasgarria da: natura ez dago krisian; gizartearen eta naturaren arteko harremana dago krisian. Klima ez dago krisian, eta klimaren aldaketa ez da, oro har, ‘giza jardueraren’ eraginez gertatu; aitzitik, giza jarduera jakin batzuen ondorio da, historikoki erregai fosiletan oinarritutako jardueren ondorio. Beste era batera esanda, sistema kapitalistaren krisi sakonaren adierazpide bat da krisi ekologikoa”⁵⁷.

Esan dezagun natura ezin dela merkaturatu gizakiok eta biosferak kalterik jasan gabe. Ekonomiak ezin ditu ekoizpena hazteko helburuak abstraktuan finkatu, gizarteak zer beharizan dituen aintzat hartu gabe, desorekak sortzen dituelako eta kalte konponezinak eragiten dituelako naturan. Erabateko makurra da hori, gizakiontzat zein naturarentzat. Gainera, ingurumenaren hondatzeak eta polarizazio sozialak ahuldu egiten dute mugagabeko aurrerapena lortzeko fede itsu hori. Eta ez dezagun ahaztu, mugagabeko aurrerapen hori lortzea dela merkatu libreko sistemaren sorrerako mito nagusia. “Platon eta Aristotelesen garaitik uste izan da pertsonak gai izango zirela bizi diren gizarte hobetzeko, eta pentsamendu arrazionalak (zientifikoak) beharrezko bermea eta oinarria eskainiko zuela hobekuntza horri ekiteko. Alabaina, gaur egun, ekonomiak, ‘gizarte-zientzien erreginak’ irauli egin du egoera:

diskurtso ekonomiko murriztaile hutsa ari da gailentzen eta hedatzen eta, diskurtso horren eskutik, suntsitu egin da gizartearen helburuak birpentsatzeko eta, horrenbestez, gizartea bera aldatzeko aukera; areago, politika ere diskurtso horren mendera eta esanetara geratu da⁹⁵⁸.

Hainbat ekonomialarik, besteak beste José Manuel Naredok, ohartarazi dute arazo ekologikoaren konponbidea natura-ondarea kontserbatzeko eta zaintzeko arau batzuk ezartzea dela, edonor dela ere ondare horren jabea, baina Greziako gobernuak, mezu horiei entzungor eginez, natura ziztu bizian ustiatu eta suntsitzearen alde egin du. Horretan ari dira esparru guztietako enpresak eta administrazioak.

Meataritzaren aurkako borroka-batzordeak

Dena suntsitzeko logika horren paradigma da Calcídica eskualdean, herrialdearen iparraldean, bizi izan den prozesua, meatzeen kontzesioa enpresa multinazionalen esku utzi baitu gobernuak. Aldi berean, bizitzaren eta lurraldearen aldeko borroka eredugarrietako bat ere bada; izan ere, urteak dira meataritzaren aurkako borroka-batzordeek konpainia boteretsuei aurre egiten dietela, eskualde horretako urre eta kobre meategiak ustiatzea beste helbururik ez duten konpainia handiei. Herritarren mobilizazioak babes handia du Grezian bertan eta baita nazioartean ere.

Konpainia handien ustiatze-jarduera horien aurkakoa da gizartearen gehiengoa, eta, horretaz jabeturik, botereak era guztietako neurriak jarri ditu indarrean korrante horri aurre egiteko: hasieran, neurri limurtzaileak hartu zituen (propaganda-kanpainak, kaltetutako herrietan diru-laguntzak eta inbertsioak...), baina pixkanaka, mozorroa kendu eta mugimendua jazartzera eta kriminalizatzerara jo du bete-betean.

Gatazka XX. mendeko 1980ko hamarkadatik dator, baina egiazko aprobetxamendua inoiz ez da gauzatu, hein batean txosten zientifikoek ohartarazten zutelako aurrekaririk gabeko hondamendi ekologikoa gerta zitekeela ustiatze hori burutuz gero (ustiaketaren 317 kilometro koadroetako lurzorua eta ura kutsatzea ekarriko luke horrek eta ezinezkoa litzateke hurbileko herrietan bizitzea), baina, era berean, izugarritzko lege-irregularitasunak eta eskupeko beltzak izan zirelako erauzteko lizentziak eta baimenak ematerakoan. Hala, salaketa, atzerapen eta uzte ugari tarteko, 2003ko abenduan, Greziako gobernuak meatzearen kontrola

bereganatu zuen, aurreko jabearekin, TVX Hellas konpainiarekin, auzibidetatik kanpo akordioa lortuta, 11 milioi euroren truke. Eta ordu eskas batzuen buruan, prezio berean saldu zion berriro Hellas Gold (HG) enpresari, ez aktiboan alde aurreko ebaluaziorik ez lehiaketa publikorik egin gabe. Hiru egun lehenago eratu zen HG enpresa hori, 60.000 euroko kapital sozialarekin, eta gobernuak haren esku utzi zituen meatzea ustiatzeko eskumen guztiak.

Europako Batzordeak 2008an ikertu zuen kontratua, eta hiru urteren buruan ebatzi zuen ez zuela betetzen lehiaren arloko EBko araudia, lehiaketa publikorik gabe itxi zelako eta jabetza merkeegi saldu zelako. Hori dela eta, kalte-ordain gisa HGri 15,3 milioi euroko zenbatekoa eskatzera behartu zuen Batzordeak Grezia⁵⁹. Gobernuak errekurritu egin zuen ebazpena Europako Justizia Auzitegian eta gaurdaino ez da ezer gehiago jakin prozesu judizial horri buruz.

Bien bitartean HGk –Aktor higiezin-talde boteretsuak sortua⁶⁰– Kanadako European Goldfields konpainiari saldu zizkion akzioen %95. Auditoria batek jakitera eman zuen sozietateak merkatuan zuen balioa 400 milioi eurora hurbiltzen ari zela. 2012ko otsailean, Eldorado Gold Corp konpainiak, kanadarra hori ere, bereganatu zuen European Goldfields. Ordurako, konpainiaren tasazioa 2.300 milioi eurotik gorakoa zen, eta enpresaren aktibo handienak Greziako meatzeak ziren; Calcídico mineralen balioa 15.500 milioi eurokoa izan zitekeela kalkulatu zuten.

Hellas Gold enpresak meatze-lizentziak ditu 317 kilometro koadroko eremu baterako. Eremu horretan, berun, zink, zilar, urre eta kobre erreserbak daude, batzuk frogatuak eta beste batzuk frogagarriak. Gainera, kontzesio horrek salbuetsi egiten du konpainia zerga mota oro ordaindu behar izatetik; areago, meatzeen ustiaketaren ondorioz sortutako ingurumen-kalteak direla eta, finantza arloan izan daitekeen betebeharrak eta erantzukizun orotatik ere salbuesten du aurrez. Greziako legearen arabera, oso-osorik enpresarenak dira emandako kontzesioetan dauden mineralak –Estatuak ez du jabetza-eskubiderik horietan–, eta, hori nahikoa ez balitz, erabat debekatuta dago zehaztutako eremuetan meatzaritza-lanak galaraz ditzakeen jarduera oro egitea; horrelakorik izanez gero, Greziako legearen arabera beti ere, desjabetzeak egiteko aukera legoke, eta Greziako bertako nahiz nazioarteko itunen arabera ezarritako babes-neurri oro indargabetzeko aukera.

Multinazionalak aurrera jarraitzen badu bere planekin, balio handiko 300 baso-hektarea suntsituta geratuko dira urtean, 200 milioi tona lur erauziko dira eta 15 milioi metro kubiko ur kontsumituko. Aire zabaleko meategien ereduari jarraituz ustiari nahi dituzte meatzeak; hala, lurra sodio-zianuroz tratatu ondoren eskuratzen dute minerala, baina prozesu horretan hainbat hondakin toxiko sortzen dira, hala nola zianuroa, artsenikoa eta azido sulfurikoa.

Egoera beltz hori aurrean, bertako komunitateak *meatzaritzaren aurkako borroka-batzordeak* deritzenetan antolatzen dira. Eskualdeko herritarrek, gizarte-erakundeek eta hautetsiek osaturiko batzordeak dira, eta, horrenbestez, modu asanblearioan eta demokratikoan, bertako biztanle gehienak daude ordezkaturik haietan. Batzorde horien erresistentzia irrimoaren eraginez, amore eman zuen TVX Gold konpainiak, eta Eldorado Gold multinazionalak ere estualdi franko igaro ditu. Batzorde horien salaketak eta protestaldi etengabeak eta indartsuak ez ezik, hori kontzesioa eta ustiaketa martxan jartzeko izan diren eroskerien, indarkeriaren, xantaien eta ustelkeriaren arrasto nabarmenak. Konpainiak mendiko zonalde zabalak hesitu behar izan ditu txarrantxaz, segurtasun-zaindariak eta trafikoa kontrolatzeko sistemak ezarri behar izan ditu, eta istiluen aurkako eskualdeko unitateak mobilizatu behar izan ditu bere dirutik ordainduta.

2013ko uztailean, multinazionalak iragarri zuen hainbat proiektu geldiarazi zituela, nazioarteko merkaturaren urtearen prezioa amiltzearen ondorioz, eta, berriaz aitortu ez arren, bertako herritarren eta talde ekologisten kontrako jarrera irrimoaren ondorioz. Eskualdeko biztanleen iritziz, legeen urraketa etengabeak eta konpainiaren aurkako salaketa judizialen pilaketak ere eragin dute ustiatze-planen berrikusketa hori. Iragarpen horrek gogortu egin zuen gatazka, eta basoak suntsitzearen eta ibaiak pozoitzearen aurka ziharduen herri erresistentziak inoizko polizia-kanpaina oldartsuenari egin behar izan zion aurre. Errepresioa bortitza izan zen: landa-inguruneetako errepideak blokatuta, atxilotuta masiboak, etxe miaketak, jazarpenak eta legez kontrako entzuketak bertako politikariei eta batzordeetako buruzagiei, eta etika eta lege aldetik beste mila urraketa.

Oldarraldi horrek bizilagunen eta nazioartearen elkartasun-olatu indartsua ekarri zuen. Elizetako kanpakiak ere komunikazio-tresna bihurtu

ziren, istiluen aurkako taldeak zetoze eta atxilotuak askatu zituztela iragartzeko, eta herri batzuetako komisariak hustu beharrean izan ziren, haien osotasuna eta segurtasuna ezin zelako bermatu. Ierissos herriko biztanleek irrimo erantzun zioten polizia-okupazioari, eta argi utzi zuten ez zutela uniformedunik eta kanpotik etorritako langilerik nahi. Izan ere, multinazionalak, halaber, kanpoko langileak kontratatu behar izan zituen meatzeetan jarduteko, eta berehala sortu ziren liskarrak bertakoen eta kanpokoen artean.

Kanpotik ere iritsi zen babesa. Munduko bazter guztietatik iritsi ziren erresistentzia-mugimendu horren legitimotasuna sendotzeko mezuak, baita hainbat politikari eta intelektualen adierazpenak ere. Naomi Klein idazle eta globalizazioaren aurkako ekintzaile kanadarra Skouries herrira joan zen, urrezko meategiaren aurkako gatazkari buruz dokumental bat filmatzeko. Astebeteko egonaldian, herriz herri ibili zen kaltetuen iritzia bertatik bertara jasotzen, eta, horrez gain, Eldorado Gold multinazionalaren instalazioetan eta protestaldietan parte hartzeagatik atxilotutako pertsonak epaitu diren auzitegian ere izan zen Klein.

Finantza-krisi suntsitzailearen aitzakian, Greziako gobernuak justifikazio ezin hobea aurkitu du uste izateko meatzeak irekita Greziako ekonomiak parrastan lortuko zituela etekinak eta milaka lanpostu sortuko zituela. Baliabide publikoen transferentzia basatiaren adibide da meatzeen lursailak Kanadako multinazionalari eman izana; Estatuak, izan ere, enpresa pribatuen esku utzi ditu baliabide publikoak, trukean inolako etekinik jaso gabe, ez orain ez etorkizunean. Eta erantzun errepresibo bortitza ere ohartarazpen garbia da Calcídica eskualdean eta Greziako gainerako lekuetan tinko eusten dioten guztientzat.

Elikadura-burujabetza

Ingurumen arloko bidegabekeriei erantzuteko jardun asko jaso eta aztertu ditu ekologia politikoak; naturako baliabideak osasunerako eta bizitzarako ezinbesteko diren aldetik, baliabide horiek defendatzeko jakinduria partekatzen dute jardun horiek. Elikadura-burujabetzaren eskakizuna da salaketa- eta aldarrikapen-gune horietako bat. Tokian tokiko biztanleek beren elikagaien produkzioaren eta kontsumoaren kontrola bereganatzea, eta elikagai horiek salgai soiltzat –nazioarteko merkatuaren zirkuituetan

espekulazioaren mende dauden produktu soiltzat, alegia- hartzeari utzi eta eskubide bihurtzea, horretan datza, oro har, proposamen hori.

Nekazaritzaren produkzio-ahalmena, produkzio-baliabideen kudeaketa iraunkorra eta gobernuaren aldetik herritarren elikadura egokia bermatuko duten politikak, hiru zutabe horiek uztartzea aldarrikatzen du elikadura-burujabetzaren alternatibak⁶¹.

Greziako panorama nahiko etsigarria da. Nikos Stavropoulos Atenasko Unibertsitateko ikerlariaren arabera, duela 50 urte Grezian zeuden bertako barietateetatik %2 edo 3 besterik ez da salbatu. Bere sailak barietate genetikoan banku bat gordetzen du, baina administrazioan egindako murrizketen eraginez, egoera kaskarrean dago egitasmoa. Hori dela eta, zenbait talde ekologista lanean ari dira bertako nekazaritza-barietateak gordetzeko eta berreskuratzeko, eta bertako haziak zabaltzeko. Hazien bankuak daude hainbat hiri eta uhartetan, eta horiek ere lanean ari dira azken hamarkadetan jasandako hondamendia leheneratzeko asmoarekin. Horrela azaldu zigun Vassilisek, ingeniari zibil gazteak eta *Peliti* (haritza, greziera pontikoan) sareko kideak: “Nire aitona era guztietako haziak zituen eta urrea bezala gordetzen zituen. Baina Grezia EBN sartu zenean, hor amaitu zen mendetako biodibertsitatea. Orain nekazariak Nekazaritza Politika Bateratuaren esklabo dira, diru-laguntzen eraginez hazi mota jakin batzuk erostera behartuta daudelako; merkatuaren arauak produktu jakin batzuk ezartzen dituztelako (kolore, tamaina, itxura...); eta produktu ekologikoen %90 hazi hibridoetatik jaiotzen delako. Gaur egungo nekazariak ere ez dakite betiko moduan lurra lantzen eta landatzen, inoiz ez dutelako egin”.

Peliti sare deszentralizatu bat da, irabazi asmorik gabekoa, Panagiotis Sainatoudik 1995ean sortua. Sare horren misioa da haziak jasotzea, gordetzea eta bertako barietateak hedatzea. Era berean, bertako ganaduaren erregistroaz ere arduratzen da. Gaur egun dozenaka talde ditu Grezia osoan, eta kontaktu ugari mundu zabalean. Talde eta kontaktu horiek hainbat topaketa egiten dituzte urtean zehar haziak trukatzeko, prestakuntza-tailerrak egiteko eta laborantza-moduak hedatzeko. Gainera, haziak bidaltzen dituzte hara eta hona, doan gainera. Urtean 20.000tik gora hazi igortzen dituzte, eta 120.000 nekazarik, zalek eta profesionalak erabiltzen dituzte beren landaketetarako. Vassilisen arabera, azken urteotan izugarri ugari da informazioaren eskaria, eta hirietako baratzeak

eta balkoi eta terrazetako landaketak ere asko zabaldu dira, batez ere ingurumenarekiko sentiberatasun soziala duten gazteen artean. “Uste dut Greziak baduela etorkizuna, eta mentalitatez aldatzeko garaia dela. Orain bada elkartasun-sare bat irizpide ekologiko eta iraunkorren arabera sortua. Beraz, bultza dezagun jendea balkoietan landatzera eta [haziak] bati eta besteari ematera. Egin dezagun banku ireki bat eta bil dezagun aldiro jende gehiago. Hazi horiek bertakoak dira, Akropolia baino zaharragoak, baina bizirik daude”, ziurtatu zuen⁶².

2012ko apirilaz geroztik, *Peliti* sareak ahalegin eskerga egin du Paraneziou udalerrian hazien bilketa antolatzeko. Proiektuaren asmoetako bat da datuen banku bat katalogatzea eta sortzea, eta laginak kontserbazio-baldintza egokietan gordetzea. 2013aren amaieran, kalkulatzen zuten 2.000 barietate zituztela bilduak, horietako batzuk bakarrak edo galdutzat ematen zirenak. Helburua da hazi horiek berriro ere laborantza-soroetara eramatea, landareak garatzeko eta ingurunera egokitzeko prozesuen bidez.

Ekimena gauzatzea erronka handia da; izan ere, sareak ez du baliabide askorik diru, material eta langile aldetik. Dohaintza eta kanpainen bidez eta egiten dituen jardueren bidez eskuratutako funtsak ekoherrien programa batera ere bideratzen dituzte, eta horietan ere bertako barietateekin egiten dute lan. Dirurik tartean izan gabe ondasunak eta zerbitzuak trukatzeko sarea ere bada *Peliti*. Ekimenaren ibilbidea eta filosofia, berez, Greziako ekonomia-krisiaren testuingurutik harago doa, baina zalantzarik gabe krisi-egora katalizatzaile izan da haren jarduerak bideratzeko. Elikadura-burujabetzari buruz sentsibilizazio lan handia egin du sareak, baina bide horretan hainbat oztopo aurkitu ditu, hala nola Nekazaritza Politika Bateratua edo transgenikoak arautzen dituzten lege neoliberalen gogortzea. Aldi berean, ordea, krisiaren eraginez beste dimentsio bat har du *Peliti* ekimenaren lanak eta mezuak, eta, horri esker, sareak aukera izan du munta handiagoko beste proiektu batzuk abiarazteko.

3. zatia.

Teoriatik praktikara

*Nahiz eta haien estatuak eraitsi,
eta beren tenpluetatik egotziak izan,
jainkoak beti bizitzen dira.*

Konstantino Kavafis

K.a. IV. mendearen hasieran, Atenas osatzen ari zen Espartaren aurkako gerra luzearen zaurietatik, eta gogotik saiatu zen aurrez merkataritzan zuen indarra berreskuratzen eta inguruko itsasoetan (Egeo, Bosforo eta Itsaso Beltzean) han eta hemen zituen faktoria eta kolonia ugariak berriro zutitzen. Metropolian, hiritarrak nekazariak edo aberatsak ziren, eta lurrak ematen zuenetik bizi ziren. Aristotelesek etxeko administrazioa (*oikonomia*) esaten zion horri, eta dirua lortzeko administrazioaren ifrentzua zen.

Garai hartan, merkataritzan Europako potentzia nagusietako bat izan arren eta Mediterraneoko porturik garrantzitsuena eduki arren, oparoaldi beteko uneetan ere, 400 artisau baino ez ziren aritzen figura gorrien zeramika preziatuak egiten, eta ez ziren denak hiritarrak gainera, eta Pireon ibiltzen ziren merkatarri gehienak atzerritarrak ziren. Atenastarrek ez zuten merkataritza-zirkuituetan parte hartzen, eta aberatsenek ere kanpoko atzerritarrei dirua uztera mugatzen zuten beren jarduna; hau da, nahiago zuten etekina interesetatik lortu, arriskupeko balizko salerosketetatik edo menturazko espedizioetatik komisiok eskuratutako bano.

Atenas merkataritza-gune handia bazen ere, hiriak interes bakarra zuen: hiritarren biziraupena ziurtatzea. Horren adierazle, zerealen salerosketa arautzeko neurrien eta atzerriko hornitzaileei emandako laguntzen helburua, funtsean, hiria hornitzea zen, eta bertan bizi zirenen beharrianak asebetetzea. Artisauak espezializazio maila handia izatera iritsi ziren, baina horren helburua ez zen produkzioa handitzea, baizik eta lanaren kalitatea hobetzea.

Áticako meatze-ustiategiaren kontzesioak zirela eta, dokumentuen arabera, onuradun asko itzal handiko hiritarrak ziren, jardueraren

politikoagatik edo finantza-baliabideak polisaren zerbitzura jarri izanagatik ezagun egindakoak. Besteak beste, borrokarako barkuak hornitzeko nahiz mertzenarioak ordaintzeko, eta oturuntza publikoak pagatzeko, abesbatzak antolatzeko edo antzezlanak babesteko jartzen zuten dirua hiritar horiek. “Itsasoko merkataritza handia bazterreko jarduera zen artean herritar zibilentzat eta, merkatarri gehienek, bertakoek zein kanpokoek, atzerritarrak izaki, ez zuten esku hartzen hiriaren merkataritza-politika zehazteko erabakietan”⁶³.

Atenasko demokraziak hiriaren edo hiritar guztien intereseko izango ziren salgaiak eskatzen zituen, horien hornitzaileak bilatzen zituen eta soilik horrelako produktuak onartzen zituen: oinarri-oinarrizkoak edo lehen premiakoak, bertako merkatuan salerosteko. Hau da, ez zuen oihal finik, lurrin exotikorik edo artisautza oso landurik bilatzen. Pireoko portuan kobratutako tasa handietatik eskuratzen zuen polisak etekin ekonomikoa. Aristotelesen iritziz, garrantzitsuagoa zen bertako produkzioa eta birbanaketa, kanpoko merkataritzara bideratutako soberakinak lortzen eta etekinak eskuratzen saiatzea baino. Bere ustez, azken ikuspegi hori ez zen berezkoa pertsonengan, eta (etxeko) ekonomia baliabiderik gabe uzteak ekonomia hori desegitea besterik ezin zezakeen ekarri. Eta ohartarazi zuen bultzada ekonomiko isolatuek hortik sor daitezkeen harreman sozialak etetea ekar zezakeela.

Atenaskoak bezala, Europan garatutako merkatuko ekonomiaren aurreko gizarte guztiek beste era bateko printzipioak izan zituzten ardatz beren burua antolatzeko: elkarrekikotasuna, birbanaketa eta etxeko administrazioa, edo hiruren konbinazioa. Antolaketa sozialak, besteak beste, simetria, zentraltasuna eta autarkia ereduak baliatzen zituen eta, hain zuzen, antolaketa horri esker errotu ziren aurrez aipatutako printzipioak⁶⁴.

Mito kapitalistak sinestarazi nahi digu merkatarri banakoek, espiritu ekintzailea izanez gero, tokiko merkatuetatik ekoizpena handitzea eta kapitala metatzea lor zezaketela, lanaren zatiketaren bidez, eta hortik, kanpoarekin trukea izateko jauzia eman zezaketela, baina ebidentzia askok erakusten du mito kapitalista horren gezurra. Izan ere, errealitatea oso bestelakoa da. Merkatuak, betidanik, distantzia luzeko merkataritzaren topagune izan dira, eta gizartearen bazterrean garatu izan da haien jarduna eta ez tokiko ekonomiaren barnean, tradizioz ez baitira loturik

egon tokiko ekonomia eta merkatua. Merkatu globalaren sistema, planetako zoko-bazter guztietara iritsi den sistema, ez da mendez mende munduko merkataritza-sareetan izan diren aurrerapen, handitze eta hobekuntzen berezko bilakaeraren ondorio izan. Aspalddidanik bi eredu izan dira: batetik, *merkatu-gizartea*, kontrol ekonomikoko eredu, komunitatea zeregin laguntzailea izatera mugatzen duena etekina lortzeko ahalegin horretan; eta bestetik, *merkatu soziala*, gizartearen berezko harreman eta ohituren arabera aritu dena eta antolatu dena. Bi ereduek paraleloan egin dute bidea historian zehar, eta bide horrek ez ditu aldatu baten zein bestearen oinarritzko ezaugarriak. Aitzitik, produkzio-sistemaren, eta, horrekin batera, gizarte-erregimen osoaren –Marx eta Engelsek *Manifestu komunista* lanean jasotako hitzak erabiltzearen– etengabeko iraultzak, horrek ekarri du egia lurperatzea, beste garai batzuetan indarren korrelazioa oso bestelakoa izan zela, alegia. Antzinako erregimenetik kapitalismorako ziklo-aldaketa gertatu zenean, eta espekulazioaren aukerak indar bizia hartu zuenean, orduan geratu zen itzalean tokian tokiko ohiturazko arauen sare zabal bat izan zela.

Merkatu librearen sisteman egiturazko leize sakon bat ireki den honetan hasi dira merkatu sozialari lotutako alternatiba asko beren lekua eskatzen eta egungo eredu jasanezin eta agortuaren aurrean merkatu sozial horren lehentasuna aldarrikatzen. Gizarte-harremanen berrantolaketan eta produkzio-jardueraren eta hiriko zein naturako ekosistemaren arteko akordio berrien interpretazioan oinarritzen da alternatiba horien aldarrikapena.

Ongizate-estatuaren aldeko “hitzarmen soziala” pitzatu egin da, eta langileen mugimenduak beste garai batzuetan sortutako tresnak –mutualitateak, laguntza-sareak, ekonomatoak...– berpiztu egin dira horren ondorioz, eta hiritarrak eragile aktibo bihurtu dira berriro⁶⁵. Eta, era berean, azken hamarkadetan barneratua genuen araua –aberastasuna eta enplegua enpresariak sortzen dutelako ustea, alegia–, ezbaian jarri da; izan ere, bestelako kontzientzia bat sortu da langileen artean, eta horrek gaitasuna eta autoestimua eman die, jardun originalen bidez, ekonomiaren martxan eragiteko.

Baina, proiektu ekonomiko alternatiboek zer egin dezakete Grezian gauzatu nahi den paradigma-aldaketa horretan eginkizun funtsezkoa izateko?

Hasteko eta behin, demokrazian sakondu behar dute. Funtsezkoa da berdintasunaren alde diharduten langileek eredu kooperatiboak –izan produkzioarako izan ondasun eta zerbitzuak merkaturatzeko– hezurmamitzeko prozesuetan esku hartzea, batetik, parte-hartzezko demokraziaren printzipioak nabarmentzeko, eta, bestetik, eredu ordezkatzailerak, maila politikoan nahiz lan munduko erabakiak hartzeko prozesuan, zeinen urrun dagoen ikusarazteko⁶⁶. Jardun horiek abiarazteak eta ezartzeak eragina du enpresa barneko erabakiguneetan, noski, baina baita bertako politikaren eremu komunean ere. Egia da horrek bakarrik ez dituela konponduko eskala handiagoan herritar guztiengan eragina duten arazo nagusiak (sozialak, ekologikoak, ekonomikoak...), baina parte-hartzea indartzea ezinbestekoa da eredu alternatibo baten alde aurrerapausoak emateko.

Bigarrenik, ekonomia solidarioak zeregin funtsezkoa izan dezake enpleguaren sorreran eta banaketan. Egun nagusi den ereduak, izainak besteren odola behar duen eran, bizitzeko baliabiderik gabe utzi behar ditu pertsona asko, errentagarritasun-tasa handiak lortu ahal izateko; aldiz, proiektu alternatiboek langile-partaideen jardunean jartzen dute beren konpromisoa, eta produkzioan izan daitezkeen hazkundeak lan-denbora modu bidezkoagoan banatzeko erabiltzea dute helburu. Andre Gorzen iritziz, “lankidetzaren solidarioa da gizartea birkonkistatzeko eta ekonomiaren esferari mugak jartzeko oinarria”⁶⁷. Hori dela eta, proiektu horiek, merkatu sozialaren parte diren aldetik, gizartearen eremua berregokitu behar dute neurri aldetik, ekonomiaren eragina txikiagotuz, eta laneko oinarrien ikuskera berri bat formulatu behar dute. Ildo horretan leudeke honako gogoeta etiko eta politiko hauek: produkzio-prozesuak programatzerakoan krisi ekologikoa geldiarazteko premia; desazkunderen aukera kontsumismoaren aurkako ideario gisa; edota ekonomia alternatiboaren ekimenetan ezinbestekoa den boluntarioen zereginak gizartean balioestea, besteak beste.

«Kontua ez da, ordea, iraute hutsera mugatzea; gure borroka gaiak berritzea lortu behar dugu. Nekazariak lezio ederra eman digute: erreformak eskatzen dituzte nekazaritza ekologikoko programa berriak martxan jartzera igaro dira, lankidetzaren bidean. Aurrean dugun eginkizunik premiazkoena da mundu berri bat asmatzea eta gaur egungoa ordezkatzeko; izan ere, egungoak egin du berea».

Josep Fontana.

El futuro es un país extraño.

Hitzak, besterik gabe, ezingo gaitu salbatu

Roque Dalton

1. Tokiko merkataritza eta truke alternatiboak

Produktuen eta zerbitzuen merkaturatze- edo truke-ekimenen garapena haiek sortu dituen mugimendu soziala sendotzearekin eta dibertsifikatzearekin batera gertatu da. Krisia hasi aurretik jardunbide horietako batzuk indarrean zeuden arren, egiturak gutxienekoak ziren eta jarduera oso mugatua zen. Gaur egun, bazar libreak, autokontsumoko taldeak, trukeko elkarteak edo denbora-bankuak herrialdeko geografia osoan hedatuta daude, eta milaka pertsona ari da haietan lanean. Kasu askotan, gainera, tokiko beste ekimen batzuk dinamizatzeko lanetan sartuta daude pertsona horiek.

Truke kapitalistaren logika ekonomikoari muga jartzeko erabakia dela eta, dirurik gabe funtzionatzen duten dendak sortu eta trukeko unitateak edo moneta sozialak jarri dituzte zirkulazioan. Trukeetan erabilera-balioa bultzatu eta toki mailan ekonomia leheneratzen laguntzen dute unitate eta moneta horiek.

Skoros Atenaseko Exarjia auzoan dagoen doako bazarra da. Ekonomia inklusiboa eta bizimodu alternatiboa bilatzeko lana zela eta, beste "kontsumo" modu bat esperimendatzen hasi zen: elkartasunerako eta dirurik gabeko trukeerako tokia. Lokalean liburuak, diskoak, arropa, etxetresna elektriko txikiak eta altzariak utzi edo hartzeko aukera dago. Produktu guztiek diru beharrik gabe zirkulatzen dute bazarrean, eta horri esker, talde antolatzailearen ustez, jendeak beste pentsaera bat izaten du "erosteko" ekintzaren aurrean. Erabileraren balioa bultzatzen dute eta

objektuen trukeek beti diru-transakzioen mende egon behar dutela dioen eskemaz askatzen dira. Ez gara karitateaz hizketan ari (sustatzaileek azaldu zigutenez); ekonomia sozialeko ekintza eta erresistentzia sortzaileko proposamena da, eta kontzientzia antikontsumista sendotzea du helburu. Nancy da taldeko gazteenetakoa bat. Bere ustez, "funtsezkoena erabilera-balioa da. Guztiak du bere balioa, baina ez prezioa, eta gure proposamena onura sozialak sortzea da, eta ez moneta-onurak. Baina beti ez da erraza izaten; izan ere, jendearen pentsamoldean nolabaiteko erresistentzia dago, eta egoera oso zailetik gatoz: jendea ez dago partekatzen ohituta, kontsumitzen baizik". Bazarrak batzarraren bidez funtzionatzen du. Hogeia lagun inguruk hartzen du parte batzarrean eta haiek arduratzen dira lana antolatzeaz eta lokala mantendu ahal izateko borondatezko ekarpenak bilatzeaz.

Harreman ez-kontsumistak bultzatzeko ideia bera topa dezakegu herrialdearen erdialdean dagoen Volos hiriko Truke eta Elkartasun Sarean (2008an sortu zuten). Sustatzaileetako batek, Jristos ingeniariak, honela azaldu zuen: "gure ekimena ez zuen krisi ekonomikoak eragin; arrazoi nagusia gure balioak aplikatzeko eta egungo sistema ekonomikoa aldatzeko beharra izan zen. Horri aurka egiteko asmoz sortu genuen Sarea, eta truke ekonomikoko modu alternatiboa dela esan dezakegu"⁶⁸. Proiektuaren beste sortzaile batek, Marita Hupis-ek, proiektuaren printzipio errektoreak azaldu zizkigun: berdintasuna, parekotasuna, gardentasuna, elkartasuna eta partaidetza. "Kide guztiek, berdintasunez, erabakitzen dituzte aldian-aldian egiten ditugun batzarretan Sarearen funtzionamenduarekin lotutako gaiak. Erabakiak kolektiboak dira eta bereziki ekimenaren izaera soziala azpimarratzen dugu. Gainera, lortu nahi dugun gizartea eratzeraz bideratuta daude". Maritak, Argentinan eta Uruguain duela hamarkada bat baino gehiago garatutako esperientzien eragin handia zuenak, Sarearen indargune nagusia honako hau zela uste zuen: toki mailan (Volosek 100.000 biztanle eskas ditu) erraza da ekimenean parte hartuko duten guztiekin konfiantzazko loturak egitea eta zuzeneko harremana izatea.

Oinarrizko ideiarekin abiapuntua produktu eta zerbitzuak inolako monetarik erabili gabe trukatzeko dituzten trukeko komunitateen esperientzia ugariak izan ziren. Volosen kasuan, eredia hobetu egin zuten: horretarako, truke-moneta sortu zuten, TEM (Tokiko Unitate

Alternatiboa grezieraz) delakoa, eta, sistema informatiko aurreratua ere prestatu zuten, funtzionamenduari dagokionez soil a baina emaitzetan eragingarria.

Norbait Sareko partaide bihurtzen denean, kontu-zenbaki bat esleitu eta 300 TEM ematen zaizkio (1 TEM 1 euroren baliokidea da salmentarako balioa ezartzeko garaian erreferentzia sinbolikoa izateko bakarrik). Horrela, produktu edo zerbitzuak erosi edo saltzeko hasiera errazten da. Truke kopuru handiena itxura tradizionala duen azokan egiten da larunbatetan, baina diruaren erabilera baztertuta egoten da. Eskaintza zabala egoten da: fruta, barazkiak, arropa, liburuak, artisautza, baina baita gailu elektrikoak eta iturgintzako materiala ere. Gainera, elkartearen webguneak ohiko merkataritza-ordutegian, aste osoan, TEMean egindako ordainketa onartzen duten profesionalen (sendagileak, irakasleak, elektrikariak eta abar) zein Sarean sartuta dauden udalerriko establezimenduen (optikak, tailer mekanikoak, okindegiak, harategiak eta abar) zerrenda osoa eskaintzen du. Webguneak, gainera, kide bakoitzak behar duena eskatzeko edo eskaintzeko iragarkien atala ere badu. Sistema ekonomiko alternatibo hori 2.000 lagunek baino gehiagok osatzen du dagoeneko eta kopurua goraka doa etengabe.

Interneten erabilerak asko erraztu du trukea eta, batez ere, zordunketaren kontrola. Jristos, software librearen jarraitzaile sutsua, izan da sistema informatikoa garatzearen arduraduna. Gainera, kode irekiko programei esker, neurrira diseinatu dute sistema hori. Funtzionamendu aurreratua dela eta, Ingalaterrako Bankuaren aitortza jaso du sistemak, transferentziak egiteko modua eta segurtasuna direla eta. Internet bidezko edozein banku baino hobea eta bizkorragoa da. Gainera, saltzaile eta erosleen arteko mugimenduak une berean idazten dira komisio eta atzerapenik gabe, eta erabiltzailearen kontuan 1.200 TEM arteko zorpekoa baimentzen du. TEMA fisikoki existitzen ez denez, ordainketa hiru eratan egin daiteke: segurtasun-marka duen taloia erabilia (banku-txekeak bezalaxe), Internet bidez transferentzia eginda eta bere sistema nagusiaren bidez: SMS soil batekin. Agindu-emaiaren eta onuradunaren zenbakiak eta zenbatekoa dituen mezua bidalita, sistemak berehala itzultzen ditu transferentzia baieztatzeko mezua, eta egindako eragiketaren ondoren kontuan izango duten saldoa erakusten dio bakoitzari.

Trukeen bolumena oraindik oso handia ez bada ere, merkatuko larunbat batean 4.000 TEM baino gehiagoko zenbatekoa gaindi dezakete. Elikagaiak, fruta eta barazkiak dira gehien eskatzen dituztenak, baita zerbitzu profesionalak ere (iturgintza, abokatuak...), alde handiarekin gainera. Edonola ere, "garrantzitsuena jendeak elkar ezagutzea eta elkarrekiko konfiantza izatea da. Sarea garrantzitsua da, baina zuzeneko harremana oinarritzkoa da", azaldu zuen Jristosek.

Emilia, 47 urteko zeramikariak, azaldu zigunez, "hasierako laguntzarekin, fruta eta azukrea erosi ahal izan nituen gero larunbatetan saltzen ditudan marmeladak egiteko". Alexandrak, aitarekin batera, oilategian dituen oiloen arrautza freskoak saltzen ditu. "Hasieran gehiago kostatzen zitzaigun elikagaia eurotan ordaintzen genuelako, baina orain TEMetan saltzen duen animalientzako pentsuen hornitzaile bat aurkitu dugu". 25 urteko gazte horren ustez, ekimena "gauzak dirurik gabe trukatzeko filosofia da. Ez nago euroaren aurka, gauza batzuk ordaintzeko behar dut (azaldu zuen), baina, ahal den neurrian, ez erabiltzen saiatzen naiz. Nahiago dut TEMA, edonork erabil dezakeen zerbeit delako; euroa lan egiten dutenek bakarrik dute". Gainera, uste sendoa du honetan: "TEMarekin aukera asko dituzu eta modu ugaritara eskura ditzakezu, zuk erabakitzen duzu. Denok dugu emateko edo eskaintzeko zerbeit. Gauzak aldatzeko aukera ona da eta, nolabait, aldaketa iraultzailea ere bada".

Erakundearen hazkundeari esker, Tesaliako Unibertsitateak utzitako instalazioetan "zainketen zentroa" sortu ahal izan zuten. Bertan, kontsulta medikoak, naturopatak, masajistak eta, oro har, osasun arloko terapia alternatiboak eskaintzen dituzte. Instalazioak mantentzeko eta zaintzeko lanak, kafetegi-zerbitzua, administrazioko lanak, lan teknikoak edo jarduerak prestatzeko lanak direla eta, hainbat lan-orduak sortzen dira (TEMetan ordaindutakoak) eta horiek interesa izan dezaketen talde irekiek hartzen dituzte beren gain; Sareko kideak partaide diren talde irekiek, hain zuzen.

Beste moneta sozial batzuekin gertatzen den moduan, TEMak ez du interesik sortzen eta ezin daiteke harekin espekulatu; izan ere, trukeak errazteko bakarrik erabiltzen da. Baina, aldi berean, moneta osagarri gisa erabil daiteke, hirian era guztietako saltoki ugaritan ordainketa partziala egiteko tresna gisa onartzen dutelako. Gutxienez dozena bat hiritan daude zirkulazioan moneta alternatiboak nolabaiteko arintasunarekin; produktu

edo zerbitzuen eskaintza handi samarra eskuratzeko aukera ematen dute moneta horiek. Dena den, hiri txikietan lortu da funtzionamendu onena.

Atenasen, Denbora Bankua izenekoa 2011tik dago indarrean. Laneko guneak auzoetan zabaldua daude, baina haien eragin soziala eta hedapena oraindik bazterrekoa da. Erakunde hori suminduek Syntagma plazan egindako kanpaldiaren ondoren sortu zen auzoetako batzarren arteko truke-sare gisa (2011ko udan ugalduta ziren batzarrak). Orain arte, 2.000 lagunek baino gehiagok egin du bat proiektu horrekin. Helburua pentsamendua aldatuta mundua eraldatzea eta, denbora "moneta" bihurtuta, era guztietako zerbitzu eta ezagutzak zabaltzea da.

Kasu batzuetan parte-hartzaileak arazo ekonomikoak direla eta dituzten gabezia batzuk arintzeko asmoz taldera gerturatu izan diren arren, motibazio ohikoena beste bat da: krisiaren aurreko urteetan Greziako gizartearen nagusi zen kontsumo konpultsiboaren aldean beste bide alternatiboak bilatzea eta zeregin horretan lagundu ahal izateko zirkulu soziala izatea. Printzipioen adierazpenean jasotzen denez, hauexek dira ekimenaren proposamenak eta helburuak: "gure gizarteak bizi dituen urrutzearen, individualismoaren eta krisiaren aurka borroka egitea elkartasuneko modu berriak sortuta", eta, era berean, "gure bizitzak hobetzeko trukeko eta gizarte mailako harremanak ezartzea; harreman horietan, dirua ez litzateke tartean izango eta pentsamolde individuala eta kolektiboa aldatzeko lan egingo genuke norberaren mesedetan eta ez merkatuen mesedetan".

Posible eta beharrezkoa den beste mundu horretarako oinarriak (egin nagusi den sistemari kontrajarrita dauden printzipio eta balioen arabera) finkatzeko behararen inguruan bat datoz asko eta asko. Erresistentziako tresnak berritu beharra daude Josep Fontanak iradoki duen moduan, premia handieneko lanari aurre egin ahal izateko; hau da, pixkanaka egungoa ordezkatzen joango den mundu berria asmatzeko. Horretarako modu kolektiboan egin behar da lan auzo edo hirietako egitura soziala elkartuz, baliabide eta ezagutzak emakumeen, langabetuen edo elkartasuneko elkarrekin edo tailer txikiekin, eta erregimen kooperatiboan sortutako kafetegiekin, liburu-dendekin edo elikagaien dendekin partekatuz. Era batera edo bestera, guztiek hartu dute parte arlo ekonomikoan gertatu diren jardunbide sozializatzaileen eta autogestiokoen benetako leherketa bideratzeko. Eta hori guztia krisi

ekonomikoaren, sozialaren eta historikoaren testuinguruan gertatu da; egoera horretan sortu eta ugaritu dira gaur egun indarrean diren ekonomia sozialeko ia ekimen guztiak.

*"Gizakia askeago egingo duen egiazko edozein saiakera aurre-
ra eraman ahal izateko, beharrezkoa da produkzio-esfera
demokratizatzea eta, horrenbestez, lanaren eta kapitalaren arte-
ko harremanen testuingurua demokratizatzea; hau da, batzuek
lan-harremanak eta beste batzuek klaseen borroka esaten dio-
ten hori demokratizatzea".*

Moisés López

*"Kooperatiben oinarrian dagoen arrazionaltasuna honako hau
da: komunak dituzten behar eta interesak asebate ahal izateko
persona talde batek duen beharra. Kooperatibetan ez ezik,
horrela da autogestio berezko edozein moldetan. Talde
horretako kideek interes kolektiboak partekatzen dituzte eta
horiek, neurri batean, haien banakako interesen parekoak dira;
eta ekintza kolektiboari esker dute aukera interes horiek eragin-
garritasun handiagoz asebetetzeko. Horrez gain, kide guztiek
(gizaki guztiek) eskubide berak dituzte erabakiak hartzeko
unean parte hartzeko, eta, ziurtasun horri esker, kudeaketa
demokratikoa dute kooperatibek. Ez du soilik erabakitzen nork
zuzenduko duen eta soberakinak nola erabiliko diren; produk-
zio-prozesua nola antolatu ere erabakitzen du: zer produzitzen
den, nola eta zertarako".*

Camila Piñeiro Harnecker.
Cooperativas y socialismo:
una mirada desde Cuba (2011)

2. Kooperatibismoa eta autogestioa

Kooperatibei buruz, honela zehazten da Greziako Konstituzioan: "edozein eratako kooperatibak [...] Estatuak kontrolatzen eta babesten ditu eta haiei arreta emateko betebeharra du" (12.4 art.). Alabaina, erakunde mota horietarako legezko araudia ez zen iritsi 1979. urtera arte eta nekazaritza-sektorerako bakarrik onartu zuten (ordura arte, 1915eko arauak xedatzen zuten). Hurrengo zazpi urteetan, beste hiru lege onartu zituzten "Kooperatiba zibilei" buruzko 1167/1986 Legea atera zuten arte. Nekazaritzarekin loturarik ez duten jardueretan enpresa sozialak ezartzeko aukera aurreikusten zuen lege horrek (batez ere, produkzioa, kontsumora, logistikara, bankuetara, garraiora eta turismora bideratuta),

eta landa-eremuetan hainbat kooperatiba sortzea erraztu zuen: emakumezkoenak, agroturismokoak eta artisauenak.

1992an, "banku-kooperatiba" izenekoak baimendu zituzten eta 1999an legean beste epigrafe bat gehitu zuten "erantzukizun mugatuko kooperatibak" arautzeko. Arazo psikologiko edo sozial larriak dituzten pertsonak laneratzeaz arduratzen ziren ekimenetarako formula berria zen aipatutakoa, eta haien terapian laguntzeaz gain, autosufizientzia ekonomikoa errazten zuen. Edozein jarduera ekonomiko egin zezaketen arren, enpresa horiek Osasun Ministerioak gainbegiratzen zituen. Azkenean, 4019/2011 Legeak, lehen aldiz, "ekonomia soziala" kontzeptua txertatu zuen Greziako araudian eta honela definitu zuen: "onura kolektibo eta interes sozial orokorrak lortzeko legezko helburuak dituzten erakunde edo elkarte juridikoez egindako ekonomia, enpresa, produkzio eta gizarte arloko jardueren batura"⁶⁹.

Grezian, jardunbide kooperatiboek eta ekonomia sozialekoek garrantzi handia izan zuten iraganean, baina azken hamarkadetan gertatutako faktore negatibo batzuk direla eta (legeri eskasa, funtzionatzeko egitura zurrinak, Estatuaren eta alderdi politikoen esku-hartzea eta beste batzuk), lanean ari ziren nekazaritzako eta merkataritzako kooperatibek erabat galdu zuten eraginkortasuna eta jarduteko gaitasuna. Egoera hobeto islatzen duten datu batzuk ikusiko ditugu jarraian⁷⁰. 2011. urtearen amaieran, Grezian 6.652 sozietate kooperatiba zeuden (haietako % 95,8 nekazaritzakoak) eta 14.983 laguni ematen zieten lana; hau da, enpresa bakoitzeko bi langileri baino zertxobait gehiagori batez beste. Banku-kooperatibak (25 erakunde eta 1.238 langile) eta Farmazialarien Kooperatiben Federazioa (41 sozietate eta 1.500 langile) soilik aldentzen ziren joera nagusitik; izan ere, enplegua sortzeari zein fakturazioari eta funtzionamenduari dagokienez datuak hutsalak ziren joera orokor horretan. Gainerako 210 kooperatibek 945 langile zituzten.

Legea indarrean sartu eta hurrengo hamabi hilabeteetan, 93 enpresa sozialek eman zuten izena Lan Idazkaritzan (haietako erdiak Atenasen zeuden) langileen kolektiboek autoenplegurako aukeratutako formula gisa. Arauan jasotako alde handi bat da kooperatibek enpresa txiki baten ezaugarriak dituztela, baina haien antolaketa eta kudeaketa batzar orokorrak egiten dituela. Gainera, ekonomia sozialeko enpresa berrien beste ezaugarri bat da produktio eta merkaturatzeko egitura berriak

sortzearen aldeko apustua egin dutela. Egitura horiek tokiko ekonomia eta haien lurraldean dauden elkartasuneko sareekin loturak bultzatzen laguntzea dute xede.

Nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizleen artean ere banaketa-bideekin lotutako proposamen berritzaileak sortu dira. Kolektibo sozialen eta udalen laguntzarekin, hamabost egunean behingo edo hilean behingo merkatuak jarri zituzten abian elikagaiak bitartekaririk gabe saltzeko, supermerkatuetakoak baino askoz ere prezio baxuagoan gainera, eta ekoizleentzako irabazi handiagoarekin. Esperientzia lurralde osora zabaldu zen eta eskaintako artikulu kopurua nabarmen hazi zen. Hurrengo urratsean, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko komunikazio-bidea finkatu zuten. Horretarako, webguneak sortu zituzten, hurrengo topaketetarako datak, eta prezioei eta produktuei buruzko informazioa aurkeztu ahal izateko. Aldi berean, kontsumitzaileek eskariak egin ditzakete Internet bidez edo merkatuak kudeatzeaz arduratzen diren udaleko bulegoetan⁷¹. Orain arte, azken etapa establezimendu handien irekiera izan da; bertan, ekoizleek, kooperatibako erregimenean eta ohiko merkataritza-ordutegian egiten dute lan, eta produktu fresko eta ontziratuaren aukera zabala eskaintzen dute, batez besteko etxe bateko beharrak bete ahal izateko bezain zabala.

Merkaturatzeko metodo berrien sorrera horren aldaera bat da, Tesalia-Pieriako abeltzainen kooperatibak asmatutakoa. Erakunde hori 2011ko legeari esker sortu zen, hain zuzen ere. Sortu zutenetik, bitartekariak desagerrarazteko eta esnea kontsumitzaileei zuzenean eskaintzeko modu errentagarriak bilatu ditu kooperatibak. Kooperatibista gazteenetako batzuen ustez, krisiak ekoizlearen eta kontsumitzailearen arteko harremanak berriro definitzera behartzen du. Azkenean, Larissa udalerrian, eskualdeko hiriburuan, Europako herrialde batzuetan indarrean zegoen eredia aplikatzea erabaki zuten: esne freskoa, kontserbazio-egoera ezin hobean, hornitzen dute eguneko 24 orduetan freskagarrientzako erabiltzen diren antzeko makina banatzaileen bidez.

Lortutako emaitzak aurreikuspen guztiak hautsi zituen. Hasierako lau salmenta-puntuak ezin izan zieten erantzun eskari handiari eta bezeroek ezarritako erritmoari. Ilara handiak sortzen ziren eta berriro betetzeaz arduratzen zirenek ezin zioten erantzun makinak berriro betetzeko lanari.

Handik gutxira, salmenta-puntuen kopurua ugairu (2014ko maiatzean bederatzi ziren) eta birkarga-sistema hobetu behar izan zuten.

Esne freskoa goizero jaso eta hiriko makinetan banatzen dute, erabat ziurtatutako instalazioetan pasteurizatu eta handik ordu gutxira, kanpoko giroarekin loturarik izan gabe. Kontsumitzaileek litro erdia (0,50 zentimo) edo litro bat (1 euro) hartzeko aukera dute, merkatukoa baino nabarmen txikiagoa den prezioan eta askoz ere kalitate hobean.

Kooperatibak 102 abeltzain ditu eta abeltzain horiek egunean 130 tona behi-esne fresko inguru sortzen dute (Estatu osokoaren % 10) eta Greziako esne-industria gehienetara hornitzen dute⁷².

Merkaturatze alternatiboko beste eredu kooperatibo bat da Tesalonikako Bios Coop supermerkatua (kasu horretan, kontsumitzaileek sortu zuten). Horren helburua da nekazaritzako kooperatiba edo ekoizle independenteetatik (baina baldintza ekologiko eta sozial batzuk betetzen dituztenak) iritsitako kalitate handiko produktuak arrazoizko prezioetan eskaintzea. Ia 500 bazkidek eginiko 150 euroko ekarpenari esker saltoki bat jarri zuten martxan, eta gaur egun 4 lagunek egiten dute lan bertan. Saltokia modu asanblearioan zuzentzen dute bazkideek. Zeregin ugariak egiteko 8 lan-eremu dituzte eta boluntario ugariak hartzen du parte lan horietan: supermerkatu bateko zereginak, prestakuntzako, hedapeneko eta ekonomia sozialeko beste elkarte edo enpresa batzuekin egindako lankidetzako lanak, esate baterako.

Bios Coopek pestizidarik eta genetikoki aldatutako organismorik gabeko elikagaiak aukeratzen ditu epe luzera begira tokiko ekoizpen ekologiko lokala prezio baxuetan (bitartekaririk ez izatearen abantaila) sendotzeko asmoz. Kontsumitzaile gisa, elikagaien kontrola eskuratu nahi dute, etekinari uko eginda, kalitatea eta kostua hobetzeko. Prezio baxuen bermea ez da soilik kooperatibaren bultzatzaileek hornitzaileekin harreman zuzena dutelako; aitzitik, kooperatibak irabazi-asmorik ez duela ere bada. Establezimenduaren funtzionamendu-gastu urriak eta soberakinak (baldin badaude) proiektuan berriro inbertitzea, horiek dira kalkulaturako irabazien oinarriak. Hirugarren ezaugarria eskaintzaren aniztasuna da. Izan ere, "Greziako Elikagaien Kooperatiba" izenekoarekin elkarlanean (Estatuko elikagaien sektoreko ekoizleen aukera zabala bateratzen du kooperatiba horrek), supermerkatu bateko apaletan topa ditzakegun ohiko elikagai guztiak eskain ditzakete.

Parametro horien arabera, baina maila apalagoan, auzoko beste hainbat saltoki topa dezakegu. Haietan, bultzada kooperatiboak helburu hauek izan ditu: elikagai ekologikoen eskaintza zabala eskaintzea prezio baxuetan, kontsumitzaileen interesari lehentasuna emanez, Bios Coopen kasuan bezalaxe; bazkideentzako lan-irteerak sortzea langileen ekonomia edo lan arloko onurak lehenetsiz, Syn Aloisen gertatzen den moduan.

Kooperatiba 2011n hasi zen lanean Chiapasetik iritsitako kafea eta bidezko merkataritzako beste produktu batzuk salduz (kakaoa, tea eta espezieak, adibidez). Bi urte eskasean, kafe-salmentak (2013an, 17 tona iritsi ziren) eta Grezia osoan zerbitzatzen dituen denden eta tabernen kopurua bikoiztu ditu. Gainera, katalogoa ere ugaritu egin du Estatuko ekoizleen eta kooperatiben artikulua berriekin; besteak beste, detergenteak eta kosmetiko naturalak eskaintzen ditu gaur egun.

Syn Alois mugimendu zapatistan oinarritu zen lana antolatzeko eta lanean hasteko. Ez dago nagusirik eta guztia batzarrean erabakitzen dute; haietan diseinatzeko dituzte funtzionamendu-estrategia guztiak. 6 bazkide-langileak dira kooperatibaren bilakaera ekonomikoaren arduradunak, baina ideiak zirkulatzeko eta ezagutzak trukatzeko Atenaseko erdigunean dagoen espazioa eskaintzen duen ekimena ere atzean du. Lokal zabal eta garden hori topaketa eta jardueretarako zabalik dago, proiektu berriei sortzen laguntzeko itxaropenarekin.

Autokudeatutako kooperatibaren eta mugimendu politiko aldarrikatzailearen erdi-bidean dago *Kinisi 136* (136 Mugimendua). Tesalonikako Ur eta Saneamendu Enpresa (EYATH) pribatizatzearen aurkako herritarren plataforma da *Kinisi 136*, eta horren proposamena da enpresa hori modu sozialean kudeatzea, barruti bakoitzeko kooperatiben bidez. Estatuko enpresa hori enkantera ateratzean izango lukeen balioa zerbitzua ematen dien kontagailu kopuruaren arabera banatzen dator izena. Erabiltzaile bakoitzak 136 euroko ekarpena egingo balu, herritarrek EYATHko kudeatzaile bihurtu ahal izango lukete. Auzoetako eztabaida luzeen ondoren, suminduen mugimenduaren testuinguruan, eta enpresako langileekin eta hiriko beste erakunde batzuekin koordinatuta, 2012ko udan erabaki zuten enpresa erosteko aukerak eragotzi egingo zuela enpresa-interesek urarekin espekulatzeko edo osasun publikoa eta ingurumena arriskuan jartzea. Eta dagoeneko beraiena zen zerbaitengatik ordaindu behar izatearen kontrako iritzi batzuk egon ziren arren,

governuak pribatizazio-prozesua abiaraziko zuen legea onartu zuen azkenik, eta horrek behin betiko bultzada eman zion proiektuari.

Ordutik, *Kinisi 136k* jarduera gogorra garatu du bi aldeetan. Mugimendu politiko gisa betetzen duen rolari dagokionez, kideek ondasun publikoak pribatizatzearen aurkako edo ura ondasun sozial gisa kudeatzeari buruzko nazioarteko topaketa ugaritan hartu dute parte. Horrez gain, informazio-ekintzak, ludikoak eta aldarrikatzaileak egin dituzte ura gizakiaren oinarrizko eskubide gisa aldarrikatzeko (eta ez merkatura daitekeen salgai gisa). Bestalde, mobilizazioko kanpainak, sinadurabilketak edo erreferenduma egin dituzte. Azken hori udal-hauteskundeetan lehen itzulian egin zuten, 2014ko maiatzaren 18an, eta enpresa publikoak pribatizatzearen aurkako botoak % 98 izan ziren.

Antolaketari dagokionez, aldiz, auzo mailan kooperatibak eratzen eta garatzen egin dute lan. Horiek arduratuko dira proiektura ahalik eta herritar gehien biltzeaz. Batzar horien bidez modu garden eta demokratikoan aukeratuko dute EYATH kudeatzeaz arduratuko den erakunde zabal eta ordezkatzailea. Gaitasun eta zintzotasun handiko pertsonak osatuko dute erakundea, eta batzar orokorraren aurrean aldi-aldi kontuak eman beharko dituzte. Era berean, beren postuetatik kendu ahal izango ditu batzar orokor horrek. Kooperatibek, kideen zuzeneko parte-hartzea ez ezik, erabakiak hartzea erraztuko duten enpresa-plangintzarekin edo -kudeaketarekin lotutako ezagutzak hedatzea eta sendotzea ere bermatuko dute. Kooperatibak irabazi-asmorik gabeko erakundeak dira eta hauek dira haien aitortutako printzipioak: "ura ematea etxe eta enpresei, kalitate handia, prezio baxuak, ingurumenaren babesa, funtzionamendu demokratikoa eta justizia soziala bermatuta". Horren arabera, EYATH erakunde publiko bihurtuko litzateke, eta zerbitzu sozial gisa jardungo luke, ez enpresa gisa.

Proposamenaren aurka azaldu dira modu argian gobernu eta prentsa-enpresa nagusiak. Ahal zuten neurrian, *Kinisi 136ren* berri ematea saihestu eta haien aldarrikapenak ezkutatu dituzte. Greziako estatuak, EYATHren % 72ren jabeak, partaidetza guztiak Estatuko Aktibo Pribatuaren Garapenerako Funtsera (TAIPED, grezierazko laburdura) transferitu zituen. Horixe da troikak eskatutako pribatizazioen programa handiaz arduratzen den organoa. Herritarren mugimenduak lizitazio publikoaren lehen fasean parte hartu ahal izateko baldintza legalak, teknikoak eta finantzarioak

betetzea lortu zuen. Privatizazio-prozesurako aurrez ikusitako etapetan hilabete batzuetako atzerapena gertatu ostean, TAIPEDek iragarri zuen Kinisi 136 lehiaketako bigarren fasetik kanpo geratu zela erabaki horretarako arrazoiak azaldu gabe. Ebazpena ez dator bat ez erakunde pribatizatzailearen printzipioekin ez eta jarduera bideratzeko moduarekin ere. Hori dela eta, sortzeko oinarri izan zen 3986/2011 Legearen xedapenen eta jardueren artean kontraesan gaindiezina dagoela esan dezakegu. Legearen 3. artikulua honako hau xedatzen du: "TAIPEDek interes publikoa zerbitzatzeko egiten du lan" eta, horrekin lotuta, Kinisi 136 da helburu hori duen bakarra aurkeztutako sozietateen artean. 1. artikulua, gainera, honako hau xedatzen du: "Funtsaren helburu bakarra Estatuaren jabetza pribatuko aktiboak ustiatzea da [...] merkatuan nagusi diren baldintzen arabera eta gardentasun osoa bermatuta...". Baina hiru aldiz, TAIPEDek uko egin dio herritarren ekimenak justiziaren aurrean bere eskubideak aldarrikatu ahal izateko dokumentuak emateari. Gobernuak ere ez du horren inguruko azalpenik eman, nahiz eta oposizioko alderdi nagusiak, Syriza ezkertiarak, behin baino gehiagotan egin horren inguruko galdera. Aferaren gakoa, itxuraz, ez da Estatuak salmentarekin aurrez ikusitako dirua lortuko duen ala ez; kontua da irabazlea nor (eta zer helbururekin) izango den zehaztea. Prozesu irregular horretan, onuradun izango dena, itxuraz, Frantziako Suez multinazionala izango da. Munduko hainbat herrialdetan izan dituen esku-hartze polemikoak marka-irudi bihurtu ditu enpresa horrek.

Hala eta guztiz ere, egoera gelditu egin zen 2013aren amaieran eta 2014ko lehen hilabeteetan oraindik ez zegoen argi zer gertatuko zen. Estatuako Kontseiluak (herrialdeko administrazio-auzitegi nagusia) privatizazio-prozesua zuhurtziaz geldiaraztea erabaki zuen EYATHko langileek ezarritako salaketa zela eta (ura ondasun publikoa dela eta, horrenbestez, ezin daitekeela privatizatu argudiatuta) eta Tesalonikako Ustelkeriaren aurkako Fiskaltzak ikerketa ireki zuen Estatuako enpresaren eta TAIPEDen jardunaren gainean, 100 milioi euro baino gehiagoko azpiegituren proiektuak zirela eta. Izan ere, ez dute behar adinako informaziorik eman proiektu horien inguruan nahiz eta Estatuak (% 25) eta Europako Kohesio Funtsek (% 75) finantzatu dituzten. Aurretik ere nahasia zen egoera are gehiago nahasteko, Europako Batzordearen presidenteordeak eta Gai Ekonomikoetarako komisarioak, Olli Rehn-ek,

honako hau adierazi zuen: "Europako Batzordeak onartzen du ura herritarrentzako oinarritzako ondasun publikoa dela" eta, hori dela eta, "ez du kide diren estatuetan inolako politikarik aplikatuko ur-zerbitzuak pribatizatzeke". Horren arabera, gobernuen esku utzi zuen pribatizazioen programaren diseinua eta salmentarako hautatutako ondasunen aukeraketa.

Egindako azken ikerketen arabera, Tesalonikako lau herritarretik hiru daude EYATH saltzearen aurka. Kudeaketa pribatuaren eragingarritasuna zalantzan jarri eta segurutzat eman dute ur-kalitatea okertu eta tarifak igo egingo direla pribatizazioa gauzatuz gero. Bien bitartean, Kinisi 136k honela definitzen du bere jarduera: "teorian zein eguneroko lanean kapitalismoari aurre egiten dion ekintza-bide alternatiboa eskaintzen duen ekonomia sozialeko mugimendua gara. Kooperatibismoa eta ekonomia solidarioa daude plan horren muinean eta hauxe da helburu nagusia: uraren zentzuzko erabilera, soziala, demokratikoa eta irabazi-asmorik gabea"⁷³.

*«Orainalditik etorkizuna eraikitzeke
garatzen dugun prozesua da autogestioa»*

Iñaki Gil de San Vicente

3. Berreskuratutako enpresak

"Berreskuratutako enpresen" kontzeptua Argentinan sortu zen eta lan-munduan politika neoliberalek izandako ondorio kaltegarriekin lotuta dago. Jabeek bertan behera utzitako eta porrot egindako produkzio-konpainiak direla esan daiteke, eta haietako langileak saiatzen dira autogestioaren bidez enpresak berreskuratzen, enplegu-iturria mantentzea helburu nagusi izanik. "Langileek kontrola beren gain hartzen dute eta lanaren prozesua autoantolatzen dute, modu demokratiko eta parte-hartezkoetan. Langile horiek, jokabide horrekin, haustura sortzen dute esfortzuz lortutako objektuekiko eta produkzioak bere gain hartzen dituen forma sozial kapitalistekiko. Herri-kooperatiben esperientziak potentzial sinboliko handia dute; izan ere, elkarren artean lankidetzan eta bazkidetuta lan egiten duten langileek (ezarritako zuzendaritzarik gabe,

hau da, ugazabarik gabe) egunero erakusten dute harreman sozial autonomoak gara ditzaketela”⁷⁴. Zeregina, dena den, zaila da, enpresaburuek porrot egin zuten horretan arrakasta lortzeko ahalegin guztiak egin behar baitituzte langileek. Noski, baldintzak desberdinak dira, bai antolaketari, bai erabakiak hartzeari dagokionez, baina edozein kasutan ere, inguruneko merkatuaren logikan sartu behar da produkzio-unitate berria, eta ingurune horretan parametro kapitalisten arabera jarduten da.

Argentinan berreskuratutako enpresen fenomeno 2002an hasi zen, nazio mailako ekonomiaren kolapsoaren ondoren, eta inplikaturako gehienak konpainia txikiak edo neurri ertainekoak izan ziren, batez beste 30 langile zituztenak. “Egia da langileek beharra zutelako hartu zituztela enpresak, ez ideologiagatik, eta lanpostua babestea zutela berehalako helburu. Horrekin lotuta, enpresa ixteko edo husteko egoeraren aurrean defentsa-jarrera hartu zuten. Baina lantegiak hartu ostean, politizatuen zeuden langileek, batzarretan, ugazabarik gabe produkzioa eta salmentak antolatzea proposatu zuten”⁷⁵. Handik hamar urtera, Hego Konotik Egeoko kostaldera eraman zuten adibidea, Tesalonikan Viomijanikí Metaleftikí (Vio.Me) eraikuntzarako materialen enpresara, hain zuten.

Vio.Me aitzindaria izan da Grezian, porrot egin eta bertako langileek hartutako enpresen artean, eta hasierako unetik Argentinako aurrekoen eragin argia jaso dute, ibilbide labur harekiko paraleloan. Lalo Paredek, Argentinako Berreskuratutako Enpresen Mugimenduko kideak, Greziako langileei bisita egin zien oraindik ere zer egin eta nola egin eztabaidatzen ari ziren garaian, eta eraman zien esperientziak eta adoreak ezbaian zeudenak konbentzitu zituen. Handik hilabete batzuetara, Argentinako beste ordezkari batzuk gonbidatu zituzten jardunaldietan eta topaketetan parte hartzeko, eta laguntza eta bizipenak partekatzeko. Baina, gainera, atxikimendu-adierazpenak hegoko lurraldeetan ere izan ziren. 2013ko ekainaren 26an, Vio.Me enpresarekiko nazioarteko solidaritate-jardunaldian, Bauen Hoteleko, Brukman enpresako eta Chilavert inprimategiko ordezkariak (enpresa horiek guztiak autogestionatutako kooperatibak dira, borroka-ibilbide luzea dutenak), Buenos Airesen, Greziako Enbaxadan, dokumentu bat aurkeztu zuten. Dokumentu horretan, Atenaseko gobernuari eskatu zioten “Vio.Meko langileek lan egin, produktuak ekoitzi eta saldu ahal izateko berme osoak” eman zitzala.

Dokumentua berreskuratutako dozenaka enpresa eta langilek babestuta zegoen⁷⁶. Handik egun gutxira aurkeztu zuten “El movimiento de autogestión en Argentina: empresas recuperadas y movimiento de trabajadores desocupados” (Autogestioaren mugimendua Argentinan: berreskuratutako enpresak eta lanik gabeko langileen mugimendua) liburua, Mario Hernándezena eta Buenos Aireseko Topía argitaletxeak argitaratutakoa. Bertan, kapitulu bat Greziako enpresei eskainita zegoen.

Beste kasu askotan bezala, Vio.Meren istorioak finantza-arazoak larriagotu ziren heinean hartu zuen garrantzia. Orain ez du garrantzirik 2009an eta 2010ean Philkeram-Johnsonen filial honek (Greziako material zeramiko eta azulejueen fabrikatzaile handiena) 2,7 milioi euroko balioa zuten irabaziak izatea, eta bertako produktuak Dubaiko aireportua egiteko erabili izana. 2010 amaieran, Grezian zor subiranoaren krisia hasi zenean, negozioaren kudeaketa desegiten hasi zen eta handik hilabete gutxira, 2011ko maiatzean, enpresak ordainketa-etendura iragarri zuen⁷⁷. Une horretatik aurrera, langileek beren lanpostuak mantentzeko eta soldatak berriro jasotzeko ahalegin guztia egin zuten. Enpresaren akzioak erosteko proposamena egin zuten langileek (argi utzi zuten ez zituztela beren gain hartuko aurreko administrazioak pilotutako zorrak), baina jabeek baztertu egin zuten proposamen hori. Hurrengo ukoa Lan Ministerioak egin zuen; izan ere, finantza-laguntza eskaerari uko egin zion, nahiz eta beren negozioa hasi nahi duten langabeei zuzendutako programak izan. Aipatutako ministerioko arduradunek agindutako 1.000 euroko larrialdi-laguntza ere ez zuten eman, Ogasunak ez ziolako oniritzia eman. Era berean, hainbat eragilek legezko oinarri bat sortzeko eskabidea egin zuten, horren arabera modu asanblearioan kudeatutako lan-kooperatibak sortzeko aukera izateko, baina gobernuak baztertu egin zuen eskabide hori (nahiz eta handik hilabete batzuetara, azkenean, arautu zituen).

Puntu horretara iritsita, langileek pentsatu zuten langabeziaren tragediari (Grezian ia ehuneko 30ekoa da jada) aurre egiteko arrazoizko erantzun bakarra lantegia langileen esku uztea zela, eta bidezko ekoizpen-sistema bat ezartzea, hierarkiarik eta esplotaziorik gabekoa. Estatuak axolagabetasunez hartu zuen proposamena, eta burokrazia sindikalek eta ezkerreko alderdiek ere nolabaiteko hozkeriaz jokatu zuten. Gizarte-mugimenduek baino ez zuten hartu albistea gogo biziz, eta 2002an elkartasun-kanpaina zabala gauzatu zuten, herrialdean bertan eta

kanpoan. Kanpaina horren bidez, lantegia berriz abiarazteko behar ziren funtsak lortu zituzten. Hainbat intelektualek bat egin zuten kanpainarekin, hala nola Naomi Kleinek, David Harveyk, John Hollowayk, Silvia Federicik edo Raúl Zibechik. Baina, gainera, jasotako laguntza ekonomikoaren zati bat Latinoamerikako herri- eta sindikatu-erakundeetatik etorri zen, eta laguntzeko erabaki ugari ere jaso zituzten. Horrek agerian utzi zuen, beste behin ere, lotura estua dagoela ekimen greziarraren eta politika neoliberalen izenean gauzatutako larrutzea lehen eskutik pairatu duten herrialdeen artean. Azkenik, 2013ko otsailaren 12an, Vio.Mek estatistika izateari utzi zion —Greziar astero ixten diren mila enpresetatik bat—, eta paradigma izatera pasatu zen, ekoizpena berrabiaraztea lortu baitzuen biltzar bidezko eta langileek autogestionatutako sistema baten bidez. Ekimena, Greziatik kanpo berritzailea ez bazen ere, pizgarri izan zen toki mailan antzeko egoeretan zeuden langileen kolektiboentzat, eta horiek arreata handia jarri zioten eredu berriaren bilakaerari.

Vio.Meren antolaketa eta funtzionamendua aztertuz gero, ondorio bitxi bat ateratzen da: salbuespen greziarra bat dator neurri handi batean arau argentinarren jokabidearekin. “Autogestión obrera en Argentina: problemas y potencialidades del trabajo autogestionado en el contexto de la poscrisis neoliberal”⁷⁸ (*Langileen autogestioa Argentinan: autogestionatutako lanaren arazoak eta potentzialtasunak krisialdi neoliberalaren ondoko testuinguruan*) testuan, berreskuratutako 200 enpresa baino gehiagoren hamar urteko esperientzia azertu ostean ateratako ondorioetako batzuk aurkezten ditu Andrés Ruggery ikertzaileak. Ibilbide horien eta Vio.Mek egindako ibilbidearen arteko paralelismoa kontuan hartuta, badirudi antzeko zailtasunen eta erronken aurrean antzeko erabakiak hartzen direla, edo ia erabaki berak.

Enpresa autokudeatzeak esan nahi du bertako langileek kolektiboki erabakitzen dutela zer arau ezarriko diren ekoizpenerako, lan-prozesuak antolatzeko edo soberakinak erabiltzeko, bai eta gainerako sistema ekonomiko eta sozialarekin zer harreman izango duten ere. Berreskuratutako enpresa baten ezaugarri bereizgarria, haren kapital politikoa eta sinbolikoa nagusia, haren kudeaketa-modu kolektiboa da hain zuzen ere. Lehengo kudeaketan nagusi zen egitura bertikaletik⁷⁹ eredu kolektibora pasatzean, biltzar bidezko eredua da eztabaidarako modu logikoa, eta eredu egokiena da parte-hartzea eta erabakiak hartzeko

ahalmena bermatzeko, behin langile guztiak berdintasun-egoeran daudela. Biltzarra edo asanblada, gainera, elementu iraunkorra da langileen mugimenduaren tradizio historikoan, eta aurreko aroan nagusi zen erregelamenduarekiko guztiz antagoniko den eragin demokratizatzailea sortzen du.

Harremanen eredu berriak rolak aldatzeko aukera ematen die langileei, eta eredu hori enpresaren mugetatik harago doa eta enpresako kideen eguneroko bizitzako alderdietara heltzen da, baita ekoizpen-jardueretatik kanpo talde gisa duten harremanera ere. Nagusirik gabe lan egiteko aukera hori da etapa berri honen ondorio positiboenetako bat, Vio.Meko langileek esandakoaren arabera. Baina oso positiboa da, bestalde, sare sozial bateko kide direla sentitzea ere; badakite sare horrek bideratu duela aurrera egiteko eta ekoizpena abiarazteko aukera eman dien laguntza, eta, era berean, haiek ere lagundu behar dutela beste ekimen batzuek ere aurre egin dezaten. Hori horrela, lantegiko biltzarrak badaki “borrokak ezin duela Vio.Mera mugatu, garaipena lortzeko, orokortu eta ixten ari diren lantegi eta enpresa guztietara zabaldu behar duela”; izan ere, autogestionatutako enpresen sare baten bidez soilik lortu ahal izango da ekonomia mota berri bat sortzea. “Lanik gabe, dirurik gabe, Estatuaren laguntzarik gabe eta fabrikak itxita daudela, autogestioan pentsatzea besterik ez zaigu geratzen”⁸⁰.

Ruggerik gogorarazten duenez, “garrantzitsua da azpimarratzea kapitalismoaren esparruan, isolatuta edo erakunde eta mugimendu sozialen estrategien baitan gauzatzen diren kasuei buruz ari garela; langileek bizirauteko baldintzak hobetzeko gauzatzen dituzten borroken baitan sortzen dira ekimen horiek, babesgabatasun sozialari eta langileriaren zati handi batentzat soldata-harremanak desagertzea ekarri duen egoerari aurre egiteko”⁸¹.

Autogestioa ez da erabakiak hartzea edo lan-eskubideak ezartzea soilik, ekoizpen-logika eta lan-prozesuak eraldatzeko modua eta jarduna ere bada. Aldaketa horiek zenbait alderdirekin lotuta daude: erabiltzen diren teknologiekin, langileek ekoizpen-katea abiarazteko dituzten urritasunekin eta beharrekin, edo dituzten oztopoei aurre egiteko moduarekin.

Autogestionatutako horrelako esperientzien zailtasun nagusietako bat da, alderdi ekonomikoari dagokionez, horizontaltasuna eta elkartasuna

mantentzea eraginkor izateari utzi gabe, bizi maila duin bat lortu ahal izateko proiektuan parte hartzen duten guztientzat. “Langileak esplotatu gabe eta herri-beharrak ingurumenarekiko modu iraunkorrean aseztatu hori lortzea da, gutxienez, horrelako kudeaketa-moduaren erronka nagusia”⁸². Logika kapitalista langileak esplotatzean eta mozkinak maximizatzean oinarritzen da, ahal den kapital gehien metatu ahal izateko. Aldiz, enpresa autogestionatuaren xedea da langileen bizi-kalitatea hobetuko duen proiektu bat eraikitzea, beste langile batzuei lana ematea eta enpresa dagoen tokian bertan gizarteratzea. Aldaketa nabariak lanaldiaren iraupenarekin eta erritmoekin lotuta daude, soldatapekoenak baino gizatiarragoak izan ohi baitira, baina baita ekoizpenaren egokitzapen sozio-teknologikoarekin ere, ahal den neurrian behintzat errealtate berrira eta enpresatik sortu nahi diren harreman mota berrira hurbiltzeko. Alde horretatik, Vio.Meko langileek detergente eta garbigarri kimikoen lerroa aldatu zuten, eta etxean erabiltzeko estandar ekologikoak ezarri, eta merkaturatzea Grezian ugaritzen ari diren kontsumo-kooperatiben eta ekonomia sozialeko proiektuen sare zabalera bideratu zuten. Gainera, egiaztatu zuten salmenta-prezioak bi herenetan murriztuz zitezkeela, lehen zeudenekin alderatuta, arestian enpresaburuak eskuratzen zuten mozkinak desagertu baitzen.

Ekoiztutakoa ohiko banaketa-zirkuituetan sartzea da, hain zuzen ere, autokudeatutako enpresei sortzen zaien beste oztupoetako bat, merkatuaren arauak taldearen kontrolpetik kanpo baitaude. Gainera, horrelako ekimenak segurtasun juridikorik gabeko egoeran daude, eta horrek ere kezka ugari eragiten die sustatzaileei; izan ere, legez, ez dira aurreko kudeatzaileek sortutako zorraren erantzule, baina, era berean, ez dira porrot egindako enpresaren ondasunen edo ondarean gaineko eskubideen titular ere. Legearen zehaztugabetasun horrek normaltasunez lan egitea, kreditua lortzea eta jardueraren epe luzeko estrategia planifikatzea eragozten du. Langileek haien lan-indarra baino ez dute, eta, batzuetan, lehengaien stockak, ekoizpena abiarazteko. Baina kapitalik ez dutenez, ekoizpen hori ez da enpresaren ahalmen teknikoaren eta giza ahalmenen araberakoa. Vio.Meri dagokionez, bide judiziala oso motela izaten ari da haien egoera eta enpresaren aktiboen gaineko eskubidea arautzeko orduan, eta, horregatik, proiektuaren eta haren aholkularitza teknikoaren inguruan sortu den elkartasun-mugimenduaren finantza-

laguntza beharrezkoa izan da negozio-plan bat egin eta ekoizpena merkatuan nola ezarriko den erabakitzeke, baita soldata duinak mantentzeko zer salmenta-bolumen beharko litzatekeen erabakitzeke ere. Beste alderdi batzuen artean, txikizkako bidera eta gizarte ekonomiako establezimenduetara bideratu zuen produkzioa, oso zaila baitzen aurreko etapako handizkako bezeroak berreskuratzea. Greziakoaren moduan atzeraldian dagoen ekonomia batean lan egitea, berriz merkatuzatzea eta behar adinako sarreren maila bermatzea dira Vio.Mek egun dituen erronka nagusiak.

Edonola ere, kontuz jardun behar da ekoizpen-bitartekoak eskuratzeari dagokionez. István Mészárosek dioen eran, bitarteko horien jabetza izateak ez du berez langileengan aldaketa positiboak izaten laguntzen, funtsezkoa baita “elkartutako ekoizleek lan-prozesu osoa kontrolatzea, eta ez ezarritako jabetza-eskubideak nola irauli erabakitzea soilik”⁸³. “Desjabetzaileak desjabetzea” aurrebaldintza bat da soilik, baina ez ditu funtsezko alderdiak aldatzen: elkartutako ekoizleek berdintasun-egoeran kontrolatu behar dituzte lan-prozesu guztiak, eta beste kooperatiba edo langile-elkarte batzuen borrokekin koordinatuta jardun behar dute.

Batzuetan, makinak ez daude erabiltzeko moduan, edo konpondu edo berritu egin behar dira, eta horrek finantza-arazoak dakartza; beste batzuetan, zuzendaritza- edo administrazio-postuak betetzen zituztenek utzi egin zituzten autokudeatutako proiektuek. Hori gertatu zen Vio.Men: enpresako 42 langiletatik 7k erabaki zuten ez zutela etapa berria jarraituko, eta administrazioaren eta produktu kimikoen sailtako lehengo langileak zeuden horien artean. Beraz, konpromisoa eutsi zioten 35 langile eta teknikariek laguntza bilatu behar izan zuten postu horietarako, eta gainerako lanak bakoitzaren espezialitatearen eta gaitasunaren arabera banatu behar izan zituzten.

Mészárosek beste ohar bat ere eman zuen, baita Ruggerik ere: teknologia ez da neutrala. Haren diseinua eta erabilera ekoizpen kapitalistaren harremanen sarearen parte dira, eta haren helburu bakarra da “kapitala handitzea, edozein kostu sozialetan”. Hori horrela, langileek errotik berregituratu beharko dituzte harreman horiek, edo horrelako teknologiak alde batera utzi beharko dituzte, ahal den neurrian, eta horien ordeztatu nahi den harreman sozioekonomikoen eredu berrira egokitutakoak erabili. Mészárosek kritika egiten dio salgaiak ekoizten

dituen gizarteari, eta proposatzen du gizakien beharrak asetzeko xedea (erabilera-balioak) izango duen gizarte bat eraiki behar dela. Modu batean edo bestean, Vio.Meko langileek kontuan izan dituzte kezka horiek, hartutako erabakietan. Adibidez, "jarraitzaile solidarioaren" figura sartu dute kooperatibaren estatutuetan: fabrikako produktuen kopuru jakin bat kontsumitzeko konpromisoa hartzen duten komunitateko kideak dira jarraitzaile solidarioak, eta, horren truke, informazioa jasotzeko, langileen biltzarretan parte hartzeko eta kontsulta-boto baten bidez erabakiak hartzen laguntzeko eskubidea dute. Langileen kontrolaren eta gizarteak ekoizpenaren gain duten kontrolaren artean eraikitako zubia da jarraitzaile solidarioarena, eta enpresaren barneko parte-hartezko eta auto-kudeaketarako esparruak zabaltzen ditu eta gizarte osoarekin lotzen. Mauricio Tragtenbergekek *benetako parte-har-tze* esaten dio horri: "herritarren gehiengoak, askatasunez hautatutako eta elkarren artean lotutako organoen bidez, lan-prozesua zuzen dezake, eta ekoizpenaren helburuen eta bizitza sozialeko beste alderdi esanguratsu batzuen gainean erabakiak hartzen parte har dezake"⁸⁴. Eta horrelaxe esan ziguten Vio.Meko langile batzuek: ez dutela hau guztia haien familiak aurrera ateratzeko soilik egiten –tokiko eta nazioarteko elkartasunari esker mantendu dira horiek hainbat hilabetetan–; aitzitik, gizarte bidezkoago baterako bidea jorratzeko ere egiten dutela. Elkartasuna, hurbiltasuna, justizia soziala eta antzeko balioetan oinarritutako gizarte baterako bidea jorratzeko, alegia. Politika egiteko beste modu bat da, behetik hasita.

Alabaina, Vio.Mek zabaldutako bidea ez da izan, orain arte, espero zitekeena bezain emankorra. Egoera eta ataka zailean zeuden langile-kolektibo batzuek pribatuan esan dute haien enpresen gaineko kontrola hartu eta horiek kudeatu nahi zituztela, baina Eleftherotypia egunkariko kazetariak izan dira bide horretara hurbildu diren bakarrak, eta ez dute guztiz lortu.

2011ko abuztuan, Eleftherotypia argitalpen-enpresak langileei ordaintzeari utzi zion; kazetari, teknikari, administrari eta inprimatzaile, 800 langile baino gehiago ziren guztira. Lau hilabete geroago, langileek greba mugagabea aldarrikatu zuten, eta zenbait aukera aztertzeari ekin zioten 1975ean sortutako egunkaria birsortzeko. Hain zuzen, Greziako "Batzerde militarra" erori ostean sortu zen enpresa, eta 30 urtean prentsa aurrerakoia eta komunikabide-industriaren erreferente izan zen.

Azkenik, 2012ko otsailaren 15ean, “Eleftherotypiako langileak” egunkariaren lehenengo alea eman zuten argitara. Egunkariaren instalazioak de facto okupatu zituzten, eta autokudeaketa-erregimenean argitaratu zuten egunkaria. Hamar egun beranduago argitaratu zuten bigarren —eta azkeneko— alea, proiektuari jarraitutasuna emateko saiakeran. Baina proiektuak ez zuen inoiz lortu langileen gehiengo konbentzitzea, lana kalitate handikoa bazen ere eta ale ugari saltzea lortu bazuten ere (30.000 ale baino gehiago edizio bakoitzean). Urtearen gainerako zatia porrot-aitorpenak egiten, inbertsiogile berriak bilatzen eta soldadak ez ordaindu izanagatik salaketak jasotzen eman zuten. 2013ko udan, kazetarien talde txiki bat egunkari kooperatibo berri bat sortzeko aukerak aztertzen hasi zen, jaberik eta itzalean babestuko zituen korporaziorik gabe. Azaroan iragarri zuten argitalpen-talde berri bat arduratuko zela Eleftherotypia egunkariaz, haren igandeetako aldizkariaz eta web-orriaz. Langile gehienek lasai hartu zuten arnasa, baina arduratsuenek *Efimerida ton Syntakton* (Kazetarien egunkaria) sortu zutela iragarri zuten une horretan.

Egunkari berriak egun gutxiren buruan kaleratu zuen lehen alea, eta gozotik, tirada 8.000 edo 9.000 ale artean egonkortzea lortu du; ez dira kopuru makalak egunkari berri batentzat, eta are gehiago kontuan hartuta ez duela inolako laguntza ekonomikorik ezta politikorik ere jasotzen. Haien diru-iturri bakarra salmentak eta publizitatea dira, eta kooperatibako kideen biltzarrak hartzen ditu erabaki ekonomikoak eta administratiboak, eta bertan izendatzen dira argitalpenaren argitaratze-kontseiluko kideak. Kontseilu horrek hartzen ditu argitaratze-lerroari eta edukiei buruzko erabakiak; ahaleginak egiten dute lerro eta eduki horiek ahalik eta irekienak izan daitezen ezkerren eta zentro-ekkerren esparruan, baina beti alderdiekiko eta talde ekonomikoekiko independentzia mantenduz. Nikolas Voulelis egunkariaren zuzendariaren iritziz, krisiaren ondorioz sortutako esperientzia kolektiboa da, eta, nolabait, krisi horri buru egiten laguntzen du, botere berriak, erakunde berriak eta alderdi berriak sortzen laguntzen baitu. Greziako historian inoiz izan ez diren baldintzetan sortutako proiektu independentea da, eta hori erronka handia da anitz, kritiko, zorrotz eta alternatibo izan nahi duen egunkari batentzat, ideia eta ikuspegi berriak sortzen lagundu nahi baitu.

Alabaina, Efimerida ton Syntakton ez da izan komunikabideen esparruko lehenengo kooperatiba-esperientzia; zenbait urte lehenago sortu ziren internet bidezko Radiobubble irratia eta The Press Project egunkari digitala. Lehenengoa 2008an sortutako irrati librea da, eta gizarte mugimenduei zerbitzu emateko xedez sortu zen; ez dauka publizitaterik eta proiektuan parte hartzen dutenek autokudeatzen dute. The Press Project komunikabide independentea da, kolektiboa, baina kalitatezko kazetaritza egitea du xede, eta nazioarteko irakurleei zuzenduta dago. Haien asmoen arabera, hauek dira hedabide horren jardunaren zutabeak: “egunkari onen eta antzinako egunkarien entzutea, irratia ren abiadura eta elkarrekintza beroa, moda-aldizkari en freskotasuna, aldizkari akademiko baten ospea, kolektibo baten presak eta webaren dinamismoa”⁸⁵.

Baina, zalantzarik gabe, Greziako Irrati eta Telebistako (ERT) kate publikoko langileek hori itxi ostean gauzatutako ekimena izan da guztietan harrigarriena, originalena eta integratzaileena.

2013ko ekainaren 11n, gobernu greziarrak ordu gutxi batzuetan itxi zuen Europako telebista- eta irrati-etxe estatal zaharrena (75 urte zituen), aurrez jakinarazi gabeko ezusteko ekintza batean. Bigarren Mundu Gerran okupatzen ari ziren tropa naziak ere ez ziren ausartu horrelakorik egiten. Aurrez iragarri gabe, eta oposizioko indarrekin inolako eztabaidarik izan gabe, Antonis Samarásen exekutiboak bat-batean itxi zituen 5 telebista-kate, 29 irrati-estazio eta ERTren orkestra eta abesbatza, eta 2.600 langile kaleratu zituen. Neurria iragarri zuen egun berean itxi zituen. Larrialdiko dekretu hori, Biltzar Nazionalak hiru hilabeteko epean berretsi behar zuen berez, neurria legezkoa izan zedin, baina exekutiboak ez zuten inoiz aurkeztu. Kate publikoa itzaltzea legez kanpoko ekintza antidemokratikoa izan zen.

Gobernuak bere burua zuritu nahi izan zuen, eta katearen kudeaketa txarra, ustelkeria eta metatutako zorra erabili zituen aitzakiatzat. Baina honako hau da errealtatea: exekutiboko kideak izan ziren ustelkeriakasuen protagonista bakar, lagunak eta senideak jarri baitzituzten zuzendaritza-postuetan (gobernuaren bozeramaleak, Simos Kedikoglouk, berak bakarrik, 25 pertsona “jarri” zituen horrelako postuetan 2013ko lehenengo bost hilabeteetan). Gainera, ERTk 57 milioi euroko mozkinak izan zituen 2011n, Estatuari zergatan (BEZa, gizarte segurantzako kotizazioak eta beste tasa batzuk) 166 milioi euro ordaindu ostean. 2012an

antzeko zifrak izan zituen, eta 2013ko aurrekontuan, itxi zen arte, 40 milioi euroko superabita zuen metatuta.

Hori horrela, Samarásek nazioartean inolako aurrekaririk ez duen ekintza bat gauzatu zuen estatuko irrati- eta telebista-kate bat horrela ixtean; baina gauzak ez ziren hark espero zuen bezala atera. Lehenengo unetik bertatik, langileek ERTren instalazio guztiak okupatu zituzten, eta etengabe informazioak eta elkarrizketak emateari ekin zioten. Gobernuak igorpen-seinalea moztu zuenean, tokiko kateek haien frekuentzia utzi zieten eta horien bidez zabaldu zituzten irudiak, baita satellite bidez ere, irrati-difusioko Europako erakundeari esker. Eskualdeetako zentroek ere haien albistegiak lantzen eta toki mailan ematen jarraitu zuten. Irrati-kate batzuek Internetera pasatu zituzten programazioak. Katearen Atenaseko estudio nagusiak pil-pilean zeuden kazetariz, langilez eta eraikina eta barrutiko lorategiak egunean 24 orduz okupatzen zituzten pertsonen beteta.

Ia bost hilabetetan zehar, benetako iraultza kultural baten egoitza izan ziren instalazioak, eta mikrofonoak eta estudioak gizarte-mugimenduen esku jarri ziren, eta austeritate-politikei buruzko eztabaidak egin zituzten, ordura arte kate horretan inoiz ikusi gabeko adierazpen-askatasunarekin. Ehunka biltzar egin zituzten, kontzertuak, eta udako zinema bat eta jantoki sozial bat ere sortu zituzten. Autokudeaketako eredu harrigarri bati esker izan zen hori guztia; langileek eta boluntarioek ematen zieten erantzuna mota guztietako beharrei, eta proiektuari laguntzeko kanpainak egiten zituzten. "Bost hilabete horietan, komunikabide handien blokeoaren kontrako alternatiba gisa sendotu ginen, haiek ez baitzuten hitz egiten neurri neoliberalet Greziako gizartean izandako eragin suntsigarriari buruz. Gainera, herritarren esku jarri genituen mikrofonoak, haiek hitz egin zezaten intereseko zituzten gaiei buruz. Uste dugu gobernuak beldurra digula, jendeak entzun egiten gaituelako"; hori esan zigun Babis Kokosisek, ERT irrati esatarietako batek.

Azaroaren 7an, alde zuzeneko operazioa prestatuta eta gauez, istiluen aurkako unitateek indarka okupatu zituzten estudio nagusiak, eta atxilotuta eraman zituzten aurka egin zuten langileak. Irudiek Batzorde militarren diktadurako irudiak ekarri zituzten gogora, baina horrela ere ez zuten lortu ERTko langile ohiei mikrofonoak ixtea. Telebista-emanaldiak, ordurako interneten bidez soilik egiten zirenak, Tesalonikako estudioetara eraman

ziren, eta 16 irrati-katek emititzen jarraitu zuten lurraldeko zenbait zentrotatik. 2014ko udaberrian, programazioak aurrera jarraitzen zuen (kateak ERTOpen izena du orain) kateko kazetarien eta teknikarien irimotasunari esker, baita milaka pertsonak eredu informatibo aske, sozial eta kalitatezko bati emandako babesari esker ere.

Gobernua mugimendua zatitzen saiatu da: xantaia egin die langileei lan-likidazioekin, edo lanpostuak eskaini dizkie kate publiko berrian (NERIT), 2014ko maiatzaren hasieran abiarazi zenean. Horren guztiaren gainetik, 400 pertsonak eutsi egin diote eta aurrera jarraitu dute autokudeaketa informatiboko eta konpromiso sozialeko eredu horrekin. Esperientzian parte hartu duen Loukas Panourgiasen hitzetan, komunikazioa eta entretenimendua eskaintzeaz gainera, ERTOpenek ondasun batzuk zaintzen ditu, instalazioak eta espazio erradioelektriko bat, greziar herriarenak direnak, eta dirudienez ERT ixteko agindua eman zuten politikariei axola ez zaizkienak.

Langileek erakutsi dute haiek bakarrik gai direla katea funtzionarazteko, nagusien beharrik izan gabe. Jakina, ez da lan erraza, Kokosisek gogorarazten duen eran; Estatuak emandako lau hilabeteko kalte-ordainak agortzen joan dira, eta proiektuan jarraitzen duten gehienek beste lan batzuk bilatu behar izan dituzte, edo beste diru-iturri batzuk. Eta, halere, ERTOpen kateak, sindikatuaren funtsekin, bulego eta irrati-estudio bat irekitzea lotu du katearen lehengo egoitza nagusiaren parean, eta irrati-telebistako erakunde berri bat sortzeko lehenengo pausoak emateari ekin dio.

Greziako kate publikoak informazioa 12 hizkuntzatan ematen zuen garaian gaztelaniazko eguneroko programaren ardura zuen Kokosisek, eta egun ERTOpen proiektuan dihardu buru-belarri. Alde horretatik, jakinarazi zigun nekearekin batera ideia berriak ere sortzen direla, adibidez, krisialdia dela eta, Greziatik alde ari diren emigratzaileen belaunaldi berriarentzat nazioarteko komunikabide gisa funtzionatzea.

Ikus daitekeen eran, berreskuratutako enpresen eragina ez da haien alderdi ekonomikoan edo lanpostu batzuk mantentzean soilik nabari; dimentsio kultural eta sozialen ere nabarmena da ekarria, haien eskutik lotura berriak sortzen baitira enpresaren eta lurraldearen artean. Autokudeatutako kooperatibek jarduera sozialak eta kulturalak gauzatu dituzte haien instalazioetan, jasotako elkartasunaren truke. Komunitate-

ekintza horiek, diziplina kapitalistarekiko guztiz kontrakoak, funtsezko eginkizuna dute merkatuarekiko elkarreraginaren ondorio kaltegarriei aurre egiteko.

Ez dira ez estatalak, ez pribatuak, ezta kooperatiba tradizionalak ere; langileek berreskuratutako enpresak kudeaketa-esperientzia jatorra ari dira gauzatzen, baina, ezin uka, haien erronkak eta mugak ere handiak dira.

Laburpena.

Trantsizioaren hasiera eta garaipen batzuk

Liburu hau amaitu eta egun gutxira, Grezian udaletako, eskualdeetako eta Europako hauteskundeak egin zituzten, eta Syriza alderdiak lortu zuen garaipen birtuala, argi eta garbi lortu ere, Europako Parlamenturako deialdian, eta aurrerapen handia lortu zuen tokiko erakundeetan.

Alderdi ezkertiar horrek beti erakunde sozialekiko eta herri-ekimenekeko sentsibilizazio berezia erakutsi izan duen arren (ez dugu ahaztu behar haren militantziaren zati handi batek modu aktiboan hartzen duela parte ekimen horietan), oraindik ere orrialde hauetan aipatu izan dugun marea isil horren zati batek nolabaiteko mesfidantza agertu du. Syrizarik, krisiaren ondorio gogorrek desagerrarazi nahi dituen alderditzat jotzen du bere burua, baina kapitalismo leunerantz aurrera egin nahi duen erreforma bidez egin nahi du. Erakundeak hainbat joera biltzen du: borrokalari eta iraultzaileenetatik hasi eta sozialdemokraziako joera neurritsuenera. Hori dela eta, eskualdeko bi gobernutan (Ática eta Uhartre Jonikoak) eta hainbat udaletan lortutako garaipenak bere jarrera zein den eta kudeaketa nola egingo duen argitzeko balio beharko luke.

Denbora laburrean Syrizarik gobernuaren agintea eskura dezakeela dirudi, baina, horretarako, oraindik sistemako alderdi politikoeekin aspertuta dauden herritarren konfiantza bereganatzeko zeregin garrantzitsua du aurrean. Maiatzaren 25eko hauteskundeetan, herritarrek abstentzioaren aldeko apustu handiagoa egin zuten egun herrialdea gobernatzen duten bi alderdiekikoa baino. Boto baliogabeek eta zuriek izan zuten igoera nabarmena ere (225.000 baino gehiago; hau da, eurodiputatu bati dagokiona baino gehiago) herritarren gogaitze horren erakusgarri argia izan zen.

Syrizarik mugimendu sozialekiko eta elkartasun-ekimenekeko erakusten duen zintzotasun politikoaren araberakoa izango da, batetik, oinarritik antolatu dituzten alternatiba ekonomikoen eta sozialen aurrerapena, eta bestetik, nazioarteko finantza-botereek, komunikabideek eta erakundeetatik kendu duten tokiko eliteak Greziako gizarteari eragingo dizkieten tentsio gogorrei aurre egin ahal izateko beharrezko sendotasuna.

Teodoros Karyotis aktibistaren ustez, proiektuen autonomia eta iraunkortasuna mantendu ahal izateko beharrezkoa izango da oreka mantentzea, eta aldi berean, orain "aliatuak" diren erakundeen eta herri-erakundeen arteko integrazio politikoa eta haien isolamendua bereizten dituen lerro estuaren gainean aurrera egitea, betiere, ekimenak sorrarazi zituzten ideien garbitasun erradikala mantentzen saiatuta.

Europako deialdiaren ondoren, bistakoa dirudi Grezian, 40 urtez kontrol politiko absolutua izan ostean, alderdi-bitasuna desagiten hasi dela eta oraindik ere aurreikusi ezin den neurriko eraldaketa hasi dela. Nick Malkutis eragin handiko analistaren ustez, emaitzek honako hau erakutsi zuten: "Demokrazia Berriaren eta PASOKen pixkanakako desagertzea ari da gertatzen, eta horrek trantsizio politikora behar du herrialdea; ezin da jakin, ordea, zenbat iraungo duen eta zer ondorio ekarriko duen trantsizio horrek".

Horrenbestez, hauteskunde-egunak mugimendu sozialaren zenbait garaipen ekarri zituen, eta garaipen horien eraginez, eraikin neoliberala hainbat tokitatik pitzatzen has daiteke.

Haietan lehenengoa Tesalonikako saneamendu eta uren udal-entresaren pribatizazioaren aurkako erreferenduma izan zen. Kontsulta ekiditeko gobernuak oztopoak jarri eta mehatxuak egin arren, parte-hartzea eroldaren %40koa izan zen (aldi berean egindako tokiko hauteskundeetan, indize hori %55ekoa izan zela kontuan izan behar da) eta 192 mahaitan igorritako boto-paper baliozkoak 218 mila inguru izan ziren. Boto-emaileen %98 konpainia publikoa saltzearen aurka agertu zen eta aldekoak, aldiz, %1,96 baino ez ziren izan.

Baina gobernuaren irrika merkantilizatzaileei azken kolpea Administrazio Auzitegi Gorenak eman zion maiatzaren 26an Atenaseko Ur eta Estolderien Enpresa Publikoa (EYDAP) saltzea legearen kontrakoa zela ebatzi zuenean. Epaiaren arabera, prozesuak ez zituen betetzen Greziako Konstituzioaren 5. eta 21. artikulua, Estatuak osasuna babestu eta herritarren osasun-egoera ona zaindu behar dituela xedatzen dituztenak. Tesalonikako herritarrek pozarren hartu zuten epaia. Gainera, seguru asko, lehen aipatu dugun moduan, EYATH pribatizatzearen aurka hirian abian dagoen prozesuan ere justiziak antzeko erantzuna emango du.

Herri-mugimenduaren beste garaipen bat Calcidicako Aristóteles udalerrian gertatu zen (han dago Skouries meategia). Bertan, *meatzaritzaren aurkako borroka-batzordeen* hautagaiak, Yanis Mijos-ek, alde handiarekin irabazi zion tokiko hauteskundearen lehen itzulian Jristos Pajtas politikari ustelari (ikus liburuko 59. oharra), Eldorado Gold korporazioaren interesen defendatzaile nagusiari.

Baina, zalantzarik gabe, gobernuaren aurkako kolpe gogorrenetako bat Atenaseko Lehen Auzialdiko Epaitegiak emandako epaia izan zen. Izan ere, maiatzaren 16an baliogabetu egin zuen Finantza Ministerioko garbiketa-zerbitzuko 397 langile kaleratzeko erabakia. Salaketa jarri zutenen abokatuak, Yianis Karuzos-ek, epaia "historikoa" zela adierazi zuen. Haren ustez, gobernuak eta mailegatzailleek funtzionarioekin amaitzeko ezarritako eredia Konstituzioan jasotako eskubideen aurkakoa da. Erabaki judizial horren gai nagusia troikarekin hitzartutako "mugigarritasun-programa" (lan-erreserban zortzi hilabete eman ostean, funtzionarioak kaleratzeko ihesbidea edo aitzakia) izenekoa zalantzan jarri izana da. Horrek atea ireki zion antzeko egoeran dauden enplegatu publikoen beste kolektibo batzuek demanda berriak jartzeko aukerari.

Emakume haiek egindako borroka, nekaezina eta eredugarria izan zen. Zortzi hilabetez, ministerioko egoitzaren aurrean mobilizazio eta kontzentrazioak egin zituzten egunero eta austeritate-politiken aurka deitutako manifestazio guztietan hartu zuten parte, beren borrokaren inguruan elkartasun-mugimendu handia pilatuz. Kaleratze formalaren eguna (maiatzak 18) baino aste batzuk lehenago, kanpalekua jarri zuten beren lan-egoitzaren alboan. Bertan, herri-erakunde ugariaren laguntza jaso zuten protestak iraun zuen denboran, beharrezko azpiegitura sortu eta mantendu ahal izateko. Azkenik, gobernuak txosten judizialari (kaleratutako emakumeak "berehala berriz onartzera" behartzen zuen) jaramonik ez egitea erabaki zuenean, Ogasun Ministerioaren atek blokeatu eta itxialdia hasi zuten. Emakumeen talde haren ausardiak eta duintasunak, epai irmoa izatearen babesak eta jasotako babes sozial handiak polizia kopuru neurrigabeari aurre egitea lortu zuen eta, azkenean, gobernu ez zen poliziaren indarra erabiltzen ausartu.

Ordura arte, sindikatu eta langileen kolektibo bakar batek ere ez zuen lortu lan-eskubideen aldeko protesta bat hain urrun ematerik, garapeneraino, hain zuzen. Eta nork eta filiazio politikorik edo alderdikoirik

gabeko emakumeen talde batek eman dio berebiziko ikasgaia porroten ondorioz lur jota zegoen langileen klaseari, baikortasuna eta duintasuna berreskuratzeko lezio eredugarria.

Zalantzarik gabe, oraindik ere Greziako mugimendu sozialaren borrokan orrialde ugari geratzen da idazteke.

Oharrak

- 1 Bermatutako Zor Obligazioak edo CDOak (collateralized debt obligation) era askotako maileguen zati ugariz (horien artean subprime hipoteka entzutetsuak) osatutako finantza-paketeak ziren, arrisku handiagokoak edo txikiagoak, eta munduko banku guztiei saldu zitzaizkien.
- 2 2007ko irailean, Erresuma Batuko Northern Rock bankuak, nahiz eta CDORik eta arrisku handiko hipotekarik ez izan, porrot egin zuen, bezeroek, kaudime-nik ez zuela susmatuta, beren funtsak erretiratu zituztelako. Berez, beste era-kunde batzuek epe motzera emandako kredituei esker eusten zion bankuak likidezia-mailari, eta horiei oso loturik zegoen.
- 3 Hala oroitarazi du Yanis Varoufakis ekonomialari greziarrak: "1929an, AEBetan ordaintzeko zeuden kredituen zenbatekoa BPGaren %160koa zen. 1932an, [...] zorrak pilatzen joan ziren neurrian eta BPGak behera egin ahala, BPGaren %260ra igo zen. Alderatzeko, ordaintzeko zeuden kredituen zenba-tekoa BPGaren %365ekoa zela sartu ziren AEBak 2008ko crash-ean. Bi urte-ren buruan, 2010ean, portzentaje hori BPGaren %540ra iritsi zen. Ez sineste-koa. (Zifra horretan ez zeuden jasota deribatuak, eta kontuan hartu behar da horien balio nominala, ordaintzeko zegoena, BPGaren halako lau zela, gutxie-nez)". El Minotauro global, Capitan Swing Libros. Madril 2012, 210-211.
- 4 Aldiz, Alemanian, garai berean, bestelakoa izan zen joera: hazkunde txikia, inbertsio uniformea, gorabeherarik gabeko kontsumoa, aurrezte gero eta han-diagoa eta etxetako zor gero eta txikiagoa.
- 5 Kathimerini egunkariak 2012aren amaieran aurkeztutako banku-txosten batek erakusten zuen Greziako zor pribatuaren erdia, hor nonbait, etxeei zegokiela artean (%14 kontsumorako maileguei -32.450 milioi euro- eta %32,4 hipote-kei -75.000 milioi euro-), eta zor hori askoz handiagoa zela industria-, neka-zaritze- eta turismo-sektoreen zorpetzearekin alderatuta. Kathimerini 2012/11/25 http://www.ekathimerini.com/4dcgi/_w_articles_wsite2_1_25/11/2012_471538
- 6 El Periódico de Catalunya, 2012/11/3.
- 7 Hazkunde apalak indartu egin zuen Alemaniaren esportaziorako lehiakortasu-na, egiazko soldaten etengabeko deflazioari eta inbertsio indartsuei esker.
- 8 Varoufakisen arabera, eskualde batek edo gehiagok merkataritza arloko deso-rekak badituzte, moneta devaluatzea izan daiteke irtenbidea: "euroa ezarri aurretik, Alemaniako superabit iraunkorrak, Grezia edo Italiarekin alderatuta, Alemaniako markoaren ondoan drakma eta lira pixkanaka devaluatzea ekarri zuen. Modu horretara mantentzen zen oreka: merkataritza arloko asimetria gero eta handiagoak nolabait indargabetzeko kanbio-tasen desoreka gero eta handiagoak sortzen ziren". Alabaina, herrialde horiek moneta beraren pean geratu zirenean (euroaren pean), soberakina bideratzeko mekanismo baten beharra sortu zen, izan "transferentzia sinpleen bidez", izan "herrialde defizita-rioetan inbertsio emankorrak eta errentagarriak eginez". Izan ere, gainerako-an, "moneta-batasuna higitze tektonikoak jasan beharrean da nahitaez, eta horrek, luzarora, pitzadura handiak sortzea eta azken-azkenean batasuna

- txiki-txiki egitea ekarriko du". El Minotauro global. Capitán Swing Liburuak, Madril 2012, 94 eta 95.
- 9 Yanis Varoufakis, *ibíd.*, 256.
 - 10 Crisis en la eurozona [Krisia eurogunean] (Capitán Swing Liburuak, Madril 2013) liburuaren 2. eta 3. kapituluetan, Costas Lapavitsasek Alemaniako ekonomia bilakaerari buruzko azterketa zorrotza egiten du, eta Europako periferiako herrialdetan izan diren kontrako prozesuekin alderatzen du bilakaera hori.
 - 11 Costas Lapavitsas, *op. cit.*, 141.
 - 12 Alemaniako merkataritza, baita euroguneko gainerako herrialdeena ere, %26ra iritsi zen 2011n; 2002. urteaz geroztik mailarik apalena izan zen 2011koa.
 - 13 Yanis Varoufakis, *op. cit.*, 265.
 - 14 Yanis Varoufakis, *op. cit.*, 266.
 - 15 Josep Fontana, *El futuro es un país extraño. Pasado y Presente* argitaletxea, Bartzelona 2013, 15.
 - 16 <http://www.naftemporiki.gr/finance/story/749948> (2014/01/14an kontsultatua)
 - 17 "[Maileguaren] Dokumentuak gure lege-corpusaren funtzionamenduari buruzko ezaguera izugarria erakusten du, baita ustez garrantzirik ez duten gaietan ere". Egilearen elkarrizketa Yiannis Rachiotis juristari, Gara, 2012/03/21.
 - 18 Guztiontzako Elkartasuna ekimena, 2013ko martxoan.
<http://www.solidarity4all.gr/sites/www.solidarity4all.gr/files/aggliko.pdf>
 - 19 "Suntsiketa sortzailea" kontzeptua Werner Sombart soziologo alemaniarrek asmatu zuen eta Joseph Schumpeter ekonomialari austriarrak egin zuen eza-gun Capitalism, Socialism and Democracy (1942) liburuan (Kapitalismoa, sozialismoa eta demokrazia). Kontzeptu horren bidez azaltzen du nolakoa den berrikuntza-prozesua merkatu-ekonomian; hau da, produktu berriei nola suntsitzen dituzten enpresa eta negozio-eredu zaharrak. Schumpeterren iritzi-z, "horixe da kapitalismoaren funtsa" eta epe luzerako hazkunde ekonomiko iraunkorren atzean dagoen indarra.
 - 20 David Harvey, *A Brief History of Neoliberalism* (2005). Gazteleraz, *Breve historia del neoliberalismo*. Akal argitaletxea, Madril 2007, 7.
 - 21 Costas Lapavitsas, *op. cit.*, 244.
 - 22 2013ko hirugarren hiru hilekoko datuak, Eurostatenak.
 - 23 Greziako Estatistika Agintaritzaren (ELSTAT) datuak:
<http://www.statistics.gr/portal/page/portal/ESYE>
 - 24 Profesional, Artisau eta Merkatarien Greziako Konfederazio Orokorren datuak (2013/12).
 - 25 Max Weber, *Die protestantische Ethik und der 'Geist' des Kapitalismus*. Gaztelaniaz, *La ética protestante y el espíritu del capitalismo*. Península argitaletxea, Bartzelona 1987. 253.
 - 26 David Harvey, *op. cit.*, 24-26.

- 27 Munduko Merkataritza Erakundea ezartzeko Ituna, Marrakexko Adierazpena, 1994ko apirilaren 15koa, 11. http://www.wto.org/spanish/docs_s/legal_s/04-wto.pdf
- 28 Prensa Latina, 2013ko apirilaren 26a.
- 29 Online edizioa (2014/01/25ean kontsultatua): <https://wcd.coe.int/com.instranet.InstraServlet?command=com.instranet.CmdBlobGet&InstranetImage=2430934&SecMode=1&DocId=2088902&Usage=2>
- 30 Online edizioa (2014/01/25ean kontsultatua): http://www.coe.int/t/dghl/monitoring/socialcharter/Presentation/ActivityReport2012_en.pdf
- 31 Naomi Kleinek aipatua, *La doctrina del shock*. Paidós Ediciones, Bartzelona 2010, 351.
- 32 Eskutitzean, Budhok agerian utzi zuen bere salaketa ez zela soilik erakunde-ko funtzionario batzuek herrialde jakin bati emandako tratua aurkakoa. Beretzat, NDFren egiturazko doitze-programa, osotasunean, masak torturatze-ko modu bat zen. Programa horren ondorioz, «gobernuak eta herriak, "oinazez oihuka", gure aurrean belaunikatzera beharturik daude, hautsita, izututa eta desegiteko prozesu bete-betean, duintasun eta arrazoizko jarrera izpi bat erakuts diezaiegun erreguka. Baina, horren orde, barre egiten diegu aurpegira, ezin krudelago, eta torturak jarraitu egiten du, lehen baino are basago». Naomi Kleinek aipatua, op. cit., 352.
- 33 Argentinako diktadurak erail baino egun bat lehenago, 1977ko martxoaren 24an, Rodolfo Walshek bere azken lekukotza idatzi zuen: "Idazle batek Batzorde Militarari idatzitako eskutitz irekia". Eskutitz horretan, jeneralek AEBetako CIAren laguntzarekin abiarazitako terrorezko kanpaina basatia salatu zuen xehetasun osoz, eta zera gaineratu zuen: "Mundu zibilizatuaren kontzientzia astintzen duten gertaera hauek ez dira, ordea, Argentinako herriari sufrikario gehien eragin diotenak, ez eta zuek egindako giza eskubideen urraketak larrienak ere. Gobernu honen politika ekonomikoa da krimen horien iturburua, eta, hori baino okerragoa, milioika pertsona miseria planifikatura zigortzen dituen ankerkeria are handiagoaren sorburua. [...] Aski da Buenos Airesen ordu batzuk batera eta bestera ibiltzea ohartzeko politika horrek zeinen azkar bihurtu duen gure hiria hamar milioi biztanleko metropoli miserabile". Naomi Klein, op. cit., 133-134.
- 34 Milton Friedman, "Preface", in *Capitalism and Freedom*. University of Chicago Press, Chicago 1982, IX.
- 35 David Harvey, *The Enigma of Capital and the Crises of Capitalism*. Gaztelaniaz, *El enigma del capital y las crisis del capitalismo*. Akal argitaletxea, Madril 2012, 65.
- 36 Naomi Klein, op. cit., 189-190.
- 37 Karl Polanyi, *The Great Transformation*. Gaztelaniazko edizioa, *La gran transformación*. La Piqueta/Endymion argitaletxea, Madril 1989, 129.
- 38 David Harvey, *A Brief History of Neoliberalism* (2005). Gazteleraz, *Breve historia del neoliberalismo*. Akal argitaletxea, Madril 2007, 6.
- 39 Raúl Zibechi, Lurralde, emantzipaziorako eremu. *La Jornada*, 2014/01/25 <http://www.jornada.unam.mx/2013/01/25/index.php?section=opinion&article=021a1pol>

-
- 40 Margaret Thatcherren esaldi ezagunaren arabera, There Is No Alternative (TINA). Austeritate fiskala, zor subiranoaren krisi katastrofikoaren prebenitzeko; soldata-murrizketak, galdutako lehiakortasuna berreskuratzeko.
- 41 La Marea argitalpenaren eginiko elkarrizketa, 2014/01/23. <http://www.lamarea.com/2014/01/23/andres-ruggeri-el-verdadero-ideologo-de-las-empresas-recuperadas-es-el-neoliberalismo/>
- 42 Jean-Jacques Rousseau, Du contrat social. Gaztelaniaz, El contrato social. Ediciones Istmo, Madril, 2004, 105.
- 43 Karl Polanyi, The Great Transformation. Gaztelaniazko edizioa, La gran transformación. Ediciones La Piqueta/Endymion, Madril 1989, 135-136.
- 44 Michael Hudson, La oligarquía financiera contra la democracia social europea. Sin Permiso, 2011/12/19. <http://www.sinpermiso.info/textos/index.php?id=4638>
- 45 2014ko otsaileko datuak. Greziako Estatistika Agintaritzak (ELSTAT): http://www.statistics.gr/portal/page/portal/ESYE/BUCKET/A0101/PressReleases/A0101_SJO02_DT_MM_02_2014_01_F_EN.pdf
- 46 Egileari elkarrizketa. Rebelión 2012/12/18: <http://rebelion.org/noticia.php?id=160948>
- 47 <http://elegre.gr/details.php?id=118>
- 48 Dimitris Kazakis, EPAMen antolaketaren gaia eta nola ulertu behar den. http://dimitriskazakis.blogspot.gr/2012/01/blog-post_08.html
- 49 Egileari Gara egunkarian eginiko elkarrizketa, 2012/10/9: <http://www.gara.net/paperezkoa/20121009/366226/es/Las-cooperacion-entre-Policia-organizaciones-fascistas-es-clara>
- 50 Online edizioa (2014ko maiatza): <http://mdmgreece.gr/files/MdM%202014%20EU%20report%20access%20to%20care.pdf> (2014/05/25ean kontsultatua)
- 51 Raúl Zibechi, Lurraldea, emantzipaziorako eremu. La Jornada, 2014/01/25 <http://www.jornada.unam.mx/2013/01/25/index.php?section=opinion&article=021a1pol>
- 52 Guztiontzako Elkartasuna ekimena, 2013ko martxoa, 21. <http://www.solidarity4all.gr/sites/www.solidarity4all.gr/files/agglisko.pdf>
- 53 Gure adierazpena, 2011/05/25. http://www.proskalo.net/2011/05/blog-post_25.html
- 54 Erresistentzia eta iraultza frontea, gaur egun. 2013/07/24. <http://denplirono.wordpress.com/>
- 55 Enpresa Txikien Institutuak eginiko ikerlana. Profesional, Artisan eta Merkatarien Greziako Konfederazioko (GSEVEE) erakundea da institutu hori. 2014/01/23 <http://www.gsevee.gr/meletes/342-2014-01-23-13-03-18>
- 56 Pentsioen funts publikoak finantza-porrot birtualean daude eta horrek atzerapena sortzen du subsidioak gauzatzeko prozesuan. Kasu batzuetan, 4 urtera iristen da atzerapen hori, eta beste batzuetan, beste 20 hilabete behar izaten dira lehen hilabeteko prestazioa jasotzeko.

- 57 Jorge Riechmanek *El socialismo puede llegar sólo en bicicleta* liburuan aipatua, Madril, 2012, 121.
- 58 José Manuel Naredo, *Raíces económicas del deterioro ecológico y social*. Siglo XXI editores, Madril, 2006, 38.
- 59 Orduko Ekonomia ministroordeak, Jristos Pajtasek, negoziatu zuen kontratua, eta handik gutxira, dimititu egin zuen, eskualdean turismo-esparru handi bat eraikitzeke lege bat aldatzea ahalbidetu zuela jakitera eman zenean. Gerora, meategiak dauden udalerriko presidente aukeratu zuten Pajtas, eta proiektuaren babesle nagusietako bat da.
- 60 Eraikuntzaren sektoreko koloso bat da Aktor. Berak eskuratu zituen 2004ko Joko Olinpiarretako proiektu gehienak. Bobolastarrak dira jabeak, Greziako ekonomian eragin gehien duen familietako bat; besteak beste, Mega TV Greziako telebista kate pribatu nagusienaren jabea ere bada Bobolas familia.
- 61 Hainbat egile, *Munduari begiratzeko betaurrekoak* aldatu. Libros en Acción, Madril 2011, 224.
- 62 Egileari egindako elkarrizketa, argitaratu gabea.
- 63 Claude Mossé, *El mundo griego y el Oriente* (II. liburukia. El siglo IV y la época helenística). Akal argitaletxea, Madril 1998, 98 eta hurrengoak.
- 64 Karl Polanyi, *The Great Transformation*. Gaztelaniazko edizioa, *La gran transformación*. La Piqueta/Endymion argitaletxea, Madril 1989, 100.
- 65 Ikusi Parte II. Buscando alternativas atala, liburu berean.
- 66 “Enpresa kapitalista hierarkia zorrotzeko egitura da: antolaketa zati bakoitza, bat izan ezik, goragoko entitate bakar baten mende dago. [...] Beraz, demokraziaz ari garela, beharrezkoa da enpresa demokratizatzea; hau da, beharrezkoa da enpresa barneko hierarkia- eta botere-egitura aldatzea. Eta, era berean, premiazkoa da enpresa handiek gainerako gizartearen gain duten neurritz gaineko boterea orekatzea. Horrenbestez, lan-harreman bidezkoen bestelako oinarri bat finkatzekotan, buru egin beharko diogu erronka horri”. Moisés López, *Democracia económica y cooperativismo*. Alba Sud: <http://www.albasud.org/noticia/es/520/democracia-economica-y-cooperativismo>
- 67 Andre Gorz. *Metamorfosis del trabajo*. Sistema argitaletxea, 1995. 206.
- 68 Adierazpen guztiak egileak egindako elkarrizketakoak dira.
- 69 Ioannis Nasioulas, “Social Cooperatives in Greece Introducing New Forms of Social Economy and Entrepreneurship”. *International Review of Social Research*, Volume 2, Issue 2, June 2012, 151-171. On line kontsultatzeko: http://www.academia.edu/1751983/Social_Cooperatives_in_Greece_Introducing_New_Forms_of_Social_Economy_and_Entrepreneurship
- 70 Zifrak Ioannis Nasioulas-en, ibíd lanetik atera ditugu. Baina ez ditugu zenbatu 545 etxebizitza-kooperatibak (2011n zeudenak), aldi baterako izaera duen legezko figura baita kooperatiba horiena, eta etorkizuneko onuradunak baka-rik biltzen baititu (ez langileak). Gainera, ez dute jarduera ekonomikorik egi-ten, hori eraikuntza-enpresei esleitzen baitzaie.
- 71 Hala funtzionatzen du, esate baterako, Atenaseko iparraldeko periferian dagoen Palini udalerririk. Produktuek kalitate-ziurtagiriak eta supermerkatuetakoak

baino prezio merkeagoak dituzte. Gaur egun, honako produktu hauek eskaintzen dituzte: Grezia osoko 20 hornitzailearen 18 pasta mota, 6 irin mota, oliba-olioaren 2 barietate, oliben 2, zitrikoen 4, frutaren 3, egoskarien 7, arrozaren 1, patatak, perretxikoak, mahaspasak, jogurtak, 10 gazta mota, eztiaren 3, 4 gozoki mota eta likorearen 3.

- 72 Kathimerini, 2013/12/12.
http://www.ekathimerini.com/4dcgi/_w_articles_wsit6_1_12/12/2013_531823
- 73 Zer da 136 Ekimena? <http://www.136.gr/article/que-es-la-iniciativa-136>
- 74 Julio C. Gambina eta Gabriela Roffinelli, "La construcción de alternativas más allá del capital". Camila Piñeiro Harnecker-en (konp.), Cooperativas y socialismo: una mirada desde Cuba liburuan dago. Editorial Caminos, La Habana 2011, 67.
- 75 Mario Hernández, El movimiento de autogestión en Argentina: empresas recuperadas y movimiento de trabajadores desocupados. Topía editorial, Buenos Aires 2013, 17.
- 76 http://biom-metal.blogspot.gr/2013/06/blog-post_27.html
- 77 Lantegiko langile batek, Alekos Sideridis-ek, fabrikako aurreko zuzendaritza lan-eskubideak eta soldatak gutxitzen hasi zeneko hilabete haietan egindako sindikatuen borroka gogorra azaldu zigun. "2010ean, arazo ekonomikoek enpresan eragina izan zutenean, murrizketekin hasi ziren eta langileok zuzendaritzarekin negoziatzen saiatu ginen. Aldi berean, fabrikari grebak eta lan-uzteak hasi genituen, ateak blokeatu genituen... baina ez genuen erantzunik jaso. 2011ko apirilean, soldata gutxitu ziguten eta, handik hilabete batera, ordaintzeari utzi zioten. Lanpostura joaten jarraitu genuen gure soldatak eskatu ahal izateko, baina gehiago produzitu gabe. Azkenik, justiziak epaia eman zuen: ezin gintuzten kaleratu zor zigutena jaso arte". Elkarrizketa egilearekin.
- 78 Camila Piñeiro Harneckerren (konp.), Cooperativas y socialismo: una mirada desde Cuba liburuan. Caminos argitaletxea, La Habana 2011, 272-300. Andrés Ruggeri, Gizarte Antropologian lizentziatua Buenos Aireseko Unibertsitatean. Facultad Abierta Luzapen eta Ikerketa Programa gidatzen du 2002az geroztik; langileek berreskuraturako enpresak ikertzen dituzten programak, baita horiei laguntza eta aholkuak ematen ere.
- 79 "Pertsona batek enpresa kapitalista batean duen boterea (eta, beraz, diru-sarrerak eta estatus soziala) zuzenean lotuta dago egitura hierarkikoan duen kokapenarekin. Prestakuntza gutxien duten langileak, eta, beraz, enpresarentzat ordeztan errazago direnak, piramide sozial horren oinarrian daude hain zuzen ere. Gailurrean zuzendariak daude, eta bete beharreko (bete ezean enpresatik kanpo geldituko dira langileak) agindua ematen dituzte horiek. Haien gaineratik daude zuzendaritzako goi-karguak eta akziodunak, hau da, enpresaren kapitalaren jabeak. Horietako batzuek, lotura zuzena dute ekoizpenarekin, eta beste batzuek ekoizpen-prozesuaren errentak gozatzen dituzten soilik". Moisés López, Democracia económica y cooperativismo. <http://www.albasud.org/noticia/es/520/democracia-economica-y-cooperativismo>
- 80 Egileari elkarrizketa.
- 81 Andrés Ruggeri, ibíd. 282.

- 82 Andrés Ruggeri, *ibíd.* 292.
- 83 István Mészáros, *Más allá del capital*. Unicamp/Boitemporen argitaletxea, Campinas 2002, 628.
- 84 Henrique T. Novaesek aipatua “Las bases del socialismo autogestionario: la contribución de István Mészáros” kapituluan, in Camila Piñeiro Harneggerren (konp.), *Cooperativas y socialismo: una mirada desde Cuba* liburuan. Caminos argitaletxea, La Habana 2011, 180.
- 85 TPPri buruz. <http://www.thepressproject.net/article/48567/Info>
-

- Friedman, Milton. *Capitalism and Freedom*. University of Chicago Press, Chicago 1982.
- Gorz, Andre. *Metamorfosis del trabajo*. Editorial Sistema, 1995.
- Harvey, David. *Breve historia del neoliberalismo*. Editorial Akal, Madrid 2007.
- *El enigma del capital y las crisis del capitalismo*. Editorial Akal, Madrid 2012.
- Hernández, Mario. *El movimiento de autogestión en Argentina: empresa recuperadas y movimiento de trabajadores desocupados*. Editorial Topía, Buenos Aires 2013.
- Klein, Naomi. *La doctrina del shock*. Paidós Ediciones, Barcelona 2010.
- Lapavistas, Costas. *Crisis en la eurozona*, Capitán Swing Libros, Madrid 2013.
- Mészáros, István. *Más allá del capital*. Editora de la Unicamp/Boitempo, Campinas 2002.
- Naredo, José Manuel. *Raíces económicas del deterioro ecológico y social*. Ediciones Siglo XXI, Madrid 2006.
- Piñero Harnecker, Camila (comp.). *Cooperativas y socialismo: una mirada desde Cuba*. Editorial Caminos, La Habana 2011.
- Polanyi, Karl. *La gran transformación*. Ediciones La Piqueta/Endymion, Madrid 1989.
- Riechmann, Jorge. *El socialismo puede llegar sólo en bicicleta*. La Catarata, Madrid 2012.
- Rousseau, Jean-Jacques. *El contrato social*. Ediciones Istmo, Madrid 2004, 105.
- Varoufakis, Yanis. *El Minotauro global*, Capitan Swing Libros. Madrid 2012.
- VV. AA. *Cambiar las gafas para mirar el mundo*. Libros en Acción. Madrid 2011.
- Weber, Max. *La ética protestante y el espíritu del capitalismo*. Ediciones Península, Barcelona 1987.
- Will, Édouard; Mossé, Claude; Goukowsky, Paul. *El mundo griego y el Oriente (II. liburukia)*. Akal argitaletxea, Madrid 1998.

OHARRAK:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....
